

Zu hemen zaude. goiena

GATZ KULTURA SUSTATZEN

Gatz Eguna ospatuko dute Leintz Gatzagan, domekan.

Herriaren ondarea ezagutzera ematea da helburua.

Azoka, tailerrak, mendi ibilaldiak, jolasak
eta beste izango dira, eguerdira bitartean / 19



Eider Sanz DAPeko kidea, Dorleta Elkorobarrutia Gatzagako alkatea eta Aitor Larrañaga Gatz Guneko arduraduna, Leintz Gatzagako Gatz Museorearen aurrealdean, eguaztenean. IMANOL BELOKI

Oñati da 2023ko munduko herri turistiko onena, Turismoaren Mundu Erakundearen ustez / 5

Hamar urte bete dira asteen Fagor Etxetresna Elektrokoak itxi zenetik

Gaur egungo ikuspegiz aztertu dute lau adituk Mondragon Taldearen ikurraren porrota / 2



Emakume gazte baten eguneroko bizipenak, AEDren bidez sortutako 'Ni eta nitarrak' antzezlanean / 35

SINADURAK

	JOANES PLAZOLA / 21
	UNAI ETXENAUSIA / 8
	ESTEBAN IRUSTA MALLEA / 28
	MALENA GONZALEZ ALTUNA / 17
	IZAR ODRIOZOLA / 40

puntua

Maite Fernandez zaharbertzaileari elkarrizketa

Elikadura nahasmendu kasuak gora

AZKEN EGUNAK

Progresiboen hilabetea

2x189€

mó betaurreko progresibo



batzuk eguzkitakoak izan daitezke



MULTIÓPTICAS

Tel: 943 79 29 95
Otalora Lizentziaduna, 18
ARRASATE



Tel: 943 76 15 75
Ibargarai, 16
BERGARA



www.multipopticas.com





Fagor Etxetresna Elektrikoen egoitza nagusia, Arrasateko San Andres auzoan. ARGAZKIAK: GOIENA



FEEk jarduna eten osteko manifestazioa, 2013ko urrian.

Idoia Aranbarri Arzuaga ARRASATE
Debagoiena markatuta utzi zuen eguna da 2013ko urriaren 16a. Fagor Etxetresna Elektrikoak (FEE) kooperatiba hartzekodunen aurrekonkurtsuan sartu zen, eta, gero, etorri ziren langileen manifestazioak, eta azkenik, itxiera. Astelehenean bete zen hamarkada bat egun hartatik. FEEk 5.642 langile zituen mundu osoan; 1.800 baino gehiago zituen Euskal Herriko bost lantegietan, eta horietatik 1.736 ziren lan-bazkideak.

Ziurgabetasuneko aste gogorak izan zirela dio Fagor Taldeko zuzendari Joxean Alustizak, eta FEEk garai hartan bizitakoa "aurrekaririk gabeko" egoera zela. Julen Bollain MUko ekonomia irakaslea, Elena Laka abokatua eta Igor Ortega Lanki kooperatibismo ikertegiko ikertzailea bat datoz "gizarte mailan inork ez zuela uste halakorik gertatuko zenik" esatean.

FEEren itxieraren aurrean, kooperatibako nahiz Fagor Taldeetik kanpo zeuden kooperatibetako profil ezberdinei egindako "elkarrizketa sakonetan" oinarritutako ikerketa garatu zuen Lankik, haien pertzepzioak jaso eta egoeraz galdetzeko. Lankiko Igor Ortega ikertzaileak adierazi du atera zuten ondorioetako bat izan zela "globalizazio garaian produkzioa bertan mantentze horrek" errentagarritasun arazoak sortu zizkiela: "2000ko hamarkadan bada apustua marka berriak eskuratuta merkatuan beste posizionamendu bat lortzea, eta errentagarritasunari begira egon zitezkeen arazoak erantzutea. 2008ko krisiak zuzenean eragin zien. Nire irudipena da enpleguari eusteko saiakera epikoa izan zela; ziurrenik, merkatu logikaren aurka egindako ahalegina ere bai".

Fagor Etxetresnen itxierak 10 urte: egungo begiradaz, atzera begira

Fagorreko presidente Joxean Alustizarekin, Julen Bollain ekonomia irakaslearekin, Igor Ortega Lankiko ikertzailearekin eta Elena Laka abokatuarekin egon da GOIENA

Kooperatiben elkartasuna

Kooperatibismoak izandako baloreen artean elkartasuna ekarri du gogora MUko ekonomia irakasle Bollainek; bai FEE itxi aurretik, baita ondoren ere: "Erantzun bat eman behar zitzaion eta Mondragon Taldea saiatu zen bertako langileei esker; baina, azkenean, ez zen bideragarria. Ondoren, lan-bazkideei ere eman zaie erantzuna Fagorreko eta Mondragon Taldeko beste kooperatiba askoren

arteko elkartasuna eta lanpostu batzuk eskainiz".

Elkartasuna egon zela; horrekin ados dago Ortega ere, baina azaldu du Mondragon Taldea ulertzeko modu ezberdinak ikusi zituztela ikerketarako egindako elkarrizketetan: "Eztabaida egon zen Mondragonek zenbateraino lagundu behar zuen. Kanpotik zegoen begirada ere bazen gehiago kooperatiba bakoitza subiranoa zela eta bakoitzak duela bere proiektuarekiko

erantzukizuna. Elkartasuna bai, baina autoexigentzia horretatik ulertu behar da. Dena ezin da izan elkartasuna, eta horrelako bizipenak ere egon ziren".

1.736 lan-bazkideen egoera

Fagorreko presidente Alustizak 1.736 lan-bazkideen egoeraren gaineko xehetasunak azaldu ditu. Dioenez, 1.405ek izan dute "behin betiko soluzioa". Horietatik 577 dira behin betiko birkokapenen ostean beste koope-

ratiba bateko bazkide bilakatu direnak. Horien %60 Fagor Taldeko kooperatiba bateko bazkide bilakatu da. Ostera, 320 bazkide dira behin-behinean lanean dihardutenak. Horien %71 ari da Fagor Taldeko kooperatiba batean. Zentzu ekonomikoan "galera inportanteak" gauditutuztela dio; bat dator Bollain.

FEEren porrotak eragindako eraginak askotarikoak izan ziren, hala nola galera ekonomiko garrantzitsuak -850 milioi euro baino gehiagoko zorra zuen-, konkurtsuari lotutako prozedura legal guztiari aurre egin beharra, eta ziurgabetasun egoeraren geratu ziren bazkideen egoeraren kudeaketa -dena den, langabezia geratu ziren ehundaka lagun-. Alustizaren esantetan, testuinguru hartan, "egokien iritziriko urratsak" eman zituen Fagorrek: "Askotako jokoan eta beharrezkoa zen arduraz jokatzeko. Finean, orduan emandako erantzunak eta egoerari aurre egiteko gaitasunak eragina izango zuten kooperatibagin-


"FEE ITXI ZENETIK, 1.736 BAZKIDETATIK 1.405EK IZAN DUTE BEHIN BETIKO SOLUZIOA"



JOXEAN ALUSTIZA
FAGOR TALDEKO
PRESIDENTEA

"AHALIK ETA KALTE TXIKIENEKIN IRTETEKO HELBURUZ HARTU ZIREN ERABAKIAK"

"MONDRAGON TALDEAK EPAIA IRABAZI ARREN, EZ ZEN GARAIPEN BOROBILA IZAN"



ELENA LAKA
ABOKATUA

"GORENEAN LEHEN GALBAHEA PASATZEAK GARRANTZIA DU; AUZIA BIZIRIK DAGO"

"USTE DUT TALDEAK BERE BAITAN ETAPA GAINDITU DUELA, ZENTZU EKONOMIKOAN"



JULEN BOLLAIN
MU-KO EKONOMIA
IRAKASLEA

"EKONOMIKOKI MONDRAGON TALDEKO KOOPERATIBAK ZURRUNAGOAK DIRA, GAUR EGUN"

"ENPLEGUARI EUSTEKO SAIKERA EPIKOA EGIN ZELA USTE DUT; MERKATU LOGIKAREN AURKA"



IGOR ORTEGA
LANKI IKERTEGIKO
IKERTZAILEA

"NATURALTASUN GEHIAGOREKIN ONARTU BEHARKO GENUKE ENPRESEK BIZI ZIKLOA DUTELA"



CNA taldeko burua, Fagor Etxetresnak erosteko kontratua sinatzen, 2014ko urrian.



Sotil eta Uzin, 2016ko uztailean.



Sergio Treviño FEEren zuzendari nagusi ohia epailearen aurrean, 2018ko maiatzean.

tzan, Arrasaten, Debagoienan, eta, oro har, Euskal Herrian. Erabakiak gogorrrak izan ziren arren, egoera latz hartatik ahalik eta kalte txikienekin irteteko helburuz hartu ziren".

Ordaindu-Eskuratu auzia

Borondatezko ekarpenak eginez aurrezkiak zituzten FEEko eta Edesako 900 langile baino gehiagok bide judiziala hartu zuten, Ordaindu eta Eskuratu gisa izenpetutako elkarte bidez. Besteak beste, 47,8 milioi eskatzen zituzten ekarpenak galdu egin zituztelako itxierarekin eta konkurtsoaren egoerarekin. Ordainduko zuzendaritza batzordeko kide zen Mikel Olabek GOIENAK 2017an egindako elkarrizketa batean zioen engainatuak sentitzen zirela: "Engainatuta sentitzen gara Kontseilu Errektoreak esaten digulako gure kontua konpondu egin behar zela. Engainatuta baita FEEk arazorik ez zuela eta finantziariorako arazorik ez zegoela esan zigutelako". Bergarako epaitegira eta, gero, Gipuzkoako Lurralde Auzitegira jo zuten. Bietan ebazpena bera izan zen, Mondragonen aldekoa: lehen alegazioa

argudio hartuta auzia preskribituta zegoela ebatzi zuten.

Elena Laka abokatuak adierazi du auziak bederatzita puntu zituela: "Lehena preskripzioa zen eta epaitegiak horri heldu zion. Preskribituta zegoela ebatzi zuenez, mamian ez zen sartu. Garaipena Mondragontzat ez zen borobila izan; preskripzioa onartu arren, ez zen ebatzi engainurik, manipulaziorik... egon zen". Hala ere, uste du langileentzat "garaipen txikia" izan zela Mondragon Taldea auzitegietara eraman zutelako. Auzibidearekin jarraituz, kasazio helegitea jarri zuten langileek Espainiako Auzitegi Gorenean, eta onartu egin zuten. Oraindik ebazpena eman gabe badago ere, Lakak dio auzia bizirik dagoela, lehen galbahea pasa duelako Gorenean.

Zer ikasi da?

Alustiza, Bollain eta Ortega jakitun dira duela 10 urteko egoera errepikatu daitekeela ez bakarrik kooperatibetan, baizik eta edozein enpresatan. Hala ere, Fagorren gertatutakoaren hausnarketa egin dutela dio presidenteak: egun Errektore

Fagor Etxetresnak-en krisiaren kronologia

- **2013-10-16** la mila milioiko zorrarekin, FEEk konkurtsoaren aurrekoan sartzea eskatu zuten.
- **2013-10-18** Manifestazio jendetsua egin zuten Arrasaten.
- **2013-10-31** Kooperatibak konkurtso legera joan zuten. Mondragonek erabaki zuen FEEri diru gehiagorik ez ematea.
- **2014ko maiatza** FEEko eta Edesako 980 bazkide birkokatu zirela adierazi zuen Erkidek.
- **2014-07-22** CNA taldeak –Cata– enkantea hautsi zuen –42,5 milioi eta 705 enplegurendako eskaintza–. Astebetera, epaile administratzaileak Cataren alde egin zuen.
- **2016-03-09** Ordaindu eta Eskuratu Mondragon Taldearen kontra jarritako salaketa tramitera onartu zuen epaileak. FEEn eta Edesan galdutako 47,8 milioi euro eskatzen zituzten.
- **2016-07-20** Mondragonen Kongresua Donostian. "Aro berri bat" hasi zuen taldeak.
- **2018-07-27** Bergarako lehen auzialdiko epaitegiak atzera bota zuen Ordaindu eta Eskuratu taldeek jarritako salaketa.
- **2019-07-02** Gipuzkoako Lurralde Auzitegiak Mondragon Taldea absolbitu zuen, Bergarako epaitegiak 2018ko uztailean emandako epaia berretsita.
- **2022-06-09** Espainiako Auzitegi Gorenak onartu egin zuen Ordaindu eta Eskuratu taldeen kasazio helegitea.



Kontseiluan hartzen dituzte egoera ekonomiko zailtara egokitzeke unean uneko erabakiak, erantzunak azkarrago emateko. Bestalde, funts propioak indartze aldera, zenbait aldaketa egin dituzte emaitzen birmoldaketari loturiko araudian.

"Ekonomikoki Mondragon Taldeko kooperatibak zurrungoak dira eta ikusten da zurruntasuna mantentzen dela. Kontuak modu zorrotzagoan eramaten dira, nahiz eta gustatuko litzazigukeen izapideak azkarrago egitea", dio Bollainek.

Ortegak ateratako irakaspenen artean da naturaltasun gehiagorekin onartu beharko litzatekeela enpresa bakoitzak bere bizi zikloa duela, eta funts komunak indartzen jarraitu beharko litzatekeela, inbertitu eta jarduera berriak sortzeko "emergenteagoak" diren sektoreetan, galtzen den lanpostua konpentsatu dezaketanak.

Gaur gauean, GOIENA telebistan

FEEn itxieraren urteurrenaren harira, GOIENA telebistak *Itxiera bat. 10 urte. 11 ikasgai* erreportaje berezia eskainiko du, gauean, 19:30ean eta 21:30ean.

bertako
igogailuak | ascensores

BENETAKO OROTARIKO ZERBITZUA
100€-tik/hileko

**IGOGAILUEN
MANTENTZE-LANEN
ESKAITZA
ZORROTZENA**

**2.500 bezerok gugon
dute konfiantza**

943 903 450
bertako.eus



Debagoieneko Mankomunitatea osatuko duen lantaldea; Dorleta Elkorobarrutia izango da presidentea. GOIENA

Zuzendaritza berritu du Mankomunitateak

Ongizatea, garapen sozioekonomikoa eta trantsizio ekologikoa izango dira legegintzaldi berri honetako lantaldeak jarraituko dituen hiru ardatz nagusiak. Horretaz gain, orain arte izan dituzten dinamikekin ere lanean jardungo dute

Julen Murua Mesonero DEBAGOIENA Azken Udal hauteskundeetako emaitzetatik eratorrita, legegintzaldi berri honetarako "garaiko erronkei erantzuteko zuzendaritza taldea" eratu da Debagoieneko Mankomunitatean, eta lantaldeak "lidergo eta gobernantza berrien aldeko hautua" egin duela adierazi dute ohar baten bitartez. Dorleta Elkorobarrutia -Leintz Gatzagako alkatea- izango da mankomunitateko lehendakaria, eta berarekin elkarlanean arituko da Xabier Igartua, lehendakariorde gisa.

Gainera, esan dute lantalde berri hau "governantza-eredu kooperatibo baten alde" lerrokatzen dela eta "herri txiki zein handien ordezkariak orekatua bermatzeko apustua" egin dutela. Datorren legegintzaldi honetan "governantza eredu berri baten alde lanean" jardungo dutela adierazi dute, "Debagoienak behar duen jauzia herritar, gizarte eragile zein enpresekin elkarlanean egin ahal izateko".

Elkorobarrutiak eta Igartuak adierazi dute "ilusio eta gogo handiz" hartu dituztela karguak, eta nabarmendu dute "erronka ilusionagarria" dela eskualde eskalan aritzea.

Batzordeen eraketa

Eguaztenean mankomunitatean bertan egindako batzarrean aukeratu zituzten batzordeetako lehendakariak. Hori horrela, Garazi Etxeberria arrasatearra Ingurumen batzordeko ardura-duna izango da; Angel Mari Etxabe aretxabaletarra, berriz, Garapen Agentziakoa; Gorka Artola, Ogasunekoa; eta, azkenik, Dorleta Elkorobarrutia, Pertsonaleko lehendakaria izango da legegintzaldi honetan.

HIRU ARDATZ NAGUSI JARRAITUKO DITU LANTALDEAK LEGEGINTZALDI BERRI HONETAN

Hiru ardatz

Legegintzaldi berri honetan, Debagoienerako "estrategia integral bat" garatuko dute, "gaur egun bizi ditugun gaiek parez pare jartzen dizkiguten erronkei erantzuteko". Horretarako, hiru ardatz nagusiren baitan lanean arituko direla azaldu du Xabier Igartuak: "Lehenengo ardatza ongizatea izango litzateke, uste baitugu eskualde mailan aurrerapausoak eman ditzakegula zentzu horretan; bigarren ardatza garapen sozioekonomikoarekin lotuta egongo da, eta, azkenik, nola ez, trantsizio ekologikoaren inguruan ere arituko gara lanean. Uste dut bertan indarrak sartu behar ditugula, atzeratuta gabiltzalako kontu horien baitan, orokorrean, administraziokoak, eta, beraz, aurrerapausoak egin behar ditugu. Orain arteko dinamikekin ere jarraitu beharra dugu, baina talde modura hiru erronka horiek ezarri ditugu datozen lau urteetara begira".

Kiroldegietako sarrera prezioa berdina izango da denentzat

Elgetan bizi baina egunerokotasunean Bergaran izaten den batek salatu zuen kasua aurrenekoz

J.M.M ARRASATE

Herrian bertan erroldatuta ez zaudenei kiroldegira sartzeagatik gehiago ordainarazten zieten udalek alde batera utzi beharko dute politika hori. EAeko Auzitegi Nagusiak erabaki du debekatzea erroldatuta dagoen batek eta ez dagoen beste batek zeukaten ezberdintasuna kiroldegirako sarrera ordaintzerakoan: "Udalerrri batek, bere borondatez, legez behartuta ez dagoen zerbitzu bat ematea aukeratzen duenean, nahitaez ematen dutenen baldintza berberetan egin behar du, eta ezin izango du justifikaziorik gabeko diskriminaziorik egin beste udalerrri batzuetan erroldatu-takoentzat".

Beraz, hemendik aurrera, kirol-esparruetako erabiltzaileek ez dute erroldatuta dauden herriaren arabera prezio ezberdina ordaindu beharko.

Udalaren argumentua

Bergarako Udalak bertan erroldatuta daudenei emandako hoberia justifikatzeko adierazi du horiek "zerbitzua bi bidetatik" ordaintzen dutela, dagozkien tasak ez ezik "udal-zergak ere"

ordainduko lituzketelako. Hala ere, auzitegiak dio ezin duela onartu argudio hori: "Kontuan izan behar dugu udal-zergak ez dituztela udalerrri horretan erroldatutako pertsonak bakarrik ordaintzen. Eta, horrela, sarritan egoten dira erroldatuta ez dauden udalerrri batean zergak ordaintzen dituzten bizilagunak: negozioren bat dutelako, higiezin bat dutelako edo bertan egoten den ibilgailu bat dutelako. Bada, pertsona horiek, udalaren kirol-instalazioak erabiliz gero, erroldatutakoei eskatzen zaiena baino prezio handiagoa ordaindu beharko lukete".

Neurriak hartzen

EAeko auzitegiaren erabakiaren ondorioz, hasi dira neurriak hartzen udalerrrietan. Aretxabaletan, esaterako, proposatu dute sarreraren prezioa %7,6 igotzea "diru sarrera kopurua mantentzeko". Arrasaten ere egin dute tasak onartzeko osoko bilkura, eta Bergaran datorren astean egingo dute. Hasiera batean, Agorrosingo kiroldegiko abonuen zein bertan ematen diren ikastaroen prezioa %10 igotzea proposatuko du udal gobernuak.



JULEN MURUA

Kanpaina aurkeztu du Atzegik

2023ko sentsibilizazio kanpaina aurkeztu du Atzegik *Ni prest nago, eta Gipuzkoa?* lelopean. Horrela, adimen desgaitasuna duten pertsonendako enplegu publikorako deialdi gehiago eskatu dituzte. Kanpaina honen helburu nagusia da adimen desgaitasuna duten pertsonen enplegu publikoko plazak eskuratzeko duten eskubidea aldarrikatzea.

Arizmendi eta Saharako herria elkarlanean

Fronte Polisarioak EAEn duen ordezkariaren bisita jaso dute Arrasateko Ferixaleku gunean Arizmendi ikastolako Lanbide Heziketako Mikroinformatika ziklokoek abian jarri zuten Berrerabilpen eta Prestakuntza Zentroa proiektuaren harira

Julen Murua Mesonero ARRASATE
Duela hiru ikasturte hasi zuten Berrerabilpen eta Prestakuntza Zentroa (BPZ) proiektua Arizmendi ikastolako Lanbide Heziketako Mikroinformatika zikloko ikasle eta irakasle taldeko kideek, eta bertan erakunde, kooperatiba, enpresa zein norbanakoen ordenagailu zaharrak jaso eta gobernu kanpoko erakunde ezberdinen bitartez dohaintzan eman, edo prezio sinboliko batean saltzen dituzte.

Proiektu horren barruan, Beñat Irazabal proiektuko zuzendariak adierazi zuen Arizmendi ikastolaren helburua dela "ordenagailu batzuk Saharako eskola

batera bidaltzea, hango eskola bateko ikasleek erabil ditzaten, eta bide batez, arrakala digitala gutxitzeko".

Fronte Polisarioaren bisita

Elkarlan honetan hasierako urratsak emateko, Mohamed Fadel Brahim Ahameden -Fronte Polisarioak Euskal Autonomia Erkidegoan duen ordezkari-bisita jaso zuten astelehenean, eta elkarlanean aritzeko gogotsu agertu zen hura: "Saharako eskoletan laguntza hori behar da; sistema eguneratuagoa txertatu nahi badugu, lan egiteko modu berri bat da, eta laguntza handia behar da horretarako. Boronda-

te ona dago, eta ildo horretan eskola honen zuzendaritzarekin lan egingo dut".

Askoren arteko lana

Proiektuaren barruan dauden ikasleek eginiko lana goraiatu zuen Irazabalek, "haiek direlako proiektuko protagonistak eta haiek gabe proiektua ez litzatekeelako berdina izango". Horrez gain, guztia aurrera eramaten lagundu duten guztien elkarlana nabarmendu zuen: "Proiektuak aurrera jarrai dezan BPZ-koentzat oso garrantzitsua da inguruko norbanako, erakunde, kooperatiba zein enpresekin zubiak eraikitzen jarraitzea".

'Errekak bizi auzolanean'-en bigarren edizioa abian da

Bailara osatzen duten bederatzi herrietatik zortzik hartuko dute parte ekimenaren bigarren edizio honetan

J.M.M. DEBAGOIENA

Bihar, hilaren 21ean, ospatuko da bigarren urtez jarraian *Errekak bizi auzolanean* eguna Debagoiengan -Leintz Gatzagan urriaren 28an egingo dute, 22an Gatzaren Eguna izango dutelako-. Eguaztenean amaitu zen ekimen honetan izena emateko epea, eta orain auzolanean aritzea besterik ez da falta. Antolatzaileek ingurumenari laguntzeaz gain, "giro oso ona" izatea espero dute.



lazo erreka garbiketa Bergaran. GOIENA

Ekimenaren harira hitzaldia

Errekak bizi auzolanean eguna osatze aldera, gaur, hilaren 20an, *Gure ibaiak, egungo arazoak eta etorkizuneko erronkak* hitzaldia eskainiko du Aitor Lekuona Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikariak, Arrasaten. Hitzordua Kulturaten izango da arratsaldeko 18:00etan. Debagoiene-

ko beste herri batzuetan ere ingurumenarekin lotutako bestelako hitzorduak antolatu dituzte: Bergaran landare inbadi-tzaileen inbentarioa egingo dute, eta Oñatin hitzaldi, dokumental eta ibilbide gidatu bana izango dira.

Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Lege Berria

Askoz gehiago ekartzeko eratua

- + Erraztasun gehiago ulertu eta tramitzeko orduan.
- + Laguntza gehiago gehien behar duenari.
- + Babes gehiago, arreta bereziarekin genero indarkeriaren biktimak direnei.
- + Arreta pertsonalizatu gehiago.
- + Jasangarritasun eta eraginkortasun gehiago bere kudeaketan.
- + Gizarte kohesio gehiago.

Zu bezalako pertsoneri zuzendua:

- Pentsiodunak pentsio baxuekin.
- Emakumeak guraso bakarreko familien arduradun.
- Biktimak indarkeria matxista, sexu jazarpena edo terrorismoagatik.
- Desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonak.
- Langilea diru-sarrera baxuekin.
- Gazteak bizitza independentearekin une larri batean.

Lanbiden zure laguntza-eskaeran babesten zaitugu.

Informatu hemen:
www.lanbide.eus
945 160 600



'Haurren aurrean, helduok heldu' egitasmoaren aurkezpena. EUSKALTZALEEN TOPAGUNEA

Abiatu dute 'Haurren aurrean, helduok heldu'

'Haurren aurrean, helduok heldu' egitasmoa aurkeztu dute. Euskal Herriko 80 herritara zabalduko da eta gurean, Eskoriatzan, Bergaran, Arrasaten eta Elgetan izango dute parte hartzeko aukera; guztietan familientzako egitarau zabalak dituzte

Iñigo Barrena DEBAGOIENA

Euskaltzaleen Topagunearen gidaritzapean, *Haurren aurrean, helduok heldu* ekimena abiatu berri dute beste urte batez. Ekimena Euskal Herriko ia 80 herritan egingo da eta datorren hilaren 29ra arte luzatuko da; tartean dira Arrasate, Bergara, Eskoriatza eta Elgeta. Haurrekin harreman zuzena duten helduek beraien hizkuntza praktiken inguruan hausnartu eta euskara gehiago erabiltzea da ekimenaren helburuetako bat. Era berean, helduen sentsibilizazioan, ahalduntzean eta saretean eragin nahi du, eta horretarako, tailerrak eta hitzaldiak antolatutuzte herri guztietan. 16 urte-

tik gorako helduei zuzenduta dago ekimena, baina batik bat 0 eta 12 urte bitarteko haurren gurasoei edo zaintzaileei; hala, Euskaltzaleen Topagunetik ekimenean parte hartzeko deia egin diete haurrek etorkizunean euskaraz "eroso eta naturaltasunez" aritzea nahi duten gurasoei.

Eskaintza zabalda gurean

Debagoiengan ere martxan jarri da jada ekimena eta lau herritan egongo dira ekintzak. Guztietan atzo egin zuten lehen ekintza; Eskoriatzan eta Bergaran mahai informatiboa eta egitasmoaren aurkezpena egin zuten; Arrasaten, aldiz, txapa eta hiztegi banaketa egin zuten.

Datozen egunetarako ere denetarik ekintzak izango dituzte haurrek zein gurasoek. Tailerrak eta hitzaldiak hartuko dituzte egitarauaren zati nagusia, baina izango dira beste hainbat ekintza erakargarri. Azpimarratzeko artean, Eskoriatzan esaterako, familien arteko olimpiadak egingo dituzte gaur, eta hilaren 25ean yoga familian egiteko aukera egongo da; Bergaran *scape rooma* edo *Magia Tailerra* izango dituzte besteak beste; Arrasaten, familiak bihar-ko erreka auzolanean parte hartzeko deia egin dute; Elgetan, urriaren 26rako, deia egin dute familia giroan poste-posteka baloi jokoan aritzeko.

2023ko herri turistiko onenaren saria eman diote Oñatiri

Nazio Batuen Turismoaren Mundu Erakundeak 'Best Tourism Village 2023' saria eman dio Oñatiri

I.B.K. OÑATI

Turismoaren Mundu Erakundeak (TME) 2023ko herri turistiko onenaren saria eman dio Oñatiri Uzbekistanen egin den ekitaldian. Ekimen honetara mundu guztiko 72 estatutako 260 herri bako bako gehiagok aurkeztu dute hautagaitza, eta soilik 54 herri egin dute aurrera, tartean Oñati. Hirugarren edizioa izan da aurtengoa, eta urtero egin bezala bederatzialorretan ebaluatu dituzte aurkeztutako hautagaitzak: jasangarritasun ekonomikoa, jasangarritasun soziala, ingurunearekiko jasangarritasuna, baliabide kulturalen sustapena eta kontserbazioa, baliabide kulturalak eta naturalak, turismoaren lehenespina eta gobernantza, azpiegitura eta konektibitatea, osasuna eta segurtasuna, eta garapen turistikoa eta balio-katearen integrazioa.

Hain zuzen, "Best Tourism Villages by UNWTO" ekimenak Oñati errekonozitu du, ondasun kultural eta naturalak dituen landa-turismoaren adibide nabarmena delako, landa guneetan dauden balioak, produktuak eta bizi-estiloak zaindu eta sustatzen dituelako, eta berrikuntzarekin eta iraunkortasunarekin konpromiso argia duelako.

Oñatirekin batera sartu dira herri turistiko onenen zerrendan Siguenzako (Guadalajara) eta Cantaviejako (Teruel) herriak; hauek ere sarituak izan dira ekitaldian. Ekimen hau 2021.

urtean jarri zuten abian, eta aurtun hirugarren edizioa izan du. Une honetan, Euskal Herriko bi herri daude Turismoaren Mundu Erakundearen herri onenen zerrendan, aipatutako Oñati eta lehen edizioan zerrendan sartu zen Lekunberri.

Oñatiko Udala, "pozik"

Horrelako sariak ez dira eguneroko jasotzen eta Oñatiko Udaletik "pozik" hartu dute albistea. "Sari guztiak bezala, egindako lan guztiaren aitortza bat da, beraz, ongi etorria eta pozgarria da jaso berri duguna", adierazi du Izaro Elorza Oñatiko alkateak. Hain zuzen saria turismo jasangarritasunari lotutakoa da, hori dela eta, beraz, berria are pozgarriagoa dela aitortu du Izaro Elorzak: "Udaletik iraunkortasun eta jasangarritasunaren aldeko apustua dugu egin da, eta sari honek hori ere errekonozitzen du".

Oñatin urte guztian zehar izaten dira turistak herria bisitatzen eta herriak eskaintzen dituen aukera ezberdinekin gozatzen. Orain, saria jasota, aurrean erroka garrantzitsua du Udalak. "Hemendik aurrera, herritarren eta turistaren arteko elkarbizitza aurkitzen saiatuko gara, hor jarriko dugu arreta", adierazi du Elorzak. Gaineratu du, elkarbizitza horrek baldintzatzen duela "turismoaren iraunkortasuna", eta lanean jarraituko dutela ekintza ezberdinak aurrera eramanez.

Elkarretaratzeak gure herrietan

Elkarretaratzeak egin dituzte Palestinaren alde azken egunetan gure herrietan; irudian, martitzenean Bergarako plazan egin zutena. Oñatin, berriz, pasa den eguaztenean egin zuten. Biharko Arrasaten eta Aretxabaletan elkarretaratze bana daude deituta. Arrasaten 19:30etan eta Aretxabaletan 20:00etan, biak herriko plazan.



OIHANA ELORZA

1,4 milioi euro gehiago Gipuzkoako udalentsat

2023ko diru bilketa aurreikusitakoaren gainetik dago, eta horrek eragina izango du udalen finantzaketan, Udalen Finantzaketarako Foru Funtzak (UFFF) jakinarazi duenez. Urrian egin ohi den aurrelikidazioaren arabera, Gipuzkoako udalek urte hasieran agindutakoa baino ia 1,4 milioi euro gehiago jasoko dituzte.

Gure bailarako herrietako udaletara etorrira, honakoak lirateke udalek kopuru horretatik jasoko lituzketen diru kantitate gehigarriak: Arrasateko Udalak 40.700 euro gehiago; Bergarako Udalak 27.000 euro gehiago; Oñatiko Udalak 21.000 euro gehiago; Aretxabaletako Udalak 13.200 euro gehiago; Eskoriatzako Udalak 7.700 euro gehiago; Antzuolako Udalak 3.400 euro gehiago; Elgetako Udalak 2.000 euro gehiago; eta Leintz Gatzagako Udalak 560 euro gehiago.

2023/10/22

Urkulu urtegia | Aretxabaleta | Gipuzkoa

MLS MUNDUKIDE

VIII. Lasterketa Solidarioa

eman pausoa!



info +
mundukide.org



2006-2007-2008-2009an jaiotakoak • 6.300 m
2010-2011an jaiotakoak • 1.500 m
2012-2013an jaiotakoak • 1.000 m
2014-2015an jaiotakoak • 500 m
2016-2017-2018an jaiotakoak • 100 m

izen ematea
DOHAINIK | mundukide.org

Gaztetxoan lasterketa | ⌚ 10:00



Nordic walking
Publiko guztia
⌚ 10:30



Oinez
Publiko guztia
⌚ 10:30



X3 Lasterketa
Kooperatibak
⌚ 11:00

6.300 m

Antolatzailea:



mundukide
kooperazio kooperatiboa

Laguntzaileak:




FAGOR
ELECTRÓNICA



athlon
bizimodu
osasungarrien
sustapena

Babesleak:



banka kooperatiboa



LABORAL
kutxa



ZABALIK

UNAI ETXENAUSIA

Burbuilatik kanpo eraldatu

"Kultura eta artea ez dira arlo autonomoak, gizarteari estu lotuta daude ezinbestean, eta, egun, beste esparru sozial guztiak bezala klase-borrokak zeharkatzen ditu. Gizarte kapitalistaren mundializazio garaian, gero eta nabarmenagoa da gure klaseak determinatzen duela daukagun kultura, mundua ikusteko eta bertan jokatzeko moduak ez direla berak klase batentzat ala bestearentzat". Oso egokia iruditzen zait EKIDA arte ekimen sozialistako kideek haien aurkezpen testuan partekatu zuten kulturaren inguruko gogoeta hau datozen lerroetan azalduko dudana testuinguratzeko.

Nondik, norentzat eta zertarako sortzen du artistak –edo artistek?– Edukiak –abesti baten letrak, margolan batek, antzezlan batek...– ez du beti artistaren intenzionalitatea eta nahia definitzen; haren posizio politikoak definitzen du.

KAPITALISMOAREN ALTERNATIBA IZATETIK HARATAGO, HURA GAINDITZEA IZAN BEHAR DU XEDE

Adibidez, abeslari batek *hau guztia aldatu behar da, guztiak sutara* –asmatu egin dut esaldia– kantatu lezake, baina, aldi berean, eraldaketarako sare artistikoa iraultzailerik ez ehuntzea. Zein da egiten duen ekarpena?

Kolektiboa izan behar da arte sozial eta politikoa, boterearen edo kapitalismoaren diskurtsoaren alternatiba erreal bat. Hala ere, kapitalismoaren alternatiba izatetik haratago, hura gainditzea izan behar du xede. Egun, ez dirudi eraldatzeko gaitasun handirik edo intenzionalitaterik dagoenik. Burbuila alternatiboak sortu ditugu, baina erradikalak direla uste dugun oasiak besterik ez dira: kaos kontrolatuak.

Kosmobisio eraldatzaile bati erantzun behar dio arteak. Burbuila isolatuetan geratuko den elementu estetiko eta alternatiba huts bezala hartzeak ez du ezer aldatuko. Ez dut helburu estetikorako bakarrik sortzen den artea kritikatu, baina arte sozial eta politiko kritikoa egiten ari zarela uste baduzu, errealitatea eraldatzea izan behar du xede. Eta bakarrik ezin da.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Letrek ere behar dituzte zenbakiak

NEREA LOIOLA

'BERRIA'-N ARGITARATUA

[HTTPS://LABUR.EUS/ERVKC](https://labur.eus/ervkc)

Sorkuntzatik bizitzea ozeanoa belaontzi txiki batean zeharkatzea bezalakoa izan daiteke, ur gainean zaude eta nabigatzen, ustez salbu eta bizirauten, baina ezin duzu burutik kendu zu hondoratzeko bezainbeste indar izango duen ekaitzaren mehatxua; ez dakizu noiz eta nondik etorriko den, baina iragarpenek beti diote gertu daukazula. Euskaraz sortzen baduzu, gainera, zure belaontziko bela bakarra arrailduta dagoela asumitu

beharko duzu; ekaitz baten aurrean bizirauteko zure aukerak nabarmen murrizten direla jakinda jarraitu beharko duzu nabigatzen. Eta honi guztiari gaineratu behar badiuzu emakumezkoa zarela..., seguruenik ez zait nabaritzen, baina goizero-goizero bularretakoa jantzi ordez, salbamendu-txalekoa jantzita ateratzen naiz etxetik.

Ez naiz nire sorkuntza lanetatik bizi, ezin dut; eta ez dut liburuen etekinetatik soilik bizi daitekeen inor ezagutzen. [...]

Sortzetik bizi garenon eta bizi nahi dugunon lan baldintzak –beraz, bizi baldintzak– duintzeko

asmoarekin sortu zen 2020an Lanartea, Euskararen Langile Profesionalen Elkarte. Datorren larunbatean, Euskal Artisten lehen mintegia antolatu du Oiarzunen. Ez gara bertatik ezer konponduta aterako, asko dago egiteko eta ez dakigu nolako ekaitzek harrapatuko gaituzten bidean; baina ziur transatlantiko egonkor eta seguruak irudikatuko ditugula guztion artean. Zeren eta, egia esan, estutzen duen arren, niri ahaztu egiten zait salbamendu-txalekoa jantzita bizi naizela, ahaztu egiten zait belaontzi arrakalatu batean nabigatzen dudala. Hain da ederra ozeanoa.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantxabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Goiatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.

Publizitatea

Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.500 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

BERBAGAI

"Epaileak ari dira hizkuntza pribilegiatua babesten"

IÑIGO URRUTIA EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA

Julen Murua Mesonero BERGARA Euskararen aurkako oldarraldi judizialaren harira hitzaldia eskaini zuen martitzenean Iñigo Urrutiak (Jatabe, 1966) Bergarako Irizar jauregian. EHUko irakaslea eta abokatu euskaltzalea da bera, eta epaiaren inguruan zein horren aurrean egin daitekeenaren inguruan aritu zen.

Nola baloratzen duzu ebazpena?

Hau da segida baten azken katebegia. Azken bolada honetan sarri ematen ari dira horrelako epaiak, nolabait, euskararen erabateko normalizazioaren aurkakotzat hartu genitzakeenak. Hain zuzen, oinarritzen dira gazteleraren defentsan. Hori benetan gauza berria da, eta, nolabait, legearen ikuspegitik erabat arraroa, legeek onartzen dutelako euskara dela normalizazioaren beharra duen hizkuntza ofiziala. Gazteleraren defentsan



Iñigo Urrutia, Goienaren egoitzan. GOIENA

aritzea benetan harrigarria da ikuspegi juridikotik. **Zer dio ebazpenak?** Udal legeak hizkuntzaren trataerari buruzko artikulua batzuk jaso zituen, eta artikulua horiek garatzera

etorri da dekretua, hain zuzen, VOX alderdi politikoak errekurritu duen dekretu hau. Errekurtso hori auzitegi nagusian izapidetu da, eta orain jakin dugu kontrako sententzia. Benetan latza da,

eta aurreko jurisprudentzia sendotzen du. Nolabait, euskararen normalizazioaren aurkako sententzia bat da, eta esaten digu euskararen normalizazioarekin urrutiegi joan garela eta hori mugatu egin behar dela gazteleraren defentsa delako epaileek babestu behar dutena. Horrek ez dauka ikuspegi juridikotik inolako oinarririk.

Sententzia irmoa da? Zein puntutan dago?

Sententzia errekurritzeko modukoa da, baina errekurtsu hori Madrilgo Auzitegi Gorenean jarri beharko litzateke. Uste dut badaudela argumentu juridiko nahikoa errekurtsu hori aurrera eramateko, eta, erraza ez den arren, sartu beharreko errekurtsua dela uste dut.

Uztailaren 6ko ebazpena mugarrria izan zen?

Uztailaren 6an Konstituzio Auzitegiak sententzia bat eman zuen, hain zuzen, Udal Legeko artikulua bat Konstituzioz aurkakotzat jotzen. Sententzia horrek aurreko ildo juridikoa sendotu zuen. Egia da sententzia horretan badaudela bi magistratu esaten dutenak Udal Legea Konstituzioaren araberrakoa dela erabat, eta ni ere horren aldekoa naiz. Gertatzen ari dena da

pribilegiatua den hizkuntza babesten ari direla epaileak. **Zer egin daiteke egoera honen aurrean?**

Benetan sinisten dut behetik gorako prozesuetan, eta alde horretatik iruditzen zait hausnarketa, orain, gizartean dagoela eta hausnarketa horrek bide eman beharko liokeela beste hausnarketa politikoago bati. Hain zuzen, maila politikoan alderdi euskaltzaleen arteko adostasun bati, eta horren ondorioz gure arkitektura juridikoa ere aldatu, sendotu eta blindatu egin beharko litzateke. Iruditzen zait hori dela bide bakarra gaur egungo noraez etik irteteko.

Euskararen Legea eta Funtzio Publikoari buruzko Legea berritzea da gakoetako bat?

Bai. Bi lege horiek aldatu egin behar direla uste dut, 40 urte bete dituztelako. Hausnarketa orokor bat egin behar da, eta euskara babeste aldera neurriak hartu behar dira. Planteatu behar da ea ez al den administrazioko langile izateko Euskal Herriko bi hizkuntza ofizialak ezagutzeko nahitaezkotasuna ezartzeko momentua. Uste dut, zutabe juridiko horiek berriro ere pentsatu eta eraiki ezean, euskararen zaugarritasunera kondenatuta egongo garela.



Realaren eta Bartzelonaren arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean

GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Reala-Bartzelona norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuek eta zuek aukeratutako beste lagun batek:

Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik.

Reala-Bartzelona: azaroaren 4an, 21:00etan.

Parte hartzeko azken eguna: urriak 29.



Egin Goienakide eta Realak ikusteko aukera izango duzu!

goiena" kide

Okm: batzen gaituen distantzia

Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!



1. Aplikazioa deskargatu.

2. Zozketak atalean sartu eta parte hartu.

Gertu. Zorte on!



Aitzindari eta, 20 urtez, eredu

20. urteurrena du aurten Arrasateko Emakume Txokoak, 2003ko apirilean zabaldu baitzituen ateak; horren harira, erakusketa eta jardunaldi feministak prestatu dituzte

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE "Denbora asko pasatu dela dirudi, baina, era berean, oso gertu ditut hasiera hartako oroitzapenak". Maite Barreñaren berbak dira. Emakume Txokoaren ibilbide osoaren testigu izan da, Arrasateko Udaleko Berdintasun Saileko arduradun gisa, eta sorrerako urteak "oso politak" izan zirela dio. "Emakume Txokoa amets kolektibo bat izan zen garai hartan, gerora egi bilakatu zena. Arrasateko Udaleko Berdintasun Sailak harreman estua zuen Arrasateko Mugimendu Feministarekin, eta, hainbat proiekturen artean, emakumeentzako espazio propio bat izatearen ametsa sortu zen. Hasiera batean, galdera arinak egiten genizkien gure buruei, baina gaiari buruz berba gehiago egin ahala, indar handiagoa hartzen joan zen proiektua, gorpuzten. Konturatu ginen gure esku zegoela bide hori jorratzea".

2003an, ez zen ohikoa udaletan berdintasun sailak egotea, "oso udalerrri gutxitan zeuden", Barreñaren esanetan. "Era berean, ez zen ohikoa sail horretako teknikariak egotea, ezta udalaren eta herriko mugimendu feministaren arteko harremana estua eta iraunkorra izatea ere", dio. Arrasateren kasuan, faktore horiek guztiak elkartu ziren eta horrek egin zuen posible Emakume Txokoa. "Mugimendu feministaren bultzada nabarmena izan zen. Elkarrizketa sakon bat egon zen orduko Udal Gobernuarekin, eta hark borondatea eta konpromisoa erakutsi zuen proiektua aurrera ateratzeko. Horrekin batera, aurrekontu bat onartu zuten Emakume Txokoa egiteko".

Orduko hartan, gaztetxea egiteko proiektua zegoen Arrasaten, eta eraikinaren goiko aldean

Emakume Txokoa egitea bururatu zitzairen. "Hain zuzen, gaztetxeetatik ere hartu genituen ideiak, ikusita nolako sinergiak sortzen ziren gazteen artean", azaldu du Berdintasun Saileko arduradunak.

Kanpoko babes eta eredu falta Arrasate mailan oso prozesu kolektiboa eta babes handikoa izan bazen ere, berdintasun politiketan aritzen ziren Udalez gaindiko erakundeek, Emakunde edota Gipuzkoako Foru Aldundiak, ez zuten begi onez ikusi proiektua, Barreñak nabarmendu duenez. "Are gehiago, esango nuke erantzun ere ez zigutela egin; ezer gertatuko ez balitz moduan jokatu zuten", dio. "Udalaren konpromisoa erabatekoa izan arren, kanpotik ez genuen inolako babes ekonomiko, politikoa zein ideologikorik".

Horrez gain, ez zeukaten inongo erreferenterik, ez Europako hiri handietan eta, are gutxiago, herri mailako proiektuetan. "Hiriburuetan bazeuden bestelako espazio kolektiboak, kultura arlokoak, esaterako, baina herrietan ez genuen gurea bezalako proiekturik topatu. Beraz, amesten genuen hori idazten hasi ginen", adierazi du Barreñak.

Era berean, Ermuan ere antzeko egoeran zeuden. "Arrasateko Mugimendu Feministak harreman estua zuen Ermuko Mugimendu Feministarekin eta Ermuko Berdintasun Saileko teknikari Bego Fernandez eta biok ere lagunak ginen. Bi he-

**'EMAKUME TXOKOAK
20 URTE!' IZENEO
ERAKUSKETA IREKIKO
DUTE KULTURATEN
ASTELEHENEAN**

rrietan ari ziren sortzen proiektuak, eta gai asko elkarbanatu genituen", dio Barreñak. Modu horretan, Euskal Herri mailan aitzindari izan ziren Ermuko Emakumeen Topalekua eta Arrasateko Emakume Txokoa.

Izaera berezia duen gunea

Esther Lizarralde da, hasiera hartatik gaur egunera arte, Emakume Txokoko dinamizatzailea, eta kargu hori hartu izana amets bat izan zela aitortu du. "Master bat egitetik nentorren, berdintasun teknikarien lehenengo promoziotik. Ni ez naiz arrasatearra eta ez nuen ia ezagutzen, baina mugimendu feministatik nentorren, eta proiektu honen berri izan eta hemen lanean hasteko aukera izatea zoragarria izan zen", azpimarratu du. "Proiektu aitzindaria izan zen, anbizio handiarekin egindakoa eta babes feminista indartsu bat zeukana. Horrek eman zion izaera berezi bat Arrasateko Emakume Txokoari".

Jabetze Eskola, 2007tik

2007an sortu zuten Jabetze Eskola, "gune berezitu" gisa. "Formakuntza eta topaketa gune bezala sortu genuen, emakumeen ahalduzko pertsonal eta kolektiboa sustatzea helburu hartuta, saretzeko eta eragiteko. Diskriminazio egoera bat bizi dugu eta horretaz kontzientziatzeko ere balio du, gai feministen inguruan hausnarketa bultzatzen dugulako", dio Lizarraldek.

Ibilbide horretan, emakume askok prozesu pertsonal eta kolektibo bat garatu dute eta horietako askorentzat "gune seguru" bat da, Lizarralderen arabera. "Haien bizitza pertsonaltan eragin bat izan du, eta ahalduzko hori errealitate bilakatu dela ikusi dugu hainbat



Mikromatxismoen inguruko tailerra, 2016an. ARGAZKIAK: EMAKUME TXOKOA



Eskalada ikastaroa, 2016an.



Ekonomia feministaren inguruko tailerra, 2018an.



Autoen mekanikari buruzko saio bat, 2021ean.

'Nahinorahahi' jardunaldiak

"Ospatzeko" erabili gura dituzte datorren asteko jardunaldi feministak, baina baita mahai gainean dauden gaien inguruko hausnarketa egin eta etorkizuneko erronkak definitzeko ere. Domeka da izena emateko azken eguna, *Arrasate.eus*-en.

URRIAK 27, EGUBAKOITZA

- **09:30 HARRERA** Kulturateko areto nagusian.
- **10:00 MAHAI INGURUA** *Amestu, pentsatu, sortu. Balore feministak oinarri beste 20!*. Irantzu Jauregi Artola eta Ixone Fernandez de Labastida Medina. Kulturateko areto nagusian.
- **12:00 KAFEA** Kulturateko klaustroan.
- **12:30-14:30 TAILERRAK**
- *Feminismo deskoloniala: praktika politiko bat aktibismo feministarako*. Luciana Alfaro Lavado. Gaztelaniaz. Kulturateko Jokin Zaitegi gelan.
- *LGTBI+ pertsonen bizi baldintzak hobetzeko neurriak. Posible al da hori udalgintzatik?*. Laura Muelas de Ayala, Iñigo Etxezarreta Toca. Euskaraz. Kulturateko Loramendi gelan.
- **15:00 LUNTXA** Kulturateko klaustroan.
- **18:00 TAILERRA** *Greba feministaruntz!* bideo emanaldia; txapak, eta lepoko zapiak egiteko tailerra Herriko asanbladaren eskutik. Seber Altubeko karpan.
- **19:30 EKITALDI FEMINISTA** Seber Altubeko karpan.
- **20:00 TOPA FEMINISTA** *Nahinorahahi!* omenaldia. Karpan.

URRIAK 28, ZAPATUA

- **09:30 HARRERA** Kulturateko areto nagusian.
- **10:00 MAHAI-INGURUA:** *Justizia Feminista ehuntzen: erreparazioa, komunitatea, herrikidetzeta*. Laura Macaya Andres, Aurora Iturriotz Lopez eta Justizia Feminista Mintegiko kide bat. Kulturateko areto nagusian.
- **12:00 KAFEA** Kulturateko klaustroan.
- **12:30-14:30 TAILERRAK**
- *Hurtzaroaren kontrako sexu indarkeriaren sekretua hausten*. Maitane Urizar Elorza. Euskaraz. Jokin Zaitegi gelan.
- *Indarkeria matxistaren aurkako protokoloak: argi-ilunak*. Idoia Arraiza Zabalegi eta Aiora Epelde Agirre. Euskaraz. Loramendin.
- *Kalitatezko zaintza jaso eta eskaintzeko eskubidea*. Tania Cañas Siriany. Gaztelaniaz. Kulturateko areto nagusian.
- **15:00 BAZKARI FEMINISTA** Seber Altube plazako karpan.
- **17:00 SOLASALDIA** *Ba al dago lekuri politikagintzan, feminismotik eragiteko?*. Onintza Enbeita Maguregi eta Ainhoa Etxaide Amorrortu. Kulturateko klaustroan.
- **18:30 KLOWNKLUSIOAK** Beatriz Egizabal Ollokiegiren bakarriketa saioa. Kulturateko klaustroan.
- **22:00 NAHINORAHAI KONTZERTUA** Belen Nevado Mendez *Masa madre* bakarriketa, Alarde Morea eta DJ LatxirOngak. Arrasateko gaztetxean.



Urriaren 11n egin zuten jardunaldiak iragartzeko prentsa agerraldia. T.M.

emakumerengan. Hau da, pape-rean jasotzen ditugun gauza-egiten dira haien bizitzetan, eta hori gure lorpena da".

Barreñak gaineratu du emakume askok aitortzen dietela Emakume Txokoak bizitza aldatu diela. "Harrigarria da nolako sinergiak eta konplizitateak sortzen diren hemen. Askok esan izan digute Emakume Txokoan aitortu dituzten gauzak ez lituzketela beste inon aitortuko. Urte batzuk atzera eginda, ezagutu izan ditugu emakumeak hona etortzeko gizonari baime-na eskatzen ziotenak edota ezkutuan etortzen zirenak. Zorionez, gauzak aldatzen ari dira".

Lana ari da fruituak ematen

Hogeituroteko ibilbidean, "prozesu luze bat" garatzen joan direla dio Lizarralde, eragile eta herritarrekin elkarlanean. Gaineratu du emakumei politika publikoak hurbiltzea ahalbidetu duela Emakume Txokoak. "Hemen kontaktua oso zuzena da teknikarion, elkarteen, mugimendu feministaren eta herriko emakumeen artean. Espazio fisikoak berak eta gertutasun horrek eman

diote indarra Emakume Txokori, eta horrek bilakatu du erreferentziatzeko gune".

Era berean, azken urteetako lorpenik handiena, Barreñaren esanetan, zera izan da: "Emakumeonak izatetik guztionak izatera pasa dira gai asko. Lortu dugu zalantzan jartzea garai batean axiomak edo egi borobilak ziren horiek. Duela hogeiturote, inork gutxi jartzen zuen zalantzan maskulinitate hegemonikoa, eta, gaur egun, beste-lakoa da egoera. Biolentzia matxistari dagokionez, gauza oso gogorrek jasan behar izan ditugu epaileen partetik edota poli-ziaren partetik, baina erakutsi dugu biolentzia matxista estrukturala dela. Halaber, 2003an, jada aldarrikatzen genuen zaintza ez zela emakumeen kontua bakarrik, eta, gaur egun, greba feminista orokor baten atarian

JARDUNALDIETAKO TAILERRETAN PARTE HARTZEKO, IZENA EMAN BEHAR DA 'ARRASATE.EUS'-EN

gaude. Erabat onartuta dago zaintzaren ardura kolektiboa eta komunitarioa izan behar dela eta hori feminismoak lortu du. Izan ere, feminismoak norbanakoak eraldatzen ditu, baina baita jendarte osoa ere".

Gaur egun, hiru teknikari ari dira Berdintasun Sailean. "Erakutsi dugu arlo profesionalean ere aktibista izan gaitzkeela. Beste jendarte bat amesten dugulako egiten dugu lan eta gure konpromisoa da Arrasate feminista go bat bilakatzeko", dio Barreñak; Lizarralde zera gaineratu du: "Bidearen zati bat egin dugu, baina erronkaz beteriko bide luzea dugu aurretik, ahal-duntze kolektiborantz".

Erakusketa eta jardunaldiak

Emakume Txokoak 20 urte! erakusketa egongo da ikusgai Kulturateko klaustroan urriaren 23tik azaroaren 4ra. "Erakutsiko du zenbat gai landu ditugun urte hauetan, zenbat jende eta eragilerekin lan egin dugun, ze eremutan mugitu izan garen eta nondik eragin dugun". Halaber, jardunaldi feministak egingo dituzte, urtemuga borobiltzeko.



DEBAGOIENENKO PROFESIONAL LIBERALAK



ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
blasaga@icagi.net

RAFAEL ARANBURU
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK
ARRASATE
Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA
ARETXABALETA
Araba ibilbidea 20, behea
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ALBERDI ASESOREAK
BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ETXE ADMINISTRATIOAK

URIBESALGO ADMINISTRATIOAK
ARRASATE
Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
uribesalgo@uribesalgo.es

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 zenbakira.



Jabier Bengoa, Juan Luis Arkauz eta Jose Angel Barrutiabengoa, Arrasate Zientzia Elkartearen lokalean. E.A.B.

Doke jokoia emakumeei zabaltzea dute helburu

Ondarearen Europako Jardunaldien baitan, dokea emakumeei zabaltzeko egitasmoa aurkeztu dute Arrasate Zientzia Elkarteak eta SUDC elkarteak. Bide horretan, bihar, zapatua, egingo dute lehen urratsa, Zaldibar frontoiaren ondoko zelaian, 11:00etan

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Europako jardunaldi horien baitan, urtero egiten du ekintzaren bat Arrasate Zientzia Elkarteak, Arrasateko Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundia- ren laguntzarekin, eta aurtengoan dokean jarri dute fokua, "ondare bizi gisa iraua dezan", *Ondarea bizirik!* baita aurtengo jardunaldien lema. "Dokea bizirik dago Arrasaten baina, orain arte, gizonezkoek jokatu izan dute. SUDC elkarteari esker, urtero egiten dute txapelketa, Aste Santuan", azaldu du Jabier Bengoak, Arrasate Zientzia Elkartearen kideak.

Historikoki gizonek praktikatzen izan duten jokoia izanik, ondare hori emakumeei transmititu gura diete, eta bide horretako lehen urratsa zapatuan egin gura dute. Hala, nagusiki emakumeei zuzendutako doke partidak egingo dituzte, Zaldibar pilotalekuaren ondoko berdegunean, 11:00etan hasita. Hori dela eta, deialdi berezia egin diete

emakume arrasatearrei. "Hutsune bat dagoela ikusi dugu eta Arrasateko emakume guztiei dei egiten diegu zapatuan Zaldibarrera joan daitezela".

Askorentzat lehen aldian izango denez, hainbat moldaketa ere egingo dituzte araudian. Monteazpiko zelaian jokatzeko dute, hamar metro luze eta bi metro zabal dituzten eremuak eta, kasu honetan, bost luze eta bi zabal den eremuan jokatzeko dute. Halaber, *barru* eremua ere handiagoa izango da.

Izena emateko bi bide egongo dira, 943 23 20 21 telefonora deituta edo *kultura@arrasate.eus* helbidera idatzita. Edozelan ere, zapatuan bertan Zaldibarren ere eman ahalko da izena. Bengoak

BIHAR ZALDIBARREN DOKEA PROBATZEKO DEIALDI BEREZIA EGIN DIETE EMAKUME ARRASATEARREI

nabarmendu duenez, zapatuko deialdiak izaten duen erantzunaren arabera izango dira aurrera begirako pausoak ere. "Emakumeak dokean jokatzeko gogotsu ikusten baditugu, horri jarraipena emateko prest gaude". SUDC elkartearen presidentea Juan Luis Arkauzek gaineratu du emakumeen txapelketa bat ere egin daitekeela, biharko deialdiak erantzun ona badu.

Dokearen jatorriaz

Arrasate Zientzia Elkartearen kideek adierazi dute ez dagoela oso garbi dokeak noiz eta non duen jatorria. Jose Angel Barrutiabengoa AZEko kideak dioenez, baliteke XIX. mende bukaeran sortu izana. Arrasateri dagokionez, 1950eko hamarkadan berreskuratu zuen SUDC elkarteak eta orduan urtero egiten dute txapelketa, esan moduan, Aste Santuan. Arkauzek dio Aste Santuko txapelketan emakumeek ere parte hartu izan dutela, baina gutxiengoa direla.



DENON BIZITZAK ERDIGUNEAN

Greba eguna antolatzen hasita

Greba Feminista Orokorriari begirako bigarren asanblada mistoa egin dute asteon. "Aurrez genituen lantaldeetara batu dira gizonezkoak. Greba egunerako hilabete eskas geratzen den honetan, egun horretara arteko kronograma osatzen ibili gara, baita egunaren antolakuntza prestatzen ere", adierazi dute Arrasateko Denon Bizitzak Erdigunera taldeko kideek.

Elkarretaratzea gaur eta azoka bihar, Palestinaren alde

Palestinarekin elkartasuna adierazteko elkarretaratzea egingo dute gaur, 19:30ean, Herriko Plazan. Bestalde, bigarren eskuko azoka solidarioa egingo dute bihar Biterin, 10:00etatik 14:00etara, emakume musulmanak eskal gizaratean integrazioa helburu duen IMME elkarteak antolatuta, eta aurtengo Palestinarri keinu bat egiteko baliatuko dute. "Argi utzi gura dugu haiekin gaudela, eta palestinarren aldeko borroka aldarrikatuko dugu. Era berean, azokan batutako dirua Palestinara bideratuko dugu", dio Djamilia Zereiby, elkartearen kideak. Halaber, komunitate palestinarreko hainbat kide ere han izango dira.

"Tratu berdintasuna eta diskriminaziorik eza" lantzeko saioa

Eusko Jaurlaritzaren baitako Biltzen zerbitzuak, Arrasateko Udalaren laguntzarekin, *Tratu berdintasuna eta diskriminaziorik eza* izeneko ikastaroa egingo du urriaren 23an, Kulturatego Jokin Zaitegi gelan, 10:00etan, besteak beste, elkarretarako, ikastetxeetako edota ludoteketako profesionalei zuzenduta. Bi orduko saioa izango da.

Askotariko sagar bariatateak bihar Seber Altube plazan

Bihar egingo dute bertako produktuen azoka, 09:00etatik 14:00etara, Seber Altuben, eta sagarra izango da protagonista. Tokiko eta garaiko produktuez harago, *showcooking* saio bat egingo du Anne Otegi sukaldariak (sukaldaritzako erakustaldia). Sagarra osagai gisa hartuta, hiru errezeta erakutsiko dizkie arrasatearrei. Era berean, hileroko postuei beste bi ekoizle ere gehituko zaizkie: Errioxako ardoa eta Belaze baserriko produktuak (kontserbak, esnekiak eta abar). Bestalde, Harreman Dendako kideek ere postu bat jarriko dute, herriarrei bidezko merkataritzako txokolatea eskaintzeko.

1951n jaiotakoek bazkaria egingo dute urriaren 28an

12:30ean Etxaluzeko eraikinean elkartuko dira eta txikiteoaren ostean, 14:00etan autobusa hartuko dute San Andresen, Bergarako Tartufo jatetxean bazkaltzeko. Ondoren, musika ere izango dute. Parte hartzeko, 75 euroko ordainketa egin beharko da, izen-abizenak jarri, Laboral Kutxako kontu korrante honetan: ES45 3035 0001 51 0010160332.



RURAL KUTXA

Hemen, zure aurrezkiak *gorago* iristen dira.

1/6

Zenbaki horrek produktibaren arrisku-maila adierazten du; 1/6 adierazleak arrisku-maila txikiena adierazten du, eta 6/6k, arrisku handiena.

Kreditu Entitateetako Gordailuak Bermatzeko Funtsera abikita dago Rural Kutxa. Funtsek 100.000 euroraino bermatzen ditu diruzko gordailuak entitate eta titular bakoitzeko.

• • Inbentarioko printzipio osoa edo haren zati bat erreskatatzeko aurrezkiak itzultzek komisioak edo penaltziak ezar ditzake.



% 4,06ko
UTBa

Epea: **12 hilabete**
Interesen likidazioa
hiru hilean behin

Rural Kutxa *Debagoiena* Gordailua

Ospa ezazu geure urteurrena 12 hilabeteko iraupena duen epe finkoko Gordailuarekin, interes-tasa nominala % 4 izanik.

UTB: % 4,06

ITN % 4,00

RURAL KUTXA BERGARA
Paseo Irizar 5 · 943 76 93 93
oficina.0169@ruralkutxa.com

RURAL KUTXA OÑATI
Foruen Enparantza 9 · 943 71 88 67
oficina.0198@ruralkutxa.com

RURAL KUTXA ARRASATE
Plaza Biteri 2 · 943 79 53 43
oficina.0253@ruralkutxa.com

www.ruralkutxa.com



Proposamenak 2023/12/31ra arte balio du, eta Rural Kutxako aurrezki garbien maila Gordailu hau kontratatuta areagotzen duten pertsonentzat soilik. Gehieneko zenbatekoa: 50.000 euro.

Adibidea: 50.000 euroko gordailua, hasiera-data 2023/09/01 izanik: interes gordinei dagozkien 500 euro likidatuko ditu 2023/12/01ean, beste 500 euro 2024/03/01ean, beste 500 euro 2024/06/01ean eta beste 500 euro gehi printzipalaren 50.000 euroak 2024/09/01ean; beraz, guztira, 2.000 euro gordineko interesak ordainduko dira.

Aldez aurretik ezerezteagatik komisioa % 1 da.



Amaia antzokiko halleko lanak, asteon. ENEKO AZURMENDI

Dena ondo bidean, urri bukaerarako zabalik

Irailean, Amaia Udal Antzokiko halleko sabaiaren zati bat erori zen, eta ordutik aretoa itxita dago. Konponketa lanak aurrera doaz, eta Udal Gobernuaren asmoa da urriaren 27ko asteburuan zabaltzea berriz, "segurtasun neurri guztiak bermatzen badira"

Hasier Larrea ARRASATE

Antzokiko halleko konponketa-lanen baitan, sabaiko sei plakak desmuntatu dituzte jadanik, eta udal elektrikariak argiztapena konpontzen ibili dira egunotan. Horren ostean garbituko dute antzokia goitik behera.

Halaber, halleko eskudelak berrituko dituzte, sabaiko plakak horien gainera erori baitziren, eta eskudelen azpiko kristalak ere berriak jarriko dituzte. Azken horiek neurritan egin behar izaten dituzte, eta denbora luzeago beharko dute lan hori amaitzeko. Bitartean, edukiera murriztua izango du antzokia, eta 400 pertsonarendako lekua egongo da, behin-behinean. "Segurtasuna bermatzeko eta, beharra balego, ebakuazio egoki bat bermatzeko, edukiera murriztuarekin irekiko dugu antzokia, eskaileren eskumako aldetik bakarrik sartu ahal izango baita", azaldu du Kepa Urteagak, Auzoak, Obrak, Zerbitzuak eta Mantenua Saileko zinegotziak.

Edukiera murriztuarekin bada ere, antzokia irekitzeko moduan egongo dira, "ez bada aparteko ezustekorik", eta urriaren 27ko asteburuan izango dira lehen ekitaldiak: batetik, hilaren 28an, *Migratzaileak* dantza ikuskizuna, Aukeran dantza konpainiaren eskutik, 19:30ean; eta, bestetik, ohiko zinema emanaldiak, hilaren 29an, 30ean eta 31n.

Edonola ere, Urteagak garbi esan du, "segurtasun neurri guztiak bermatzen ez badira", ez dutela Amaia zabalduko.

Txostenaren zain

Era berean, kanpoko enpresa batek, aste honetan esleitu dutenak, "txosten garatuago" bat landuko du, antzokiaren egoera

**400 LAGUNENDAKO
EDUKIERA MUGATUAZ
IREKIKO LUKETE
ANTZOKIA LAN DENAK
BUKATU BITARTEAN**

orokorra nolakoa den aztertze-ko: itoginak, paretetako hezetasunak, koadro elektrikoaren egoera eta abar. "Aurrera begira egin beharreko esku-hartzeak zeintzuk izango diren zehaztuko du txostenak". Hala ere, txosten hori egiteko bi hilabete eta erdiko aurreikuspena dute eta, Gabonak bitartean, udal teknikariak baloratuko dute edukiera mugatuarekin jarraitu ala edukiera osora pasa.

Udalak antolatutako ekintzez aparte, beste hiru ekitaldi daude aurreikusita, berez edukiera osoa beharko luketenak: Gala lirikoak, Nazioarteko Akordeoi Lehiaketa eta bakarrikzeta saio bat. "Kanpoko eragileek antolatzen dituzte ekintza horiek, eta haiekin adostu beharko dugu nola egin, antzokian momentu horretan dagoen edukieraren arabera", azaldu du zinegotziak. Era berean, udazkenean egin ohi duten zarzuela 2024 hasieran egingo dute, "urtarril edo otsailen", aipatu du Urteagak.

"Ikus-entzunezko bertsoak dira gure ikuskizunaren oinarria"

IGOR ELORTZA BERTSOLARIA

Anonyme Popular proiektua eskainiko du gaur 20:00etan

H.L. ARRASATE

Udal Bibliotekak antolatuta, Kulturaten taularatuko du Igor Elortza durangarrak Rafa Ruedarekin batera landu duen proiektu musikala.

Zazpi Eskale, Gu ta Gutarrak, eta, orain, Anonyme Popular. Zer moduz doa proposamen berri hau?

Lehen emanaldiak urtariletik maiatzera arte eskaini genituen, eta udan etenaldi bat eginda, urriaren 7tik daroagu bigarren aldikada honekin. Gogotsu gaud; bigarren bira honetarako bi pieza berri prestatu ditugu, horietako bat Gu ta Gutarrak bertsioa. Tokian tokira eta egunegun egunera moldatzen ditugu emanaldiak, horrela bizi-bizi mantentzen ditugu.

Berezitasun gehiago ere badaude, ezta?

Musikatik badauka baina ez da kontzertua, antzerkitik badauka baina ez da antzezlan bat... Gure neurritan pentsatu eta ondutako ikuskizuna da; ikus-entzunezko bertsoak direla esaten dut nik. Kultur kezka eta jakin-mina duen saltsero batentzat aproposa da. Bereziki bertsozalea ez den jende dezentez gozatu du, baita oso musikazaleak ez diren bertsozaleak ere.

Nitik abesten dituzu gai sozialak. Zergatik?

Nitik kantatzea zintzoa delako. Baina beti bilatzen dut gainerakoei balioko dien eta artistikoki interesgarriak diren kontuak esan eta egitea. Hala, ikuskizunean ni hori plurala eta kon-



Oñatinko gaztelekuan, otsailen. GOIENA

partitua bihurtzen da. Hortik dator Anonyme Popular izenaren jokoa. *Inor Elortza Aranoa* esaten dut kantu batean, ni, zu eta beste batzuk daudelako tartean. Adiskidetasuna, eguneroko bizimoduan barrutik garenaren eta kanpotik antzeztan dugunaren arteko distantzia, gaur egun gizon izatea, euskal gatazka, pandemia garaia... hainbat gai lantzen ditut horrela.

Oholtzan ere ez zaude bakarrik.

Hitzei musika garaikidea jarri die Rafa Ruedak, eta hura aldamenen izaten dut, baita Alvaro Olaetxea musikaria ere. Bestetik, Jose Lastra soinu teknikaria eta Gaizka Izagirre argi eta proiektio teknikaria daude. Eszenaratzean, gainera, Oier Zuñiga aktorearen laguntza jaso dugu. Eta ikusiko diren irudiak Kulturaz kooperatibako DAPA sortzaileenak dira.

Grade 2 punk-oi! talde ingelesa, urriko Kooltur ixteko

Wight irlako hirukote gazteak osatzen du Grade 2 taldea, eta 2013tik daude martxan. The Stranglers, The Jam, Booze and Glory eta Lion's Law moduko banden kantuak interpretatzen hasi, ibilbide propioa urratu eta disko ugari kaleratu dituzte dagoeneko. Kooltur Ekintzak antolatuta, gaztetxean joko dute, hilaren 26an, 22:00etan.

Hedoi Etxartek 'Sortaldekoak' olerki liburuaz jardungo du

Datorren eguaztenean, hilak 25, izango da *Arotz letrak* literatur zikloaren bigarren hitzordua, Irati Topagunean, 19:00etan. Gonbidatua Hedoi Etxarte idazlea izango da, eta kaleratu duen hirugarren olerki liburuaz aurkeztuko du: *Sortaldekoak*. Poema batzuk errezitatzeko tartea ere hartuko du Eneko Barberenak gidatuko duen saioan.

Osasun zerbitzuaren gainekeo kexak helarazten

EH Bilduren ekimenez Eusko Legebiltzarreko Osasun Batzordean izan da Aramaioko alkatea. Osasun zerbitzuari buruz dituzten kezkak eta kexak azaldu zituen. Legebiltzarkideen erantzuna jaso zuen, tartean, Rebeka Uberarena eta Elena Leterena

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO
Aramaioko alkate Iban Herrarte Arana Legebiltzarreko Osasun Batzordean izan zen urriaren 11n, herriko osasun zerbitzuan dauden gabeziak azaltzen, EH Bilduren ekimenez.

Lehenengo, Aramaioko testuingurua azaldu zien batzordeko kideei: Aramaiok dituen 1.403 biztanleetatik %25ek 65 urte baino gehiago dituela azaldu zuen, eta, horrez gainera, 43 lagunek menpekotasunen bat dutela nabarmendu zuen Osasun Batzordeko kideen aurrean.

Herritarren sentsazioak

Batzarkideei azaldu zien 2023ko abuztu osoa medikurik gabe egon dela Aramaio, eta erizaina ordutegi murriztuarekin aritu dela, baina egoera ez dela abuztura mugatzen: "Ez da udako arazoa. Ez daukat kuantifikatuta, baina sarri esaten dudanean motz geratzen naiz. Jendeak duen sentsazioa da. Medikua-rengana joan behar naiz; ea zer pasatzen den, ea nora joan behariko dudana, ea noizko emango didaten hitzordua...".

Gaineratu zuen aramaioarrak "kezkak" daudela egoerarekin, eta "anbulatorioa itxiko ote den beldurra" ere badagoela herrian: "Herrian dagoen sentsazioa da



Iban Herrarte, Legebiltzarrean. EUSKO LEGEBILTZARRA

TESTUINGURUA AZALDU ZUEN: HERRITARREN %25 65 URTETIK GORAKOAK DIRELA AZALDUZ

lehenago edo beranduago ambulatorioa itxi egingo dutela; eta, Udal Gobernu moduan, badugu beldur hori. Inbertsioak egin behar ditugunean sarritan pentsatu izan dugu, ea ondo ari garen inbertsioak egiten".

Osasun Batzordeko kideen erantzunen artean, EH Bilduko legebiltzarkide Rebeka Uberak esan zuen pertsonal politika okerraren ondorioa dela aipatutako egoera; EAJko legebiltzarkide Elena Letek, bestalde, nabarmendu zuen Aramaioko herritarrek bermatuta dutela lehen arretako zerbitzua Arrasaten. Gaineratu zuen mediku faltarena arazo globala dela, eta Jaurlaritza sostengatzen duten taldeen helburua dela lehenengo arreta zerbitzua Aramaion bertan egotea.



SONIA ETXENAGUSIA
HERRITARRA

"Aurrez aurreko arreta gero eta gutxiago dago; pediatria ere kendu zuten. Beti mediku bera egoteak lagundu egiten du, ezagutzen gaituelako".



JANET GRIMALDO
HERRITARRA

"Zaila da guretako, eta batez ere pertsona nagusiendako, Arrasatera joan behar izatea medikuarengana, edo hitzorduak telefonoz izatea".



CESAR AZKARATE
HERRITARRA

"Guri ere gertatu izan zaigu; medikurik ez dagoela abisatu eta hitzordua atzeratu edo Arrasatera joan beharra. Okerrera egin du zerbitzuak".

Berriztu berri duten frontoia inauguratuko dute etzi, Barajuenen

Barajuengo auzotarrek auzolanean garbitu eta margotu dute frontoia. Irailaren 30ean garbitu zuten, eta urriaren 7an margotu. Bada, domekan, inaugurazioa egingo dute. 12:00etan hasiko dituzte ekitaldiak: pilota partiduak, bertsolariak eta dantzariak izango dituzte. Gainera, auzoko taberna zabalik egongo da guztientzat.



Auzolanean. GORKA ASTONDOA

Juanjo Alvarezek hitzaldia egingo du erretiratuen lokalean

Alaiak erretiratuen elkarteak antolatuta Juanjo Alvarezek hitzaldia egingo du urriaren 26an, 18:00etan. *Gure euskal zuzenbidearen berezitasuna* izango da gaia. Alvarez EHuko Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko katedraduna, Bergarako UNEDeko eta MATIA fundazioko kidea, eta Laboral Kutxako Kontseilu Errektoreko kontseilaria da.

Erreka garbitzeko ekimenarekin bat egin dute Aramaion

Aramaioko erreka zaindu zikloa egiten dabilta asteon. Izan ere, bihar, bailara mailako erreka garbiketa eguna egingo da. Aramaion, 09:30ean egin dute hitzordua. Izena egunean bertan eman daiteke –baita aurrez ere, *entradium.com* atarian–. Erreka garbitu ondoren mokadutxoak izango dute erretiratuen elkartean.

+55 Elkartegiak programako bigarren saioa, eguaztenean

Aldundiak antolatutako +55 Elkartegiak ekimenaren barruan *Garuneko gimnasiak II* egingo dute urriaren 25ean, kultura etxean. Urriaren 4an egindako saioaren jarraipena izango da, eta garunak behar bezala funtzionatzeko egin beharreko ariketa fisiko eta mentalak azalduko ditu Adindu gerontologia elkarteak Elena Iraolagoitiak.

'Haurren aurrean helduok heldu' ekimena, etzi

Helduen arteko hizkuntza ohi-turetan eragitea eta haurren aurrean duten eraginaz sentsibilizatzea dira ekimenaren helburuak. Gorbeialdeko kuadrillak antolatuta, Aramaion domekan egingo dituzte ekintzak: 10:30ean Gurasolagun irteera egingo dute –parkean elkartuko dira–; 17:00etan, kultura etxean, Alain Zulaikaren magia ikuskizuna.

Itur-Zurik antolatuta, elikadura eta menopausia tailerra

Itur-Zuri emakumeen elkarteak elikadura eta menopausia landuko dituen tailerra antolatu du. Bi saio egingo dituzte: urriaren 25ean, saio teorikoa; praktikoa azaroaren 8an izango da. Gaztelaraz izango da, 17:30etik 19:30era bitartean. Bazkideek 5 euro ordaindu behar dute, eta gainontzekoek, 10 euro. Izen-emaitea 686 97 54 63 telefonon.

Pilota txapelketako partiduak gaur eta etzi jokatuko dituzte

IX. San Martin Pilota Txapelketa martxa onean doa. Aste bukaeratan jokatzen dituzte partiduak, bai bariku eta baita domeketan ere. Gaur, 18:15ean hasita, Kadete eta Infantil mailako lau partidu jokatuko dituzte; eta, domekan, 10:00etan hasita, zortzi partidu jokatuko dituzte. Aramaioarrak domekan jokatuko dute.

Lasterka egiteko harra duenarendako taldea

Emakumeen korrika taldearen hirugarren denboraldia abian da eta taldea sendotuz doa; astean birritan egiten dituzte entrenamendu saioak Urkulun, bidegorrian, zein Apotzaga aldean, eta datorren urterako erronka batzuk zehazten dabilta

Mirari Altube ARETXABALETA

Hiru taldekide izatetik ia hamar izatera pasatu da Ibarra kiroldegia 2021ean abian jarritako emakumeen korrika taldea. Oihane Sarasketa Iranzo (Eibar, 1991) entrenatzailearekin dihardute lanean hasiera-hasieratik, eta astean birritan elkartzen dira; aurten, astelehenetan eta asteazkenetan, 19:00etatik 19:45 inguru arte. Argibide gehiago gura izanez gero, kiroldegira jo behar da: 943 03 98 42. Bertako abonatuentzat debaldeko zerbitzua da.

Entrenamendu saio ezberdinak

Lasterka egin gura duten emakumeak batzen ditu taldeak, eta 25 eta 50 urte artekoek osatzen dute hori aurten. Talde gisa ez dute helbururik zehaztuta, norberaren gogo eta erronkak lortzen laguntzea bakarrik. Gehienek urte eta erdi inguru daroate Sarasketarekin entrenatzen, eta bilakaera bat igarri du hark: "Taldera etorri zirenean hainbaten helburua korrikan egitea zen bakarrik, eta gaur egun, urtebete pasa daroatenean, beste erronka batzuk jarri dizkiote euren buruari; adibidez, 8 eta 10 kilometro arteko lasterketak egitea". Dena den, edonoren erritmora moldatzen direla argi utzi gura izan du: "Hasiberrietara zein helburu zehatzekin datozenetara. Halako kasuetan hari pautu bereziak ematen dizkiot hori lortzeko". Horregatik hain zuzen, talde txikietan banatuta ere egiten dute lan egun batzuetan, erritmo ezberdinetara egokituta.

Bidegorria dute korrika egiteko ibilbidea sarritan, baina aurten beste bide batzuetara ere jo dute, aldatzen joatea delako asmoa. Horregatik, Urkulura igo izan dira hainbatetan, Eskoriatzara bidean dauden tiro-linen parke inguruan lasterketa teknikak ikasi dituzte, eta



Korrika taldeko hainbat kide kiroldegiaren aurrealdean, eguaztenean. MIRARI ALTUBE

Apotzagarako bidean aldapak landu.

Lasterketatarako gertu

Epe motzera begirako talde-erronkarik ez dute, baina ideia asko agertu direla adierazi du Saras-

ketak: "Lilatoian eta Ojala Zelako krosetan hainbat taldekide izan ginen iaz, eta horietan egon gurako genuke. Horrez gain, batzuk mendian hasteko ere animatuta daude, eta Gabez Ta-karraran lasterketa aipatu da".

"Taldea irekia da, edonoren mailara egokitzeko"

OIHANE SARASKETA
ENTRENATZAILEA

Lasterketan eskarmentu handia du –Ojala Zelai krosa irabazi du aurten– eta hiru urte daroatza Ibarra kiroldegiko korrika taldea gidatzen.

Emakumeari oraindik kostatzen zaio bidegorria irteera?

Bai, eta talde hau horren adierazle da. Beldurratik edo lotsagatik korrikan egitea kostatzen zitzaizkien animatu dira, taldeak ematen duen babesari esker.



M.A.

Eta oztopo horiek gaintu dituzte?

Txapelketatan parte hartzeko beldurra ere badago, eta taldean ikasten da denok gaila gai helmugara iristeko edozein izanda ere denbora, helburua ondo pasatzea delako.

Hortaz, edozeinendako duzue lekua?

Bai, noski. Taldea irekia da, eta edonoren mailara moldatzen gara.

2024an zerga eta tasa gehienak %2,6 igotzea onartu dute

Urak eta zaborrak igoera handiagoa izango dute, %5ekoa, eta kiroldegiko abonuek, %7,6koa

M.A. ARETXABALETA

Udal tasak eta zergak "%2,6 eguneratzea" izan zen Udal Gobernu Taldearen proposamena, eta aho batez onartu zuen udalbatzak. Zaborrak eta urak, ostera, %5eko igoera izango dute. Hiri-hondakinak biltzeko sistema ez dadin izan defizitarioa igoko dela kopuru hori azaldu zuen Gari Iturbe alkateak; urarekin beste horrenbeste gertatzen da: "Eguneroko kudeaketaz gain sortzen diren inbertsio beharrak estali behar dira". Inbertsioen artean dago kontagailuen digitalizazioa.

Kiroldegiko tasen kasuan igoera handiagoa izango da. Horren arrazoiak da Euskadiko Auzitegi Nagusiaren sententzia batek ebatzi izana ez dela legezkoa herrian erroldatutako eta ez erroldatutakoen arteko abonuek ezberdinak izatea. "Prezioak berdintzera derrigortuta gaude,

eta diru sarrera kopurua mantentzeko prezioen orekatzera jo dugu". %5eko igoera onartu zuten horretarako, eta horri gehituko diote KPIa, hau da, %2,6.

Hainbat zerbitzutako tasetan diru sarreraren arabera hoberiak daude jasota, eta Iturbek adierazi zuen kanpaina berezi bat abiatuko dela horien berri zabaltzeko.

EAJren aldeko botoa

Proposatutako ordenantza fiskalen alde bozkatu zuen EAJk. "Uste dugu diru sarrerak bermatu beharra daudela gaur egungo zerbitzuei eutsi eta proiektu berriei aurre egiteko", zioen Mikel Uribetxebarria bozeramaileak, eta zera gaineratu zuen: "Datozen aurrekontuetan jarraipen zorrotza egingo dugu diru sarrera horiek eraginkortasunez kudeatuak izan daitezen".

Kepa Errastiren bakarrizketa ikusteko bi aukera egongo dira

Kepa Errasti gidoigile eta aktore aretxabaletarra protagonista duen *Postdatarik gabeko gutunak* antzezlanaren 28an iritsiko da Arkupera (20:00). Sarrerak, baina, dagoeneko agortu dira, eta horregatik, bigarren emanaldi bat antolatu du Udalak hilaren 29rako, domeka (19:00). Sarrerak online eros daitezke *-Aretxabaleta.eus-*, 5 eurotan.

Erritmo biologikoen gaineko saioa egingo dute Kuku Mikun

Erritmo biologikoak eta produktibitatea izenarekin, emakumeen biologia, ziklo menstruala eta beharrek bat egiten duen ekoizteko eta sortzeko modu berri bat ezagutzeko saioa antolatu du Kuku Mikuk, gorputz dinamika batean oinarritua. Urriaren 24an izango da (17:30), debalde, eta Julia Zamorak gidatuko du.

Jou Díaz
Karakina

Durana 15
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Mobiliario
ARENZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Euskaraz jarduteko taldeak, lanean hasita

Euskara bultzatzea eta herriko aniztasuna erdigunean jartzea helburu duten egitasmoak abian ditu Loramendi elkarteak beste urte batez, eta edonorentzat daude zabalik Barriketan, Auzoko, Familia Laguna, Ulerlaguna eta Hikalaguna proiektuak

Mirari Altube ARETXABALETA

Barriketan eta Auzoko egitasmoen ikasturtea hasi du Loramendi elkarteak, Euskaltzaleen Topagunearekin eta Udalarekin elkarlanean. Eta horren gidaritza Jon Egidazuk (Leintz Gatzaga, 1998) izango du aurten. Irailan hartu zuen ardura, eta lanari buru-belarri ekiteko gogotsu agertu da: "Ikasten eta martxa hartzen nabil oraindik, baina oso gustura, ekimen benetan interesgarria da eta".

Bost proposamen aukeran

Euskara sustatzea eta Aretxabaletako aniztasuna erdigunean jartzea dute helburu Barriketan eta Auzokoren bueltan abian jarritako proiektuek. "Horregatik hain zuzen ere dira aretxabaletar guztiendako erakargarriak", dio, eta bost proposamen aurkeztu ditu, norberak aukera dezan egokiena.

Batetik dago Familia Laguna, Aretxabaletara iritsi berri diren familiei -9 urte bitarteko umekin- laguntzeko ikasketen bueltako zereginetan zein aisialdi kontuetan.

Auzoko taldeak euskaraz bizi direnak (auzotarrak) eta euskarara hurbildu gura dutenak (auzokideak) batzen ditu, euskara erdigunean jarrita, herriko

hizkuntza aniztasuna aitortu eta herritarren arteko harremanak sustatzeko. Asteaz ordubetez elkartuko dira, eta atzo izan zuten lehen hitzordua.

Barriketanez euskaraz bizi direnak (bidelagunak) eta aritu nahi dutenak (bidelariak) elkartzen ditu kafe baten bueltan, eta urriarekin batera ekin zioten lanari. Ulerlaguna taldean, os-tera, batzen dira euskaraz ulertu arren hitz egitera ausartzen ez direnak. Eta, azkenik, hitanoa ikasi eta hika jardun gura dutenen taldea dago.

Izena emateko bideak

Talde horietako edozeinetan parte hartzeko interesa izanez gero edo argibide gehiago eskatzeko, Loramendi elkartera jo behar da; hona hemen horretarako bideak: 943 77 09 70 eta 685 75 67 29 -Whatsapp-; eta auzoko@loramendielkartea.eus. Durana kalean duen egoitzara ere bertaratu daiteke. "Loramendiren atea zabalik daude edonorendako eta animatzen zaituztegu parte hartzera", gonbidatu ditu aretxabaletarrak egitasmoen koordinatzaileak.



Jon Egidazu koordinatzailea, Loramendi elkartearen egoitzan. MIRARI ALTUBE



NIRE USTEZ

MALENA GONZALEZ ALTUNA

Binomioetatik haratago

Gizona-emakumea, arra-emea, maskulinoa-femeninoa... Hori al da guztia? Beste hainbeste errealitate daude binomio horietatik haratago: pertsona androginoak, ez bitarrak, intersexualak... Eta ohartu naiz ez ditugula horiek batere ezagutzen. Sexologiatik *continuum* ezberdinak erabiltzen dira. Gorputz sexuatuaren kasuan, adibidez, alde batean emea kokatzen da eta bestean arra; eta zer dago erdian? Intersexualitatea. Pertsona intersexualak, medikuntza sisteman indarkeria ugari pairatzeaz gain, inbisibilizazioa, estigmatizazioa eta diskriminazioa pairatzen dituzte, haien gorputzak sarri ez direlako jendartearen estandarretara egokitzen.

Urriaren 26an, Intersexualitatearen Kontzientziazio Eguna da, eta badakit egun batean aldarrikapenak egiteak ez duela pertsona intersexualen egoera hobetuko, baina uste dut garrantzitsua dela jasan ahal dituzten problematika eta diskriminazio ezberdinak azaleratzea. Horretarako ezinbestekoa da errealitate horretatik urrun bizi garen pertsonok interesa eta gogoia izatea gure pribilegioak alde batera utziz kolektibo honen inguruan ikasteko.

Kontakizun Ilunen lehiaketa, Gaba Baltza girotzeko

Gaba Baltza girotzeko helburuarekin Kontakizun Ilunen lehiaketa antolatu du Loramendi elkarteak. 16 urtetik gorakoei bideratu diete, eta formatua librea da. Orri bakarrean -PDF formatuan- aurkeztu beharko dituzte kontakizunak, eta honako helbidera bidali: euskara@loramendielkartea.eus. Izen-abizenak eta adina zehaztu beharko dira hor. Lanak aurkezteko azken eguna urriaren 28a da.

Bestetik, azken urteotan legez, *escape room*-a izango da urriaren 25etik azaroaren 11ra bitartean. Umeendako tailerrak ere egongo dira urriaren 30ean, eta Gaba Baltzaren ospakizun nagusia hilaren 31n izango da.

OHARRAK

Bilera feminista

Greba feminista orokorra antolatzeko bilera egingo da gaur, udaletxe zaharrean (18:30).

Elkarretaratzea

Palestinar herriari elkartasuna adierazteko elkarretaratzea deitu dute gaurko, Herriko Plazan (20:00).

Bizikleta martxa

Mendi bizikleta martxa egingo du UDAK bihar, zapatua, plazatik abiatuta (09:00).

'Kuartela herrira!'

Hainbat kontzertu eskainiko dituzte bihar, zapatua, Portasolen: Orei, Berandu Baino Lehen eta Hiru Leño.



RPS: 83/19





INPLANTOLOGIAKO ESPEZIALISTAK 3D TEKNOLOGIA BERRIENAREKIN

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETA • TEL.: 943 79 93 55

Deskontu-bonuak erosteko azken txanpa

'Eskoriatza Bizirik' kontsumo bonuen bigarren kanpaina bukatzeaz da; urriaren 31 izango da horiek erosteko eta trukatzeko azkenengo eguna. Beraz, maiatzaren 29tik aurrera bonurik erosi ez dutenek bonua eskuratzeko aukera dute oraindik

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA**
Eskoriatzako kontsumo bonuen azken ekitaldian, herriko 23 komertzio hartu dute parte, eta, 2.500 bonu jendarean salgai jarrita, horiek erosteko eta trukatzeko epea amaitzeaz da (urriak 31); 584 bonu geratzen direla salgai adierazi dute Eskoriatzako Udaletik. "Bonuen azken kanpainako helburua ahalik eta herritar kopuru handienari iristea izan da. Horretarako, 2.500 bonu atera genituen; aurreko kanpainetan faseka egin izan dugu bonuen salmenta, eta hobeto funtzionatu du. Hala ere, jendeak erabili ditu eta oraindik aukera dute horiek erosi eta trukatzeko", adierazi du Nerea Aranak, Eskoriatzako Udaleko Garapeneko teknikariak.

32 establezimenduk bat eginda
Orain arte bezala, 20 euro ordaindu eta 30 euro gastatu ahal izango dira, eta honakoak dira bonuak erabiltzeko herriko establezimenduak: ile-apaindegiei dagokienez, Ixkur, Mkm, Kimu, Kiribil, Villar, Kuttuna edertasun zentroa eta Pauxa estetika; janari denda eta supermerkatuei dagokienez, Altuna harategia, Pagalday harategia, Aloña fruta-denda, Adam fruta-denda, Erosky City, Herriko denda, eta Donde Maria Coviran; bestelako denda eta zerbitzuei dagokienez, Dorleta liburudenda, Carmen mertzeria, Namaste belardenda, eta Erai osteopatia; eta amaitzeko, ostalaritza establezimenduetan: Akeita, Ilargi, Compostela, Goxo Txiki eta Maulanda.

Udaletxean salgai

Ibarraundi museoa izan dira saltzen herriko dendetan gastatzeko *Eskoriatza bizirik* kontsumo-bonuak. Bada, uztailean, udaletxera lekualdatu zuten salmenta-puntua, eta, astegunetan, 08:30etik 14:30era egongo da aukera bonuak erosteko.



Emakume bat bonuak erosten. IMANOL BELOKI

BONUAK TRUKATZEKO AZKEN EGUNA URRIAK 31 IZANDA, 584 BONU GERATZEN DIRA SALGAI, UDALETXEAN

Adinez nagusia izatea, Eskoriatzan erroldatuta egotea eta ordaintzeko kreditu-txartela erabiltzea dira horiek erosteko baldintzak.

Energia gastura bideratuta

Komertzioei laguntzeko bonuez gain, energia gastua finantzatzeko dirulaguntza ere ezarri du Eskoriatzako Udalak. "Laguntza horren helburua da baliabide ekonomiko urriak dituzten norbanakoen eta familien ohiko etxebizitzako energia-gastua finantzatzen laguntzea; hauek dira diruz lagundu daitezkeen gastuak: elektrizitatea, gasa edo beste erregai batzuen hornidura, eta baita komunitate-gastuak ere, horiek berokuntza barne-hartzen badute. Guztira 10.000 euroko laguntza lerroa zabaldu da. Laguntzaren zenbatekoa hilean 35 eurokoa izango da, familia-uni-

tate bakoitzeko, eta gehienez 210 euro emango zaizkio familia-unitate bakoitzari", adierazi dute Eskoriatzako Udaletik -informazio gehiago udal webgunean-.

Saltokientzat, kanpaina berria

Tokiko saltokiei laguntzeko asmoz, Eusko Jaurlaritzak laster jarriko du hurrengo kanpaina martxan, eta Eskoriatzara ere iritsiko da programa, *#EuskadiBonoDenda* izenpean. Parte hartu nahi duten establezimenduek alta eman beharko dute parte hartzeko.

Txita ibiltaria, informatzen

Emakumeek Mugimenduan aplikazioaren informazioa eskaintzen izan dira asteon, Aretxabaletan eta Eskoriatzan, txita ibiltariarekin. Maika eta Nerea aritu dira lan horretan, eta adierazi dute, besteak beste, emakumeen kirola sustatzea izan dela helburua. Txitaren etorrerarekin, emakumeek doako sarbidea izan zuten, gainera, atzo, Eskoriatzako kiroldegian.



IMANOL BELOKI

100 urte beteko ditu zapatuan Milagros Biteri eskoriatzarrak

100 urte beteko ditu zapatuan Milagros Biteri eskoriatzarrak. Marin elizateko Ugarte baserrian bizi da bera, eta mendeurrena etxekoekin ospatuko duela adierazi dio GOIENARI haren alabak. "Ez dugu ezer berezirik egingo, berak hala eskatuta. Eskoriatzako udal ordezkariak ere jarri dira harremanetan gurekin bera zorientzeko..."



Milagros Biteri etxeko sukaldean. GOIENA

OHARRAK

Errigora saskiak salgai

Inkerno tabernan jasotzeko aukera izango da saski bakoitza 50 eurotan. Saskien balioaren %25a Nafarroa hegoalde eta erdialdeko euskalgintzara bideratuko da.

Ezkurtxorekin Marinen

Udazkenari ongietorria emateko jaia Marin elizatean ospatuko da. Hala, bertara igotzeko, autobusak ibiliko dira gora eta behera; 09:30ean, Akeitako geltokian lehenengo bidaia.

Ardo dastaketa eguna ezarrita

Azaroaren 11n izango dela jakinarazi dute Atxorrotx Kultura Elkarteke kideek.

PATXI CASTRO

Era guztietako aukien konponketa

• Tapizatutako lanak

• Zumezko eta kanaberazko artikuluen salmenta

• Bessuki, mahai, saskiak e.a

943 78 71 65
639 01 69 69

FRUTERIA MARTIN FRUTERIA

FRUTAN ETA TXARKUTERIAN ESPEZIALISTA

San Juan kalea 12, behea Tel. 652 77 53 58



Eider Sanz DAPeko kidea, Dorleta Elkorobarrutia Gatzagako alkatea, eta Aitor Larrañaga Gatz Guneako arduraduna. I.BELOKI

Gatz kulturaren difusio eguna

Domeka honetan, urriaren 22an, Gatz Eguna ospatuko dute Leintz Gatzagan, zazpigarrenez. Edizio honetan ere, plazan izango den produktu ekologikoen azoka izango da erdigunea, eta, hortik abiatuz, orotariko ekintzak antolatu dituzte

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA Leintz Gatzagako ondare preziatuari balioa emateko, produktu ekologikoak aintzat hartzeko, basoko paisaia ederra ezagutarazteko, eta beste hainbat ekintza gauzatzeko Gatz Eguna antolatu dute beste urte batez Debagoieneko Mankomunitateak, Gatzagako Udalak eta Debagaraia Landa Garapenerako Elkartek elkarlanean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Mugikortasuna, Turismoa eta Lurralde Antolaketa Departamentuaren nahiz Eusko Jaurlaritzaren Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren babesarekin; aurtengoa, zazpigarren edizioa izango da.

Gatz Egunean ingurumenarekiko errespetua, kultura, tradizioa, gastronomia, hezkuntza, mugikortasun aktiboa, eta aurreko sei edizioetako esperien-

tziatik lortutako esperientzia batu gura dituzte. Hala adierazi zuen astelehenean Aitor Larrañagak, Leintz Gatzagako Gatz Museoko teknikariak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitzan. "Gatz kultura ezkatututa dugu Gatzagan, eta guri, gatzagarroi dagokigu hori azaleratzea, zabalkundea egitea. Gatz Eguna, beraz, lan horretako puntu bat da, nahiz eta gatz kultura hori gauzatzeko lan ildo ezberdinak ditugun. Hori horrela, dei egiten diegu nahi duten guztiei, domekan, Gatzagara etorri, eta egiten duguna gertutik ezagutzeko eta

BASOA EZAGUTZEKO MENDI IBILALDI GIDATUAK IZANGO DIRA, GATZ MUSEOKO BISITEZ GAIN

antolatu ditugun ekintzetan parte hartzeko".

Bertakoaren garrantzia

Leintz Gatzagako gatz kulturaren zabalkundea egiteko zenbait lan-ildo dituzte: "Batetik, museoko jarduera dugu, Gatz Gunean gatz kulturaren historia kontatzen dugu, eta gatz kulturaren didaktizazioa egiteko ardura daukagu. Gatz ekoizpena berreskuratu genuen 2013. urtean, eta gatz hori gaur egun merkatuan dago, jasangarritasun ikuspuntutik; hau da, Gatz Gunean daukagun iturburuko ura han bertan berotzen dugu; herriari eta bailarari bizia emateko. Ez dugu nahi ura hartu eta beste leku batean berotzea. Bestalde, gatzur hori berotzeko bertako egurra erabiltzen dugu, basoa zaintzera behartuz. Gatz ekoizterakoan dugun beste konpromiso bat

guztia eskuz egiten dugula da; prozesu guztia eskuz eta bertan egiten dugu, gatzari bere balorea emanez, eta gatz horri gainera ez zaio inongo gehigarririk jaritzen".

Azoka ekologikoa, erdigunea

Bi gune izango dira; plaza eta Gatz Museoa. Hala, 10:00etan hasiko da eguna, plazan, Biolur Gipuzkoako nekazaritza ekologikoaren aldeko elkarteak eta ENEEK Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluak antolatutako azokarekin. Bertan, orotariko produktu ekologikoak izango dira, eta plazatik aterako dira egitarauko bi mendi ibilaldi gidatuak ere. "Bailarako Errez kooperatibakoek beste basogintza eredu baten aldeko apustua egiten dute, eta horiek eskainitako mendi ibilaldi gidatua izango da. Gatz kulturak utzitako paisaia erakustea izango da beraien asmoa, bi orduko txangoan. Eñaut Ramila biologoak, berriz, bigarren mendi ibilaldi gidatua eskainiko du. Kasu honetan, Gatzagako mendebaldeko mendietan arituko da; pagadiak erakutsiko ditu, eta paisaia horretan ikusten duena azalduko die mendi ibilaldi gidatura batzen direnei". Bi ibilaldi hauekin batera, Jaboba Errekondok ere ez du hutsik egingo beste urte batez. Azalpenak ematen izango da, eta horrekin batera, lehenengo sektoreari eta landa eremuko bizitzari buruzko zalantzak galdetzeko aukera izango dute interesdunek.

Jolasak nagusi

Gaztetxoentzat, berriz, egurrezko jokoak izango dira. Joko jasangarriak izango dira, baso kulturari keinu egiteko asmoz. Sukaldaritza tailerra ere eskainiko du Anne Otegi sukaldari goierritarak. "Azokako produktuekin menu bat prestatuko dut, ekoizle bakoitzaren nortasuna zein den adieraziz. Gatz oso garrantzitsua da, eta nola erabili ikasi behar da. Gatzarekin nola potentziatu zapoak eta neurrian nola jarri ikasi behar dugu".

DAP-EKO KIDEEK ANTOLATUTA, 'GORPUZTU GATZA' IZENENKO TAILERRA IZANGO DA

Gainera, *Gorpuztu Gatz*a izeneko saioa izango da Debagoieneko Antzerki Plataformako kideen eskutik. "Gatza sentitu, usaindu, entzun eta dastatzeko bidaia sensorial batean murgilduko gara tailer honetan. Joko formatuan emango diren ariketa ezberdinen bitartez", adierazi du DAPeko Eider Sanzek.

Gatz bidea eta autobusa

Antolatzaileek adierazi dutenez, herrigunean auto-pilaketak saihesteko, aukera dago oinez edo bizikletaz Gatzagara igotzeko PR-100 bidetik. Hala, *Erabili PR-100 Gatz bidea Eskoriatzatik abiatuz eta errespetatu itxiturak, landa-eremua baita* lelopean oinez igotzeko eskaera egin dute. Horrez gain, autobus zerbitzu berezia ere izango dela azaldu dute, Aretxabaletatik irtenda.

Egitaraua

Urriaren 22a, domeka

- **10:00-14:00** Gatzaren eta produktu ekologikoen azoka.
- **10:00** Mendi ibilaldi gidatua 1. 'Baso gazia'.
- **10:00** Mendi ibilaldi gidatua 2. 'Gatzaga hegoaldeko pagadiak eta tontorrak'.
- **11:00** Baso bainua.
- **11:00-14:00** Zurezko plaza jokoak familientzat.
- **11:00** Sukaldaritza tailerra familientzat.
- **11:00** Gatz xaboiak egiteko tailerra familientzat, Gatz Museoan. Horrekin batera, bisita gidatuak izango dira.
- **12:00** Jakoba Errekondoren landare-kontsultategia.
- **Goizean zehar** 'Gorpuztu Gatz' irudikatu, sortu, konposatu eta antzezteko tailer irekia.

Hanburgesa postua izango da plazan, Gurel gurasoen elkarrearen eskutik, eta Toki-Eder jubilatua elkarrekoek, berriz, pintxoak eta edariak eskainiko dituzte Gatz Museoan.

Dekalogoia landuko dute, zaintzan jarrita arreta

Euskal Herriko emakume pentsiodunen mugimenduaren hirugarren biltzarra egingo dute gaur Seminarixoan (10:30) eta ondoren prentsaurrekoa emango dute batzarrean landuko dituzten hamar neurriren berri emateko; zaintza izango da lanketaren ardatza

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Euskal Herriko emakume pentsiodunen hirugarren batzarra egingo dute gaur, urriak 20, Seminarixoan (10:30). Batzarraren ostean, 13:30ak bueltan, prentsaurrekoa egingo dute, besteak beste, batzar horretan bertan landuko den manifestua aditze- ra emateko. Aurreratu dutenez, zaintza izango da ardatza: "Hirugarren batzar honetan, arreta jarriko dugu zainketetan. Pandemian argi geratu zen zaintza- ren eredia aldatu beharra dagoela, hainbat eta hainbat gabe- zia izan ziren-eta, batez ere egoitzetan, eta horrek ondorio mingarriak izan zituen egoilia- rrengan eta haien senideengan".

Pandemiaz harago, adierazi dute, "urte asko" daroatzate es- katzen zainketei emakumeek bakarrik ezin dietela utsi: "Gi- zonek ere parte hartu behar dute; bereziki, egiten ez dutenek. Zaintza ezin da emakumeen be- tebeharra izan; izan ere, zain- keten eztabaida oso presente

dago gizarte- an, adinekoren po- pulazioa handitzen ari da, eta ez gara konformatzen orain arte egin denarekin bakarrik. Ildo horretatik, Euskal Herriko Pen- tsiodunen Mugimenduko Ema- kumeok dekalogo bat onartuko dugu, hirugarren batzarrean eztabaidatuko dena eta gizarte- an zein erakundeetan eztabaida pizteko balioko duena.

Dekalogoaren zirriborroa prest Gaurko batzarrean eztabaida- tzekoa den dekalogo horretako hamar puntuetan zaintza da protagonista: "unibertsala" iza- tea; "kalitatezkoa"; zainduaren eskubideak eta autonomia ber- matuko dituen; etxeko zaintza profesionalizatu egin behar dela

AZAROAREN 30EAN EGINGO DEN GREBA FEMINISTAREKIN BAT EGIN DUTE EMAKUME PENTSIODUNEK

eskatuko dute, betiere zaintza integrala eta kudeaketa publi- kokoa izanda; egoitza eta egu- neko zentro publikoetan zain- tzaren kalitatea izan behar da lehentasuna; hurbilekoa eta komunitatearen partaidetza duten zaintza zerbitzuak susta- tuko beharko lirarteke; zaintza- ko langileen lan baldintzak duinak izan behar dira -eskatzen dute, era berean, etxeko langileak zainzaile profesional gisa aitortzea-; zaintza ezin da emakumeen betebeharra baka- rrik izan; gizonak zaintza-lanen erantzule ere izan behar dira, lanaren eta zaintza lanen arte- ko harremana berrikusi ostean; eta pentsiodun emakumeek gu- txieneko 1.080 euroko pentsioa behar dute, "gizarte patriarkal honetako" aitortu gabeko zain- tzaileak izan direlako.

Bestalde, azaroaren 30erako deituta dagoen greba feministarekin bat egin dute: "Zainketen sistema publikora eta kalitatez- kora begira, bat egingo dugu".



2022ko ekainaren 18an Bergaran egindako manifestazioa. GOIENA

Larramendiko Arnasak "kezka" bizi du auzia, "interesak ikusita"

Proiektua auzitegietan eta "geldi" egon arren, aurkako taldeak dio "interes berezia" dagoela aurrera egin dezan

J.B.L. BERGARA

Larramendiko plantaren bueltan "kezkatuta" jarraitzen du proiektuaren aurka dagoen Larramendiko Arnasa plataformak. "Kare-ekoizlea edo papergintzaren hondakinen balorizazioarako planta... Bi izenburu gozo dira erraustegia izendatzeko. Gaia auzitegietan dago. Alde batetik, EAEko Auzitegi Nagusian hainbat salaketa jarri zituzten Udalak, auzotar batzuek eta Ekologistak Martxan taldeak. Bestetik, Eusko Jaurlaritzak Valogreene enpresari Ingurumen Baimen Bateratua ematerakoan egindako hainbat irregulartasun ere salatu genituen Arabako probintzia-fiskaltzaren bidez".

Horrez gain, Jaurlaritzak enpresari emandako hiru milioi euroko dirulaguntzaren ikerketa ere eskatu dute: "Arabako fiskalak, kasua aztertu ondoren, delitu zantzuak ikusi zituen eta

epaileari jakinarazi zion; momentu honetan, epailearen esku dago ikerketarekin hastea". Larramendiko Arnasakoek diote- nez, ikerketak aurrera egiten badu Jaurlaritzako "hainbat pertsona" ikertuak izango dira.

Babesa eskertu dute

Proiektua "geldi" dagoen arren, plataformako kideak ez daude lasai: "Lege aldetik irregulartasun handiak izan arren nabar- mena da Jaurlaritzak duen inter- es berezia proiektu hau mar- txan jartzeko, eta kezkatuta gaude. Proiektuak dituen gora- beheren berri ematen jarraitzea da gure asmoa; Udalarekin eta Ekologistak Martxan taldearekin harreman estuan gaude". Bes- talde, herritarren babesa esker- tu dute: "Proiektuaren berri izan genuenetik auzotarron elkarla- na eta herritarrek erakutsitako indarra funtsezkoak izan dira".

EAJk dio ez duela onartuko kiroldegiko tasa %10 igotzea

Ordenantza fiskalei begira, EAJk proposatzen du tasak orokorrean %2,6 eta kiroldegiko abonua %5 igotzea. EH Bilduk proposatzen duen %4ko igoera gehiegizkoa dela uste dute jeltzaleek: "Gaur egungo egoeran, Udalak bere gain hartu behar du igoeraren zati bat; ez da bidezkoa osotasu- nean herritarren gain uztea. KPIaren igoera herritarren eta

Udalaren artean banatzea pro- posatzen dugu". Kiroldegiko tasa %10 igotzeko EH Bilduren era- bakia "onartezina" dela diote: "Kostuaren -argia, gasa, solda- tak...- igoera jarri dute argudio- tzat, eta, aurre egiteko, tasen igoera proposatzen du zuzenean. Tasak igotzeaz gain, gastuen kudeaketa zorrotza egin behar da; gastua kontrolatu beharra dago". EAJk "azken unera arte" jarraituko du lanean, betiere kiroldegiko tasaren %10eko igo- era onartuko ez dutela argi utzita.



Euskal Herriko Emakume Pentsiodunen hirugarren biltzarra deitzeko talde argazkia, astelehenean. GOIENA



Azaroaren 4ko Bilboko manifestaziora batzeko agerraldia egin zuten martitzenean San Martin plazan. J.B.L.

"Oldarraldiaren aurrean", herritar uholdea eragitera

Euskalgintzaren Kontseiluak azaroaren 4rako antolatu duen manifestaziorako dei egiteko agerraldia egin dute asteon Udalak, ikastetxeek eta euskalgintzaren bueltako herriko eragileek; euskararen aurkako epaien "oldarraldiari" Bilboko kaleak betetzea eskatu dute

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA *Oldarraldiaren aurrean euskararekin bat, euskaraz bat* leloarekin azaroaren 4rako Euskalgintzaren Kontseiluak deitu duen manifestaziora batzeko deia egin dute Bergaratik ere; martitzen goizean agerraldia egin zuten Udaleko, herriko euskalgintzako eragileen eta herriko ikastetxeetako ordezkariak. Martitzenean bertan hitzaldia antolatu zuten EHUKo irakasle Iñigo Urrutiarekin (ikus 9. orria).

"Nahikoa da" esateko garaia Euskal Herrian Euskaraz-eko kide Ibon Leibar *Txinbo*-ren arabera, heldu da "nahikoa da" esateko garaia azkenaldiko epaien

aurrean: "Ikusten ari gara estrategia bateratua dagoela sektore batzuen partetik euskararen aurkako helegiteak eta bestelako ekimenak abiatu eta diskurtso jakin bat sortzeko. Heldu da nahikoa dela esateko ordua".

Euskalgintzaren Kontseiluak antolatu du azaroaren 4an Bilboko Euskaldunatik (17:00) irtengo den manifestazioa, baina deialdi zabala dela azpimarratu du Leibarrek: "Hizkuntza aniztasunean, justizian eta berdintasun sozialean sinisten duen jende guztia batu nahi dugu Bilbon. Ahalik eta jende gehien izan behar dugu Bilboko kaleetan, euskararen alde egin, euskararen aurkako erasoak salatu

eta euskaraz bizi ahal izateko baliabideak sortzeko. Gure eskubide bat da Euskal Herrian euskaraz bizi ahal izatea".

Autobusa antolatu dute

Deialdia herriz herri eta sektorez sektore egingo dute eta, Bergarako kasuan, autobusa antolatu dute Ibargaraitik irtenda; 15:15ean irtengo dira eta itzulera 19:00ak alderako dago aurreikusita. Autobuserako izena eman daiteke Ganbara edo Pol-Pol tabernetan, eta Jardun euskara elkartearen (605 71 24 69 edo jardunkultura@topagunea.eus). Ikasle eta langabetuek bost euro ordaindu beharko dute; gainerakoek, berriz, hamar euro.

Kontseilua: "Ez dira epai isolatuak"

Martitzenean albiste izan zen EAEko Auzitegi Nagusiaren azken epaia, euskarari dagozkion Udal Legeko hainbat artikulua indarririk gabe uzten dituen; udaletan euskara lehenestea galaraziko luke oraindik irmoa ez den epaia – Jaurilaritzak helegitea jarriko du Auzitegi Gorenean–.

Euskalgintzaren Kontseiluaren arabera, azken epai hau

berrestera dator azkenaldian egon den "oldarraldia", auzitegietatik areagotu diren euskararen sustapena eta normalizazioa helburu duten hainbat neurriren aurkako sententziak: "Argi dago ez direla sententzia isolatuak, baizik eta botere judizialek hizkuntza politika aurrerakoiak mugatzeko eta herritarren hizkuntza eskubideak murrizteko joera

gorakorra dagoela; oldarraldi bat, alegia. Izan ere, sententzia guztiek elementu komun bat dute: gazteleraren nagusitasuna ezartzea herritarren hizkuntza eskubideen gainetik, eta, beraz, oinarritzko eskubideen kaltetan". Hain zuzen ere, Kontseiluak "erantzun sendoa" ematera deitu ditu herritarrek: "Guztionean indarra beharko dugu herritar guztionean eskubideen aldeko erantzun sendoa ematera. Denon artean egingo dugu!".



NIRE USTEZ

JOANES PLAZAOLA

Elkartasun 'hutsa'

Aste krudela izan da Gazan. Israel eta Palestina ageri dira mapan, baina hori baino askoz gehiago dago sakonean. Sarraski hauen arduradunak Mendebaldeko estatuak dira; armak bidaltzen dituzten bitartean propaganda sionista zabaltzen dute, Palestinarekiko elkartasun keinuak jazarriz. NATOren interesak daude eraso honen atzean; Ekialde Hurbilaren kontrolerantz pauso bat gehiago litzateke Israeleko estatu sionistaren ezarpen totala. Egoera honetan, Israel armaz hornitzen ari den PSOeri doako babesa eman dion Ezker Abertzalea elkarriketa politikoz ari zaigu, bi "bandoen" bombardaketak berdinuz, Palestinako herriari "elkartasuna" adieraziz. Espainiako gerra aurrekontuak babestu, eta ostean arma horien krudela sufritzen duenari elkartasuna erakustea baino hipokritagorik ez dago.

Gaurdanik dagokigu, hitzezko elkartasun antzuez harago, basakeria honen erantzule diren estatu inperialistei aurka egitea, mundu mailako alderdi komunista iraultzailearen eraikuntzan gure aletxoak jarritz. Gaurko amorrua eta inpotentzia kapitalismoari aurre egingo dion antolakuntza iraultzaile bihur dezagun.

Erorikoei aurre egiten ikasteko tailerrak, hilaren 24an eta 26an

Erorikoak prebenitzeko tailerrak antolatu ditu Udalak, Jaurilaritzako Osasun Sailarekin elkarlanean. 64 urtetik gorako pertsonen eta euren senide edota zaintzaileei daude zuzenduta saio horiek, erorikoak dira eta 64 urtetik gorako lesio eragile nagusiak Euskal Autonomia Erkidegoan. Tailerrak Agorrosin egingo dira, bi saio teori-

ko eta praktikotan: urriaren 24an eta 26an, 16:30etik 18:00etara. Bertan azalduko dira, besteak beste, zergatik gertatzen diren istripu horiek eta zer egin aurre hartzeko, zer garrantzizkoak diren ohitura osasungarriak eta ariketa fisikoa, edota nolako laguntza teknikoak dauden eskuragarri –telelaguntza, laguntza teknikoak, etxeko laguntza...–.

Doan eman daiteke izena, osasun-zentroan (943 03 54 00) edo Agorrosin (943 77 70 95), bertaratuta edo telefonoz deituta.

OHARRAK

Autismoa berabagai izango duen solasaldia

Autismoaz hitz egin dezagun izeneko mahai-ingurua antolatu dute gaian adituak diren hamar profesionalekin. Urriaren 24an izango da, Seminarixoan (18:00). Amaieran, jatekoa egongo da.

Palestina babesteko manifestazioa: autobusa

Bihar, urriak 21, *Gazako sarraskia gelditu* lelo izango duen manifestazioa egingo dute Donostian, Antiguako tuneletik hasita (17:30). Bergarako autobusa 15:30ean irtengo da Ibargaraitik; izena eman behar da Pol-Polen edo Arranon.

Fanfarre bat sortu nahi dute musika eskolatik

Talde berrian parte hartu nahi duenak musika eskolan galdetu beharko du: 943 76 57 80 edo idad@bergarakomusikaeskola.com.

Odol Emaileen Elkarte: hurrengo ateraldia

Hurrengo zita: urriaren 25ean, Arin zentroan, 16:30etik 20:30era.

1953an jaiotako bergararren ospakizuna

Urriaren 28an Tartufo jatetxean bazkalduko dute; 13:30ean elkartuko dira Santa Marinan. Izena emateko: 640 93 92 37 (Jose Zafra) edo 695 75 12 15 (Imanol Agirre).

"Familiari eta Tuterako klubari zor diet txapela"

ARRATE BERGARA PILOTARIA

Nekez ahaztuko du Arrate Bergarak domekan Bizkaia frontoian bizi izan zuena, Hiru Hiriburuak binakako txapelketa irabazi ostean: "Ikaragarria izan zen, sinestezina"

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Hiru Hiriburuak binakako txapelketa irabazi zuen domekan Arrate Bergarak, Amaia Aldai-ekin batera Leire Garai eta Irati Zabala 22-19 menderatu ostean. Bizkaia frontoiko harmailak beteta zeudela, faborito izatearen presioa ondo kudeatu arren ondo sufrituta jantzi zuen txapela Bergarak.

Nori eskaini nahi diozu txapela?

Familiari batez ere. Gurasoak eta anaia beti ditut ondoan, eta haiek gabe ez nintzateke hemen egongo. Horrez gain, nire lehen kluba aipatu nahiko nuke, Tuterako Eraso pilota taldea. Bertan eman nituen lehen urratsak, bertan harrapatu ninduen pilotak. Horiei zor diet txapela.

Nola joan ziren domekako ospakizunak? Egun berezia izan zen, ezta?

Oso ondo. Txapela irabazi ostean bazkaltzera joan nintzen familiarekin; denok geunden oso pozik. Arratsaldean, pilota goxoko eta kategoria misto gazte-

ko finalak ere jokatu ziren, eta ez nuenez nahi etxera joan frontoian geratu ginen arratsaldean ere. Ez nuen txapela irabazi nuenik sinisten, eta frontoian jarraitu nahi nuen [barreak].

Mezu eta dei asko jaso zenituen?

Egunean bertan jende mordoa hurbildu zitzaidan zoriontzeko, eta hainbat mezu ere jaso nituen telefono mugikorrean. Adibidez, Tuterako ikaskideek telebistaz ikusi ninduten eta badakit eurak ere izugarri poztu zirela; esango nuke klasean duten lagun hori telebistan irabazten ikustearen harrotasuna sentitzen dutela. Are gehiago esango dizut, harrotasun puntu bat edo sentimendu berezi bat badago emakumezko pilota aurrera doala-eta; Bizkaia frontoiko harmailak domekan nola zeuden ikustea besterik ez dago.

Nola bizi izan zenuen finala barrutik?

Ez dakit esaten zergatik, baina uste nuena baino lasaiago hasi nintzen; hori arraroa da nigan.

Onartu beharra daukat, baina, aurkariak markagailuan gerturatu ahala urduritzen joan nintzela. Amaia [Aldai] oso-oso ondo hasi zen, eta nik ere ondo eutsi nion. Min handia egin genien hasiera horretan atera genuen pilota biziarekin; esango nuke bereziki Iratiri [Zabala] min handia egin ziola Amaiak sakearekin. Gero, aurkariak beste pilota bat atera zutenean eta gure pilotak ere bizitasun edo distira apur bat galdu zuenean, partidua asko zaildu ziguten, sekulako maila erakutsi zuten. **Aurkarien erreakzioa etetea lortu zenuten, eta irabazi. Pozik, ezta?** Oso-oso pozik. 21-17 joan ginen irabazten eta bi akats egin ostean

"HARMAILETAKO ZARATA, UMEAK GU BESARKATZERA ETORRI ZIREN UNEA... SEKULAKOA IZAN ZEN"



Arrate Bergara, domekan Bizkaia frontoian jokatutako final handiko une batean. A.B.

21-19 jarri ziren. Hala ere, azken tantoa egitea lortu genuenean, emozio eztanda bat izan zen; goraino zeuden harmailetako zarata hori, umeak gu besarkatzera etorri ziren unea... Ikaragarria eta sinestezina izan zen. Hiru Hiriburuak txapelketa irabazi izana sekulakoa da niretzat. **Txapelketa berezia delako, edo?** Nire ustez, gaur egun binaka dagoen txapelketa garrantzitsua da; preziatuena bai, behintzat. Hiru hiri handienetan jokatu dugu, Atanon, Ogetan eta Bizkaia frontoian; horiek dira egungo frontoi handienak eta ikusgarrienak. Txapelketaren bigarren edizioa izan arren, finkatu da binakako txapelketa garrantzitsua moduan.

Zeintzuk izango dira aurrera begirako zure erronka nagusiak?

Orain, lau eta erdikoaren sasoa hasiko da. Atzelaria naiz eta helburuak ezberdinak dira modalitate horretan; hala ere, hasita nago lau eta erdikora begira entrenatzen eta oso gustura nabil. Ikusiko da kaiolan zela moldatzen naizen aurten, baina dena ematera irtengo naiz. Urtariletik aurrera binakako beste txapelketak hasiko dira, Emakume Master Cup eta beste batzuk. Binakakoan onenekin ibiltzea espero dut; gainera, maila altua duten neskekin bakarrik entrenatuko dut Zornotzan, eta badakit horrek asko lagunduko didala maila hobetzen.

Soraluce BKE eskubaloit taldeak azken sailkatua hartuko du bihar

Bost eskubaloit partidu jokatuko dira asteburuan zehar Labegaraletako kantxan; hiru zapatuan eta bi domekan

J.B.L. BERGARA

Asteburuan bost eskubaloit partidu jokatuko dira Labegaraletan. Zapatuan hiru partidu jokatuko dira; nesken gazte mailako Goizper BKE eta Hernaniren artekoa (13:00); mutilen kadete mailako BKE eta Taosa Pulporen artekoa (16:15); eta gizonezko senior mailako Soraluce BKEren eta Elgoibarko Pizzeria Salento taldearen artekoa (18:00) –sailkapeneko azken taldea da–. Domekan, bi neurketa jokatuko dira: nesken infantil mailako BKE eta Sukia Orio Eragin taldearen artekoa

(10:45) eta senior mailako gizonezkoen bigarren territorialeko Erreka BKE eta Urolaren artekoa (12:30). Bestalde, nesken kadete mailako Dikar BKEk eta mutilen kadete mailako Zerbimek BKE taldeek Andoainen eta Irunen jokatuko dute hurrenez hurren, zapatuan, 13:00etan.

Soraluce BKE zazpigarren da egun, joan den asteburuan Leizaranaren aurka 30na berdindu eta "puntu ona" lortuta: "Leizaran goiko postuetan ibiliko da, eta kanpoan zela aintzat hartuta emaitza ona da".



POL-POL

Europako Mendiez gozatzen

Pol-Pol Mendizale Taldeko beterranoen taldeko kideak Europako Mendietan egon ziren urriaren 12tik 15era. Lau irteera egin zituzten eta, besteak beste, Santoña, La Hermida, Mogrovejo eta Potes herriak eta bertako inguruak bisitatu zituzten. Antolatzaileen arabera,

eguraldia lagun, asko gozatu zuten lau egunetan. Hurrengo irteera azaroaren 19an egingo dute, Araiara; hori izango da beterranoen taldeko urteko azken txangoa, eta, ohitura denez, bazkaria egingo dute ibilaldiaren ostean.

Txurruka saxofoiarekin; Larrañaga batutarekin

Bergarako Musika Bandaren domekako emanaldia berezia izango da. Igor Larrañaga bandako kidea arituko da zuzendari lanetan, eta Enrike Txurruka musikarien artean izango da; gainera, inoiz jo gabeko hiru pieza interpretatuko dituzte

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA
Bergarako Musika Bandak irailko kontzertua eskainiko du domekan, Bergarako Udal Pilotalekuan, 12:30ean hasita. Kontzertua berezia izango da, ordea, Enrike Txurruka zuzendariak eta Igor Larrañaga bandako saxofoi-jole nahiz zuzendariordeak rola aldatuko baitituzte; Larrañagak hartuko du batuta, eta Txurruka musikarien artean egongo da saxofoia jotzen.

Enrike Txurrukak uste du "ona" dela zuzendariordeak zuzentzea kontzerturen bat "aktibo" mantendu dadin, baina baita musikarientzat aberatsa delako ere. Duela zenbait urtetatik datorren ideia da. "2019an Enrike zuzendari izendatu zutenean, berba egin genuen eta pentsatu genuen polita izango litzatekeela Euskal Herriko zuzendari bat gonbidatzea banda zuzentzera. Zer hobe zuzendariordeari aukera ematea baino. Gero, asmoa bada bi urtean behin zuzendari gonbidatu batek banda zuzentzea", dio Larrañagak.

Rol aldaketa

Bata bestearen lekuan jarriko da, eta Larrañagak azaldu du "oso desberdina" izango dela berarentzat: "Instrumentua jotzen zaudenean zure aulkian zaude,



Bergarako Musika Banda, sanmartinetan plazan jo ohi duten kontzertuan. GOIENA

eta babestuta sentitzen zara musikari moduan. Zuzendaria zarenean, zu zaude jendearen aurrean eta zeu zara gehien ikusten den figura. Zuzendari egoteak beti dauka beste ardura bat". Hala ere, adierazi du lasai dagoela eta kontzertua "oso ondo" aterako den konbikzioa du.

Txurrukak, berriz, saxofoia hartu eta Larrañagak gidatuta joko du saxofoia. Kontzertua Larrañagak zuzenduko zuela adostu zutenean iritzi zion "ona" litzatekeela berriro ere banda-jole moduan sentitzea, berak zu-

zuzendariarengandik jaso nahiko lituzkeen gauzak gogoratzeko; batez ere, entseuetako lanean: "Lagunen ondoan berriz egotea oso polita da, batez ere, oso ona izan delako freskatzea musikariak zer eskatzen duen zuzendariarengandik".

Inoiz jo gabeko hiru abesti

Errepertorioak "betiko banden oinarria" izatea gura zuen Larrañagak: "Bandak asko aldatu dira; bai formazioak, baita jotzen diren obrak ere. Horregatik, sartu ditut pasodoble bat, zar-

zuela... Horiiek izan dira betiko bandek gehien jo dituztenak. Bandaren oinarriak nondik etorri diren, egungo musika, eta musika azkarraren eta geldoaren arteko kontraste askoko kontzertua izango da". Horregatik, bost obra aukeratu ditu domekarako, eta horietatik hiru sekula ez ditu jo bandak.

Larrañagak berak 2013an konposatutako eta bandak 2014an estreinatutako *Bergarako zezenzaleak* pasodoblearekin hasiko da kontzertua; ondoren, Ralph Vaughan Williamsen *Folk song suite* eta Kees Vlak-en *Clarinet jubilee* interpretatuko dituzte lehen aldiz; laugarren abestia izango da Federico Morenoren *Luisa Fernanda*, eta, amaitzeko, Dmitri Xostakovitx errusiarren *Galop* joko dute -hori ere lehen aldiz-.

Azken urteetan Larrañagak saxofoia jo arren, klarinetearekin sartu zen bandan, eta klarinete-joleei "lan pixka bat" jarri nahi izan die, obra hori jotzeko "abilezia handia" eskatzen baitu. *Galop* aukeratzeak ere badu bere zergatia: "Musika errusiarra asko gustatzen zait, eta kontzertua bukatzeko *Galop* joko dugu. Oso azkarra da".

Miguel Gonzalez Bastidaren *Campeones* musikatuko dute "propina" modura. 1959an konposatu zuen, Bergarako futbol taldea historian lehen aldiz hirugarren mailara igo zenean. Honengatik aukeratu du Larrañagak: "Aurten, Bergarako jubelilak Liga Nazionalera igo dira historian lehen aldiz. Bandako bi kide daude taldean, eta pentsatu nuen egokia zela eurak lorpenegatik zoriontzeko".

"Lasai nago; kontzertua ondo aterako da"

IGOR LARRAÑAGA BANDA
KIDE ETA ZUZENDARIORDEA

Igor Larrañagak zuzenduko du domekan Bergarako Musika Bandaren kontzertua.

Noiz hasi zinen Bergarako Musika Bandan?

1989ko abenduan, Gabonetako kontzertuan jo nuen lehen aldiz. Nire instrumentua klarinetea da, baina zenbait arrazoiengatik, 2008an saxofoietara pasa nintzen.

Domekan, zuzendari...

Desberdina izango da oso. Zuzendari izateak beti dauka



IGOR LARRAÑAGA

beste ardura bat, baina lasai nago; kontzertua oso ondo aterako da.

Zeure obrarekin hasiko duzue kontzertua.

Bergarako zezenzale taldean lagunak eta kuadrillakoak dauzkate. Haiei eskainita, pasodoblea konposatu nuen, eta 2014an estreinatu genuen. Bederatzi urte eta gero, hori jotzen eta ni zuzentzen... Derrigor etorri beharko dute zezenzaleek [barrez].

Mundo Divinoren kontzertua, bihar, San Juan auzoko ermitan

Maria del Tango eta Carlos 'El Calimbero' bikotearekin batera gonbidatu berezi bat izango da emanaldian

I.A.A. BERGARA

Bergarako San Juan auzoko ermitak Mundo Divino bikotearen kontzertua hartuko du bihar arratsaldeko zortzietatik aurrera. Maria del Tango abeslariak eta Carlos *El Calimbero* gita-

rra-joleak osatzen dute flamenko talde hau, baina biharko emanaldian hiru musikari arituko dira; izan ere, aurreratu dutenez, Juan Carlos Aracil zeharkako txirula-jolearen kolaborazio berezia izango dute.

Konposatutako abestietan esperantza mezuak bidaltzen dituzte. Cadizen sortutako taldea da, eta bikotearen bi belaunaldiak elkartzeko dituzte haien musikak eta poesiak. Esan bezala, flamenkoa dute oinarri eta inspirazio iturri, baina rock andaluziarretik ere edaten dute. Singleak kaleratu ohi dituzte eta azkena duela zazpi hilabete estreinatu zuten: *Andaluzsi*. Disko bakarra dute eta 2021ean ikusi zuen argia; *En el mismo reloj* deitzen da.

Organo Erromantiko zikloaren azken kontzertua bihar

Organo Erromantikoaren Nazioarteko 24. Zikloa amaierara iristear da Bergaran. Bihar izango da azken kontzertua, Santa Marina parrokiaren arratsaldeko zortzietatik aurrera; eta, oraingo honetan, Alberto Saez organistaren eta Eduardo Diaz tronpeta-jolearen doinuak gozatu ahal izango dute bertaraten direnek.

Zendutako Bergarako orfeoi-kideen aldeko meza domekan

Bergarako Orfeoiaren mendeurrena ospatzeko zenbait ekintza ari dira antolatzen urte honetan zehar, eta egitarauaren barruan, ehun urte hauetan zendutako orfeoiko kideen aldeko meza egingo dute domekan, Santa Marina parrokiaren, eguerdiko hamabietan. Hildako kideak omenduko ditu Bergarako Orfeoiak elizkizunean abestuz.



Urriaren 9an, astelehena, eginiko ezohiko osoko bilkurako irudi bat. A.R.K.

Udal zergek %3ko igoera izango dute 2024an

Ekonomia Jardueren gaineko Zerga, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga eta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga %3 igoetako erabakia hartu dute; baita ura eta zaborra ere. Ostalariak, berriz, berriro hasi beharko dira terrazen tasa ordaintzen

Amaia Ramirez de Okariz
Kortabarría ANTZUOLA

Udal zergek %3ko igoera izango dute datorren urtean, EH Bilduko zazpi ordezkarien aldeko botoekin eta EAJko lauen abstentzioarekin, Josu Xabier Aranguren jeltzaleen bozeramaileak adierazi baitu "ez dutela oinarririk egindako proposamena egokia den ala ez" jakiteko, eta ez duela "merezi" proposamenaren inguruan "eztabaidan" hasia. Izan ere, uste baino lehena go iritsi da ordenantza fiskalen gaineko erabakia.

Hilaren 9an, astelehena, landu zuten gaia ezohiko osoko bilkura batean. Olatz Lezeta Antzuolako alkatearen arabera, egun batzuk lehenago, hilaren 6an, jaso baitzuten Gipuzkoako Foru Aldundiaren jakinarazpen bat adieraziz urriaren 13rako onartuta egon behar zela ordenantza fiskalen argitalpena; hala ezean, alkateak erantsi du gastua izango zukeela. "Agudo egin beharrekoa izan da; beraz,

barkamena, bat-batekoa izan baita bilkura".

KPI Kontsumo Prezio Indizearen azken hilabeteetako egoera gogoan izanda egin du proposamena udal gobernuak, batez bestekoa eginda, eta era horretan erabaki dute %3 igoetza Ekonomia Jardueren gaineko Zerga, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga eta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga 2024an. Baita ura eta zaborra ere.

Terrazak hizketagai

Terrazek ez dute tasarik ordaindu COVID-19ak sortutako krisitik, ostalariei ez kobratzeko erabakia hartu baitzen ordu hartan. Hala ere, berriro hasi

HAPO-AREN SAIO IREKIA EGINGO DA MARTITZENEAN, AUKERAK EZAGUTU ETA EZTABAIDATZEKO

beharko dira pagatzen; hala ere, koronabirusaren aurreko aldiarekin alderatuz gero, %25eko jaitsiera izango du tasak. Aurrerantzean, 2,25 euroko prezioa izango du hilean metro karratu bakoitzak terrazetan; eta, urte guztian mantenduz gero, 19,30 eurokoa izango da zenbatekoa.

Halaber, EAJko kideek galde-tu zuten ea baden terrazen gaineko kontrola egiteko asmorik, eta EH Bilduk begi onez ikusi du, adibidez, terrazen eremuak markatzea eta planoak ostalariei banatzea. Halere, Hirigintza batzordean dira gaia lantzekoak.

HAPOaren batzarra

Antzuolako HAPO Hiri Antolamendurako Plan Orokorra garatzen dabilta, eta antolamenduko aukera ezagutu eta eztabaidatzeko partaidetza saio irekia egingo da urriaren 24an, martitzena, 18:30etik 20:00etara bitartean, Torresoroan. Hala, Udalak parte hartzeko dei egin die herritarrei.

Abian da liburutegia, eskola eta etxea lotu nahi dituen ekimena

'Motxila txikien zirkuitua' du izena, eta ikasle gazteenak dira protagonista. Guztien parte hartzea sustatu nahi du

A.R.K. ANTZUOLA

Ikastetxearen, etxearen eta liburutegiaren arteko "lotura sistematizatu bat" sortzeko asmoz, *Motxila txikien zirkuitua* ekimena abiatu dute asteon, Antzuolan. Era horretan, "nola-baiteko zirkuitu bat" eratu nahi dute hiru guneen artean, eta horretarako haurrak izango dira protagonistetako batzuk.

Ekimenaren berri emateko helburuarekin, bisita gidatuak egin zituzten liburutegian astelehenean, hilaren 16an, Haur Hezkuntzako hiru urteko ikasleengandik hasi eta Lehen Hezkuntzako bigarren mailakoetara arte, Lur Korta ipuin kontalariaren gidaritzapean.

Ikasgela horietako bakoitzean motxila bat egongo da, eta aste-ero ikaskide batek izango du horren ardura. "Gurasoekin joaten da liburutegira, gustuko duen liburu bat aukeratzera;

normalean, Galtzagorri elkarteak gomendatutakoa. Pare bat egunetan etxean izaten du, eta, ondoren, haurrak ikasgelara eraman beharko du ikaskideekin konpartitzeko". Behin epea bukatzean, beste ikaskide batek ekingo dio zirkuituari.

Irakurle taldea

Euskarazko irakurle taldea ere martxan da, Alaine Agirre idazlearekin. Azaroaren 2an, eguna, izango da hurrengo hitzordua, 18:30ean, udal liburutegian, eta parte hartzaileek Aintzane Usandizagaren *Zomorrotu* lana irakurri beharko dute.

Zalantzaren bat izanez gero, ordea, liburutegian eskuratu daiteke informazio gehiago. Bestela, beste bi bide ere jarri dituzte interesa duten herritarren eskura: *liburutegia@antzuola.eus* helbidea edo 673 905 438 telefono zenbakia.



Antzuolako Herri Eskolako ikasle batzuk, astelehenean, liburutegian. UDAL LIBURUTEGIA

Euskara ikasleek laguntzak eskatzeko epea irekita dago

2022-2023 ikasturtean euskara ikasten aritu diren herritarrek dirulaguntzak eskatzeko aukera dute urriaren 31ra arte. Udaltxera jo beharko dute dirulaguntza eskatu ahal izateko. Eskaera orria bete beharko da, eta matrikularen ordainagiria ere erakutsi beharko da. Baita euskaltegian aritu izanaren ziurtagiria ere.

'Zuk jakitea nahi dut' hitzaldia izango da martitzenean

Olaia Arana Gipuzkoako Gizarte Esku-hartzeko Etika Batzordeko kideak eta gizarte langileak hitzaldia emango du martitzenean, urriaren 24an, Olaraneko bigarren solairuko aretoan, 17:30ean, *Zuk jakitea nahi dut* izenpean. Hain justu, norbere bizitzaren zaintza modu partekatuan planifikatzeko gidaren berri emango du.

Errealitateak ikusgai egiteko zinema soziala

Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdia antolatzen du KCD erakundeak, eta, orain, Antzuolara iritsiko dira lan batzuk, Anelkar taldeari esker. Modu horretan, asmoa da film laburren bitartez gai eta errealitate jakin batzuen ikusgarritasuna bermatzea

Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria ANTZUOLA

Zinemako ohiko pantailetan maiz ezkututzen diren errealitateen berri emateko eta gizartearen eragin nahi duen tresna eraldatzailetzat erabiltzeko asmoz, KCD Bilboko gobernuz kanpoko erakundeak Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdia abiatu zuen duela hamabost urte, *Film sozialak* izenpean. Hiritik at, ordea, herriz herri ere egiten dituzte emanaldiak, eta, orain, Antzuolara iritsiko da. Jaialdiko sei lan ikusteko aukera izango da gaur, egubakoitza, 18:30etik aurrera, Torresoroa aretoan.

Herritar batek eginiko proposamenari tiraka, Anelkar elkartasun taldeak antolatu du ekitaldia, Udalaren laguntzarekin. Jabi Etxaniz taldekideak azpimarratu duenez, asmoa da film laburren bitartez gai jakin batzuen ikusgarritasuna bermatzea, hala nola giza eskubideak, jasangarritasuna, kulturartekotasuna eta berdintasuna. "Lehen aldiz egingo dugu Antzuolan. Gustatuz gero, datorren urtean bi eguneko saioak egitera ere animatuko gara".

Hainbat dira jaialdian aurkeztu dituzten ikus-entzunezko lanak, baina herrietara ez di-



Broken Wings dokumentaleko irudi bat. BROKEN WINGS

tuzte guztiak eramaten; gobernuz kanpoko erakundeko kideak arduratzen dira tokian toki hautaketa bat egiteaz. Horretarako, besteak beste, kontuan hartzen dute egilea gizonezkoa, emakumezkoa ala kolektibo bat den, eta baita lantzen den gaia zein

JAIALDIA ANTOLATZEN DU KCD ELKARTEAK, BAINA LANKIDETZAN DIHARDU HAINBAT PROIEKTUTAN ERE

den ere. Hala, Antzuolan, sei lan hauek izango dira ikusgai: *Broken Wings*, *In the shadow of pigeon wings*, *Arnasa*, *Mothertruckers*, *Imelda no está sola* eta *Si me quereí, irse*.

Lankidetzaren proiektuak

Jaialdia antolatzeaz gainera, KCDk garapenerako hainbat lankidetzaren proiektutan dihardu lanean hainbat herrialdeetan, hala nola Senegalen, Kuban, Kolonbian, El Salvadorren, Mexikon, Guatemalan, Egipton eta Nikaraguan.

Sei lan aurkeztuko dituzte

Zinema Ikusezinaren hamabosgarren nazioarteko jaialdiko sei lan ikusteko aukera izango da gaurkoan, Torresoroan, 18:30etik aurrera.

'Broken Wings', Jorik Dozy eta Sil van der Woerd

Dokumental musikala da, Asia hego-ekialdeko isileko hegazti ehizaren berri lehendabizikoz azaltzen duena. Hegazti tropikalek basotik kaiolara egiten duten bidaia kontatzen du, nola ari diren azkar husten oihanak eta nola dauden desagertzeko zorian 1.500etik gora hegazti espezie. Apenas inork daki hondamen horren berri.

'Si me quereí, irse', Sofia Muñoz

Fikziozko film laburra da. Igandero bezala, paella bat ari da prestatzen Juana, familia inguruan duela. Baina senarrak erretiroa hartu duela jakiteak zapuztu egiten du ospakizuna.

'In the shadow of pigeon wings', Ahmed Múcahid Aydoğan

Libanoko errefuxiatu-eremuetan bizi diren palestinarren erretratua azaltzen duen dokumentala da.

'Arnasa', Raul Barreras

Fikziozko film laburra da. Muino batean eserita, bertso bat kantatuz azaldu du Inaxiok emaztearen heriotzak eragin dion atsekabea. Kantuak erakarritza edo, baserrira itzuli da Ekaitz, Inaxioren biloba, aitonari laguntzera, abereak zaintzera. Inguruan dutenaz ikuspegi desberdinak dituzten arren, berriro bat egin eta etorkizunaren erronkei elkarrekin aurre egitea erabaki dute.

'Mothertruckers', Paula Romero

Gutxi hitz egiten da emakume kamioilariak, eta hutsune hori betetzea du xede *Mothertruckers* dokumental laburra. Erresuma Batua garraio –eta erregai– krisi larria pairatzen ari zen Brexit ondorengo garaian dago girotua, eta gizonezkoak nagusi diren lanbidean emakume izateak dakartzan gorabeherak aztertzen ditu. Halaber, bi ikuspegi jartzen ditu aurrez aurre: errepidean libre ibiltzearen ideia erromantikoa eta bizibide gogor eta ohiz kanpokoak.

'Imelda no está sola', Paula Heredia

El Salvadorko sistema legalean harrapatu dagoen nerabe baten istorioa dugu; dokumentala. Larrialdi obstetrikoko bat izan du Imeldak, eta ospitaleratu egin dute. Abortatu izana egotzi diote, okerki, eta atxilotu. Imeldaren askatasunaren aldeko borroka kontatzen du filmak, berea eta inguruko emakumeena, denek baitakite aitaordeak bortxatuta geratu zela haurdun. Emakumeen eskubideak gero eta urriagoak diren lurraldeetan zer ari den gertatzen azaltzen du.

Haur Dantzari Eguna ospatuko dute domekan, egun osoan

Bailarako eta inguruko herrietako 127 dantzari hartuko dute parte. 10:00etan emango diote hasiera egunari

A.R.K. ANTZUOLA

Oinarin dantza taldeak antolatuta, Haur Dantzari Eguna ospatuko dute etzi, eta Antzuolako dantzariak gain, Soraluekoak, Aretxabaletakoak, Arrasatekoak –Lore Gazteak eta Txikitxu–,

Oñatikoak, Zumarragoak eta Legazpikoak gerturatuko dira; guztira, 127 dantzari.

Txistulariek emango diote hasiera egunari, alborada egingo baitute 10:00etan, baina dantza ez dira 11:00ak arte hasiko.

Kalejira egingo dute dantzari txikiak, eta 12:45ean hasiko da goizeko saioa, Herriko Plazan. Are gehiago, bazkaldu ostean ere euskal dantzen erakustaldiaz gozatzeko aukera izango da, 17:30ean. Bi dantza saioak, ordea, eskolako patioan izango dira eguraldi txarra eginez gero.

Hala, Oinarinek aurrez esker eman dizkie etzi boluntario lanean arituko diren herritarrei, eta baita haurrak etxeetan eta elkarteetan bazkaltzeko jasoko dituztenei ere.

MUJIKA
HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA



Ekimenarekin bat egiteko eguazten arratsaldean eskola atarian ateratako talde argazkia. GOIBEKO

Elgetan ere, haurren aurrean helduok heldu

Martxan da haurren hizkuntza erabileran helduek duten garrantziaz ohartarazteko Euskaltzaleen Topaguneak bigarren ezarritako ariketa. Ekimenari hasiera emateko argazkia atera dute Goibekoko, guraso elkarteak eta Herri Eskolako kideek

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Gaur hasi eta hilaren 29ra arte burutuko da *Haurren aurrean, helduok heldu* ekimena. Hainbat dira ekimenarekin edo ariketarekin bat egin duten Euskal Herriko herriak, eta tartean da Elgeta. Helburua bikoitza da: batetik, helduen arteko hizkuntza ohituretan eragitea eta, bestetik, helduek haurren hizkuntzaren ikaskuntzan eta sozializazio prozesuan duten eraginaz sentsibilizatzea.

Elgetarrak ekimenean parte hartzeri gonbidatu dituzte Goibeko Euskaltzaleen Topagunetik zein guraso elkartetik. Eguazteneko agerraldian azaldu zuten moduan, haurrek asko egiten dute euskaraz, eta orain helduen momentua da. Egun hauetan euskaraz egitea gonbidatu ziren argazkian parte hartu zuten gurasoak eta irakasleak. Belarriprestendako deia ere badago; izan ere, haiek ere lagun dezakete elebitan egiten diren elkarriketekin.

Ariketaren berri ematen duten plotter bana jarri dituzte eskola atarian, kultura etxeko balkoian eta Bolatokiko jolasgunean. Horrekin batera, eskuorriak banatu dituzte eskola atarian, eta Euskaltzaleen Topaguneak kaleratutako bideoa zein prestatutako informazioa partekatu dituzte gurasoen eta hezkuntza komunitatearen artean.

"Egin euskaraz!, agintzen die gurasoek haurrei, helduek euren artean erdaraz egiten duten bitartean. Haurrek euskaraz egin dezaten nahi badugu, zergatik ez dugu helduok hala egiten?", azaltzen dute euskara elkarten topagunetik. "Izan ere, hizkuntza transmititzearekin batera, hizkuntza bat —zein

UMEEK EUSKARAZ EGITEA NAHI BADUGU EREDU IZAN ETA HALA EGIN BEHARKO GENUKE HELDUOK ERE

beste—erabiltzeko ohitura edota arau sozialak ere transmititzen dizkiegu gurasoek umeei".

Elgetako Herri Eskolak ere bat egin du *Haurren aurrean, helduok heldu* ekimenarekin, eta kanpainaren berri zabaldute familien artean. Eskola orduetan, berriz, gaia landu dute neska-mutikoekin ikasgeletan.

Ekintzak Elgetan

Hamaika egunez luzatuko da ekimena, eta irauten duen bitartean eta ariketari ikusgarritasuna emateko ikusgai izango dira plotterak eskola atarian, kultura etxeko balkoian zein kiroldegiko jolasgunean.

Hamaika egunotan helduei euskaraz hitz egiteko eskatzen zaie, eta bereziki umeekin. Hizkuntza ohiturak aldatzea ez da erraza, baina halako ariketek laguntzen dutela frogatuta dago.

Urriaren 26rako, berriz, familia giroan poste-posteka baloi jokoan aritzeko deialdia egin dute. 16:30ean hasiko dira.

"Buelatzeko aitzakia polita izanda 'Gautegia' diskoa"

TXUMA MURUGARREN MUSIKARIA

19:30ean egingo du zuzeneko, gaur, Ozkarbin

L.Z.L. ELGETA

Agertokietara itzuli da Txuma Murugarren musikaria, eta Goibekok gonbidatuta izango da gaur Elgetan.

Zer nolako emanaldia izango da?

Hiruko formatuan goaz Rafa Aceves (pianoa), Natxo Beltran (bateria) eta ni. *Gautegia* disko berria aurkezteko kontzertua izango da; egiten dugun lehena, gainera. Ez ditugu diskoko kantu guztiak joko, gure beste kantu batzuk ere tartekatuta nahi ditugulako saioan.

Nick Caven *Nocturama* diskoaren euskarazko bertsiak jasotzen dituzte disko berriak.

Bai. Egia da beste instrumentazio bat erabili dugula, baina oinarrian hori da.

Zer da Nick Cave zuretzat?

Ez naiz oso mitomanoa, eta, Nick Cave gustatzen bazait ere, ez da nire musikaririk gurtuena, baina *Nocturama* asko gustatu zitzaidan. Bertsiak egiteko enkargu bat jaso genuen bere egunean, eta hortik orain diskoa.

Zortzigarren diskoa duzu, baina egia da 2016an kaleratu zenuela azkena. Jakin dugu beste disko bat ere etorriko dela hurrengo urtean. Itzulera moduko bat da hau?



Txuma Murugarren. GAZTELUPEKO HOTSAK

Garai gaiztoak bizi izan ditugu azken urteotan, asko jaitsi da rockarekiko interesa, bestelako panoramak ireki dira... Horrek denak bere pisua du, eta giro honetatik apur bat aparte ibili gara. Egia da *Gautegia* bueltatzeko aitzakia polita izan dela. Gero, abesti pila daude urteotan ateratzen joan direnak, eta bizkortu eta disko berri bat ateratzeko esfortzua egitea erabaki dugu. Gogoia dut ikusteko ea zer gertatzen den, eta noraino erabaten gaituen abentura berri honek.



ELGETAKO UDALA

Gibraltarko itsasertza, igerian

Osasunak laguntzen duen bitartean, ez dago mugarik Elgetan jaiotako Txaro Tomasena Alzuri urnietarrarendako. 77 urterekin igerian zeharkatu du Gibraltarko itsasertza, eta Elgetarekin mantentzen duen lotura estua dela erakutsiz, Elgetako Udalarari oparitu dio egindako erronkaren ziurtagiria. Alkateak jaso zuen urriko lehen aste bukaeran egindako ekitaldi batean.

"Gurasoek formakuntza jasotzea garrantzitsua da"

ENAITZ EZPELETA GALLASTEGI MU-KO IRAKASLEA ETA IKERLARIA

Interneteko arriskuez eta zibersegurtasunari buruz aritu zen eguaztenean elgetarra. Heziketa digitalaren bueltan herrian sortu den lantaldeak ekinean jarraituko du

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA Mondragon Goi Eskola Politeknikoko irakaslea eta Datuen Analisia eta Zibersegurtasuna ikerketa taldeko kidea da Ezpeleta. Hainbat ohartarazpen egin zituen eguaztenean liburutegian egindako hitzaldian.

Gaia potoloa izan arren, gurasoei formatzeko gomendatzen diezu.

Erabiltzen dakizkigun tresnekin eroso sentitzen gara, eta bada-kigu erakusten nola erabili. Labana bat, adibidez. Internetekin gauza bera gertatzen da. Informatu eta formatu egin behar gara seme-alabei ondo erakusteko zer egin daitekeen, zein unetan, noiz arte beharko duten gure laguntza...

Zenbateraino konturatzen gara zenbat dagoen jokoan?

Sekulako informazio pila dugu Interneten eta operazio asko egiten ditugu online-bankukoak, erosketak...-. Uste dut askotan ez garela konturatzen zenbaterainoko mina egin ahal diguten

modu batean zein bestean norbaitek gure gailuetara sartzea lortzen baldin badu. Eta sartzeko bide batzuk, zoritxarrez, nahiko errazak dira.

Pilota oso potoloa da ardura guztia familien gain jartzeko. Erantzuna ez litzateke gizarte mailakoa izan beharko gehiago?

Digitalizazio prozesua oso azkarra izan da. Pandemiak, gainera, areagotu egin du hori. Uste dut beharrezko formakuntza gabe harrapatu gaituela zentzu askotan. Jende asko dago ez dakiena pasahitzak modu egoki batean kudeatzen, edo ez dituen ordenagailuaren eta mugikorren eguneraketak egiten. Aldiz, ez zaio inori bururatzeko automobilak gurpilak ez aldatzea. Hori guztia jakintza faltagatik da. Eskoletan, gaur egun, erakusten dira gauza batzuk, baina orokorrean eta gizarte mailan oinarrituko formakuntza gabezia handia dagoela uste dut.

Gehiegizko erabilerarekin edo mendekotasunarekin ere badaude arazoak, ezta?

Bai. Ez dakit Interneten bizitza paralelo bat sor daitekeen, baina egia da eskaintzen dizkigula gauza batzuk bizitza errealek eskaintzen ez dizkigunak, eta gerta daiteke hor nolabait ka-teatuta gelditzea. Zenbateraino?

Ipuinak gaur liburutegian

Liburutegien Nazioarteko Egunaren bueltan ipuin saio berezia izango da, gaur, liburutegian. 17:30ean, HH3 - LH1 adinekoendako, eta 18:30ean, LH2 - LH6 adinekoendako. Gogoratu, bestalde, martxan dela irakurpuntuaren lehiaketa.



Enaitz Ezpeleta Gallastegi eguaztenean liburutegian. L.Z.L.

Ba, gizartetik bazterteraino edo bizitza paralelo horretan bakarrik geratzeraino. Okerrena da batzuek egoera hori normalizatzen dutela; bizitza errealean ez egotzeraino.

Heziketa digitalaren inguruan dagoen kezka bueltan herrian sortu den lantaldea edo dinamika zer iruditzen zaizu? Ekimen interesgarri iruditzen zaizu?

Zalantzarik gabe. Lankideen artean ere komentatu izan dugun kontu bat da, ikusten ari gare-lako poliki-poliki halako hainbat dinamika aktibatzen ari direla zenbait herritan. Aipatutako formakuntza gabezia horri erantzun bat ematera dator, eta bali dezake jendeak kontzientzia hartzeko egon daitezkeen arris-kuen aurrean -gure seme-ala-bendako zein guretzako- beti

izango da aberasgarria. Hau, dena den, iraupen luzeko lasterketa bat da. Ez da saio batekin konpontzen. Teknologia geratzeko etorri da, eta harrapatu gaitu egitura egokirik gabe. Noiz eman diezaiokegu mugikorra ume bati? Noiz utzi behar ditugu beraien kabuz libreki Interneten? Autoa, esaterako, ezin da 18 urtera arte gidatu. Kasu honetan, ez dago horrelakorik, eta halako dinamikek lagun dezakete hausnarketak plazaratzen eta partekatzen.

"TEKNOLOGIA GERATZEKO ETORRI DA, ETA HARRAPATU GAITU EGITURA EGOKIRIK GABE"

Energia eta dirua aurrezteko tailer praktikoa, eguaztenean

Nork bere etxean neurketak nola egin erakutsiko dute, eta parte-hartzaileen eskura utziko dituzte hainbat gailu

L.Z.L. ELGETA

Foru Aldundiko *Argitu* programaren barruan herriz herri egiteko den *Energia argitu* tailerra eguaztenean egingo dute Elgetan. Energia trantsizioaren mesedetan hainbat neurri har daitezke, eta, horretarako, etxe-ko egoera energetikoa ezagutzeko ezinbestekoa da, gero horren araberako neurriak hartu ahal izateko. Zenbat kontsumitzen du hozkailuak? Zenbat hezetan dago etxean? Zenbat berok ihes egiten du? Halako galderei erantzuna ematen saiatuko direla



Neurketak egiteko hainbat gailu. M.A.

azaldu du tailerreko gidari eta eraikuntza jasangarrian aditua den Oihana Ollokiegik.

Tailer praktikoa izango da, eta energia galerak non eta zergatik gertatzen diren aztertuko dute lehengo eta behin. Gero, nork bere etxeko efizientzia energetikoa nola neurtu erakutsiko dute horretarako propio ekarritako gailuen funtzionamendua azalduz.

Tailerra amaitutakoan, parte-hartzaileek etxean neurketak egin ahal izateko hainbat gailu dituzten mailetak txandaka etxera eraman eta neurketak egiteko aukera izango dute.

Tailerrean parte hartzeko ezinbestekoa da aurrez izena ematea. Gaur, barikua, da horretarako azken eguna. Interesatuak *argitu@gipuzkoa.eus* helbide elektronikora idatzi behar dute.

Gaur dira hastekoak euskal dantzen ikastaroak

Adinaren araberako lau taldetan banatuta 49 lagunek ekingo diote euskal dantzen ikastaroari. Eibarko Kezka dantza taldeko Irune Saez eta Uxue Gisasola izango dira irakasleak, eta saioak eskolako ganbaran eta kiroldegian izango dira. 16:15ean txikienak hasiko dira; HH 3-5 eta LH 1-2. Txikienak eskolako ganbaran arituko dira, eta nagusienak kiroldegian. Bigarren txandatan -17:15etik aurrera- LH 4-6 eta DBH 1etik gorakoak arituko dira. Hemen ere, gazteenak eskolako ganbaran eta nagusienak kiroldegian. Bederatzi eta hamabost lagun artean izango dira talde bakoitzean, kopuruz handienak LH 1-3 eta LH 4-6 izanik.

OHARRAK

Auzolana, bihar

Erreka garbiketa eguna izango da zapatua. Taldea 11:00etan elkartuko da plazan.

Domekan, mendira

Kantsatzekek Irukurutzetara egingo du irteera. Taldea 08:00etan elkartuko da plazan.

Astrotopaketa

Eguaztenean, hilak 25, astroargazkilaritzari buruzko topaketa, 18:30ean, liburutegian.

Gabonetako loteria

Azaroaren 14ra bitartean eska daiteke EAJren Gabonetako loteria. Arduradunak dira Maria Jesus Lete eta Begoña Ardanza.



Muare taldeak eguazten iluntzean Topagunean egindako kontzertua. SARA ARREGI

Dinamika berriarekin dihardute Eltzian

Komunitatea berrindartzeko beharra ikusi dute eltzia-kideek, eta eurek landutako plan berri bat jarri dute martxan: eltzia-kideen harremanak dinamizatu, komunikazioa landu, Topagunean ekintzak antolatu hilero, eta Eltzia Eguna berreskuratu

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Eltzia komunitatea sendotu eta biziberritu gura dute, eta hori lortzeko dinamika berri bat zehaztu dute, dagoeneko martxan dagoena. Sara Arregi dabil, esaterako, eltzia-kideen arteko harremana dinamizatzen, zubi lanak egiten eta eltzia-kideen artean erabakitzen den programazioaren antolaketan laguntzen. Danel Teranek, berriz, komunikazio estrategia landuko du, barrukoaren artean zein kanpora, herrira, begira. Topaguneak itxura berria izango du, eta hilean ekintza bat egitea ere pentsatu dute; asteazkenean egin zuten lehenengoa.

Tresnak, helburua lortzeko

Muare bikotearen kontzertuak eman dio hasiera hileko programazio horri. Irekia izango da, eta Eltzia barruan dauden eragileek euren lanak erakusteko, zein kanpoko taldeen lanak ezagutzeko espazioa izango da. "Kanpokoekin harremana sortzea

beti dago ondo, eta etorkizuneko proiektuetako haziak izan daitezke harreman horiek", dio Eltzia-ko koordinazio taldeko Josu Zubiak. Hala ere, egingo diren ekintzak eta programazioa ez direla helburu azaldu gura izan du Zubiak, tresnak baizik, Eltzia-ko komunitatea sendotzeko eta hor sortzen dena herri-tarrekin batera partekatuzeko eta gozatzeko.

Horrela, dinamizatzeaz, Topagunean ekintzak antolatzeaz eta komunikazioa lantzeaz gain, Eltzia Eguna berreskuratzea ere pentsatu dute. "Sekulako gogoa genuen horretarako, eta sortzen ari garen mugimendu hau horretarako aproposa dela iruditu zaigu. Urriaren 28an izango da,

**URRIAREN 28AN
OSPATUKO DA ELTZIA
EGUNA; 12:00ETAN
ABIATUKO DIRA
PLAZATIK**

zapatuan, eta plazatik abiatuko gara denok Potx eta Lotxekin Eltzia-ara. Han, turistei egiten zaien moduko bisita gidatua egingo zaie eraikina ezagutu gura duten erabiltzaile zein herritar guztiei, performance baten bitartez".

Udalaren laguntzarekin

Udalak begi onez ikusi du eltzia-kideek diseinatutako dinamika plana. Uste du Eltzia proiektua indartsua dela eta dinamika honek lagunduko duela komunitatea indartzen eta harremanak sendotzen. Horrela, alde bien arteko lankidetzaz hitzarmena beste lau urtetarako onartzeaz gain, dirulaguntza emateko beste hitzarmen bat ere onartu zuen, aho batez, udalbatzak, apirileko osoko bilkuran. 12.000 euroko dirulaguntza da hori, urtero berrikusiko dena.

Hamar urte dira Eltzia proiektua abiatu zela. Egun, 22 eragile daude, eta osasun ona duela dio koordinazio taldeak.



IÑIGO BARRENA

Kulturartekotasuna oinarri

Oñatiko, Ibarra eta Italiako Bedizzole herriko gazteak Astindu Kulturale izena jarri dioten Erasmus+ programan ari dira parte hartzen. Kulturartekotasuna oinarri, European bat egiten duten kultura eta errealitate ezberdinak ezagutu eta onartzea da helburua. Italiarrak hemen izan dira, eta abenduan joango dira hemengoak Italiara.

NIRE USTEZ



ESTEBAN IRUSTA MALLEA

Lekunbarri

Adin handikoek badakite Lekunbarri izeneko auzunea badela herrian, baina gaur egun, harrigarria ez bada ere, ezezaguna da herritar gehienentzat. Bere lekua Triana izenak ordezkatzen du. Auzune horren aipamena egiten den bakoitzean, Triana izenez agertzen da, izen ofiziala izango balitz bezala. Baina ez dut uste maila horretara iritsi denik, nahiz eta behin eta berriz horrela balitz bezala agertu hedabideetan. Gure haurtzaroan, Lekunbarri izenaz ezagutzen zen, eta Triana txantxetan hitz egitean erabiltzen zen.

Euskal toponimoak antzinakoak dira, eta zaintza berezia merezi dute adituaren esanetan. Zoritzarrez, euskal leku-izen asko desagertu edo eraldatuak izan dira, han eta hemen, mendez mende, gure utzikeriagatik, alde batetik, eta gaztelaniaren eta frantsesaren eraginez, beste aldetik. Euskarak dituen arazo guztien artean, hau bat gehiago besterik ez da. Hizkuntza minorizatua dela kontuan harturik, arrisku asko ditu alde guztietatik, eta denon arteko arreta guztiak gutxi izango dira iraupen zabala eta sendoa izatea nahi badugu.

Burrunda Faktoria izeneko elkarte berria bihar aurkeztuko dute

Burrunda Faktoria Kultur Elkarte sortu dute hainbat herritarrek, eta bihar, zapatua, egingo dute taldearen aurkezpena, 19:00etan, Antixena gaztetxean.

Oñatiko zenbait musikazalek kontzertuak eta musikarekin lotutako bestelako emanaldiak programatzeko sortutako elkarte da Burrunda Faktoria; An-

tixena Gaztetxean "eskaintza kultural ordenatu bat" egitea du xede, "betiere, musikariak eta ikusleak ahalik eta gusturen egoteko helburuz". Aurkezpenean, elkartearen eta lehen denboraldirako prestatu duten egitarauaren berri emango dute, eta, ondoren, Maddi Arlanzon eta Aitor Regueiro musikariek emanaldi bana egingo dute. Luntxa ere egongo da. Taldearekin harremanetan jartzeko: onatikofaktoria@gmail.com eta [@burrunda](https://www.instagram.com/burrunda).

KONTU KONTARI

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Kale Zaharrean jaio zen Asun Arzuaga Lasagabaster (Oñati, 1930). Sei hilabete zituela plaza-
ra lekualdatu zen familia eta harrezkerok han egin du bizimodu-
dua. Bera da plazan urte gehien bizi den oñatiarra.

Gerra bizi izan zuen txikia zela, gerra ostea gero, eta aurreko mendeak eman dituen aldaketa guztien lekuko izan da. Herriaren bilakaerarena, eskolarena, komertzioarena, eliza-
rena, bizitza sozialarena. Artista senik ere ez zaio falta. Abesbatzan ibilitakoa da urte luzez, eta duela ia 20 urte Ikusi Makusi antzerki taldea sortu zenetik, gidoilari, zuzendari eta aktore lanetan dabil bertan.

Gerra ostea okerragoa

Sei urte zituen gerra piztu zenean, baina ordukoaz ondo oroitzen dela adierazi du oñatiarrak Goiena Telebistaren Kontu Kontari saioan. "Guretako nobedadea zen hura. Hegazkinei begira egoten ginen, lau motorrekoak edo bikoak ote ziren pentsatzen. Garoa erakinean ospitalea jarri zuten. Zaurituak eta hildakoak eramaten zituzten hara, eta plaza inguruan bizi ginen ume denak hara joaten ginen zaurituak eta odola ikustera. Gurasoendako ez zen sasoi ona izan, baina guk ez genuen horrela ikusten orduan". Gerra ostea izan zen, Arzuagarendako, okerragoa: "Ogia erostera ere kartila eskuetan genuela joaten ginen okindegira. Amantala egiteko oihala Santosenean erosten genuen, baina ez guk gura genuena eta guk gura genuen beste metro. Erosketak Arrillaganean egiten genituen guk. Txokolate fabrika zuten eta dendako mostradore gainean, paper bariko gozokiak izaten zituzten kristalezko pote batean. Enkarguak egiteko deseatzten egoten ginen gozoki bat jateko".

Eskolako piper egunak

Gaztelekuaren gainean, egun Txantxiku ikastola dagoen tokian, zegoen orduan plazako eskola. Arzuagaren atari berdinean bizi ziren hango maistrak, eta eskolara eramaten zuten eurekin. Neskak ziren gelako ikasle denak. "Uda aurretik azterketa egitera etortzen ziren herriko hainbat pertsona inportante: alkatea,



Asun Arzuaga bere etxean, bizi izandako pasadizoak ageri diren argazki zaharrak ondoan dituela. MARKEL ARRAYAGO

"Beldurtu barik bizi behar da unean tokatzen den bizitza"

ASUN ARZUAGA LASAGABASTER

Abuztuan 93 urte bete zituen eta orduetik hona herrian bizitakoak gogoan ditu oraindik. Goiena Telebistaren 'Kontu Kontari' saio berrian erreparatu ditu, argazkiekin

"GERRA NOBEDADEA IZAN ZEN GURETAKO; HEGAZKINEI ETA ZAURITUEI BEGIRA EGOTEN GINEN"

"MAITEMINDUEN ARTEKO ELKARRIZKETAK ENTZUTEAN LILURATU EGITEN NINTZEN"

parrokkoa, aguazila, guardia zibila, botikaria... Eta alaitzera aukeratzen zituzten neskei egiten zizkieten galderak. Egun horretarako amantal zuriarekin eta aurpegia eta eskuak garbi genituela joan behar ginen eskolara". Handik Benediktinarren eskolara joan zen, eta hango "matrakakeriekin" ere gogoratzen da Arzuaga. "Orduan ikasturtea pasatzea zen helburua, ez titulua lortzea, eta normala zen piper egitea. Gu, adibidez, harrobira joaten ginen sarritan hango langile baten kamioian. Eskola

Gorputza eta burua, biak aktibo

93 urte beteta eta orduko eta oraingo bizimoduak desberdinak direla jakitun, momentuan bizitza tokatzen dena benetan bizitza da Arzuagaren aholkua, "ez beldurtuta". Horrekin batera, baita gorputza zein burua aktibo mantentzea ere.

ordua zaintzen genuen etxera heltzeko, baina harez zikinduta eramaten genituen arropak etxera, eta berehala jakiten zuten ez ginelako eskolan egon".

Banatzaila eta irakasle

Hamasei bat urtera arte joan zen eskolara eta Telefonikako banatzaile moduan ibili zen gero lanean. Orduan, enpresa gutxi batzuetan, medikuaren etxean, udaletxean, Egaña okindegian, Arrazola zurrategian... oso leku gutxitan zuten telefonoa. Nik lokutorioan konferentziak egiteko jakinarazpenak banatzen nituen gehienbat. Horietako batzuk nobioen arteko telefono deiak izaten ziren eta uneko arduraduna zein zen, entzun egiten nituen. Liluratu egiten nintzen maiteminduen arteko elkarrizketa haiekin". Gero irakasle moduan jardun zuen Santa Lutzian: "Ikasleen gurasoek emandako dirua zen nire orduko soldata".

Elizan ordu asko pasatakoa ere bada Arzuaga. "Don Migel apaizak infernua gogorra zela esaten zuen. Sua besterik ez zegoela, sua goian eta behean, baina ez zuela erretzen. Konparaziorako, Labegaraietako ontzi batera erortzea hotzak dar-dar egitea zela bakarrik. Eta hori imajinatzen, irudikatzen, pasatzen genituen gero meza osteko orduak".

'Aita Guria'-ren estreinaldia

Ezkundu eta familia etorritakoan "lotuagoa" egon arren, ez zituen bere bi zaletasunak alde batera utzi Arzuagak: abesbatza eta antzerkia. 80 urterekin utzi zuen korua, "ahotsak ez zidalako laguntzen", baina antzerkiarekin jarraitzen du; eskolan deskubritu zuen antzerkia eta orduetik du gogoko. "Aratusteetan, mozorrotu ezin den sasoiaren, ezkontza bat antzeztu genuen behin. Poztasun edo satisfazio handia dut arlo horietan bizitakoaz. Aita Madinaren *Aita Guria* piezaren estreinakoan han nintzen, baita *Arantzazuko poema* edo *Rapsodia Oñati* estreinatuta zirenean ere. Aita Madina entsegu askotan egon zen".



Elkarrizketa bideoan ikusteko, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoarekin.



Albok eta Saquatch taldeko jokalaria, baloiaren lehian, iazko finalean. OIHANA ELORZA

Baloia jokoan jartzea, besterik ez da falta

Duela bi aste Superkopako finala jokatu zen arren, Herriko Futbol Txapelketaren denboraldi berria, ofizialki, asteburu honetan hasiko da. Ikasturte berrirako hiru talde berri batu dira txapelketara; horregatik, hiru partida jokatuko dira jardunaldiko

Iñigo Barrena Kortabarria OÑATI
Etxeko armairuan dituzten futboleko zapatilei hautsa kentzeko onea iritsi zaie Herriko Futbol Txapelketan parte hartuko dutenei. Bihar bertan emango zaio hasiera denboraldi berriari, eguerdiko 13:30ean, Tutelatraku eta Sasquatchen arteko neurketarekin. Guztira hamahiru taldek eman dute izena, eta, iaz bezala, bi multzotan banatuko dira; hortik aterako dira *Txanpionsa* eta *Kopa* jokatuko dituzten taldeak.

Hain zuzen, parte hartuko duten taldeen kopurua albiste pozgarria da, azken urteetako altuena izango duelako aurten txapelketak. Hiru talde berrik eman dute izena; Hangover, Kelekona eta Morekanbe dira horiek, eta antolakuntzatik pozarren hartu dute albiste. "Urte askoan gainbeheran egon da taldeen kopurua; horregatik, itxaropentsu gaude denboraldi berriari begira. Urteetan txapelketaren biziraupena izan da

helburua, eta uste dugu hori gainditu dugula, beraz, orain, behar horiek alde batera utzita, indarrak beste kontu batzuetan jartzeko aukera emango digu", dio Jon Aiastui antolakuntzako kideak.

Maila, geroz eta handiagoa
Talde berriak egoteak Herriko Futbol Txapelketaren maila ere igotzea eragingo du, eta antolakuntzako kideek uste dute irabazle izateko lehia ere estuagoa izango dela. "Honek txapelketaren erakargarritasuna igotzen du. Zaila da jakitea denboraldia nola joango den, baina ziur nago orain arteko taldeek maila bera erakutsiko dutela. Aurten, ordea, zailagoa izango da txapelketa

AZKEN URTEETAN GERTATU EZ BEZALA, AURTEN, ASTEBURURO HIRU NEURKETA JOKATUKO DIRA

irabaztea, talde berriak sartu direlako", dio Aiastuik.

Berrikuntza txiki batzuk
Hamahiru talde izanda, aurten, asteburu hiru neurketa jokatuko dira lehen bi faseetan. Aiastuiren arabera, "aspaldi ez da gertatu" hori, baina berdin-berdin "moldatuko dira". Horretaz gain, nahiz eta oraindik urrun egon, finalei begira ere zerbait berezia prestatzeko asmotan dabilta antolakuntzako kideak. "Finalisten eguna bakarrik izan gabe, parte hartu duten guztien ospakizun eguna izatea gustatuko litzaiguke", esan du Jon Aiastuik.

Etorkizunera begira ere jarrita daude HFTko kideak, eta, azken urteetan talde dezente sortu direla ikusita, mezua ere helarazi nahi izan dute. "Orain arte jokatu ez dutenei aurrerantzean animatzeko esaten diegu, eta, bestela, ikusleen artean ere lekua izango dutela beti", dio Aiastuik.

Liburutegien eguna ospatuko dute datorren martitzenean

Egun horretarako egitarauaz gain, liburutegian eskaintza zabala izango da hurrengo asteetan zehar ere

I.B.K. OÑATI

Oñatiko Udal Liburutegian preste daude datorren martitzenean ospatuko den Liburutegien Nazioarteko Egunerako. Aurtengo leloa *Komunitateak ehuntzen da*; horren bidez, liburutegiek gure komunitateetan lotura sendoak eraikitzeke duten funtsezko zeregina azpimarratu nahi izan dute. Egun horretarako bisita gidatuak antolatu dituzte lau urteko haurrentzat; astelenean ere, hilaren 23an, egingo dituzte bisita horiek, Lur Korta gidari delarik.

Bestalde, hilabete honetan azpimarratzekoak dira ohiko egutegitik kanpo antolatu dituzten bi ekintza. Alde batetik, ipuin kontalari bat izango da zine aretoan, eta, bestetik, Xabier Olasok poesia kontaketa egingo du haur liburutegian, *Tximeletrak airera* izenburupean. Bi

ekintzak urriaren 27an izango dira, arratsaldeko 18:30ean hasita. Xabier Olasoren poesia kontaketarako gonbidapenak banatuko dituzte, eta hamar egun lehenago irekiko da izena emateko epea.

Ohiko Tertulixan ere bai

Aipaturiko bi ekintza horietatik aparte, liburutegiko Tertulixan taldeek ohiko jardunarekin jarraituko dute urrian ere. Astean egin dituzte Idazketa Lantegia eta Komikia Tertulixan Euskaraz saioa. Gainontzean, Tertulixan Gaztelaniaz hilaren 24an egingo dute, Liburutegien Eguna aprobetxatuz, arratsaldeko 18:30ean, Monica Leiva dinamizatzailearen eskutik. Tertulixan Euskaraz saioa, berriz, hilaren 31n egingo dute, hori ere 18:30ean, liburutegian, Itziar Ugartek dinamizatuta.

Erakusketa hilaren 29 arte

Iosu Garai arrasatearraren *Zaindu. Impresionismoari keinu bat* erakusketa ikusgai egongo da hilaren 29ra arte Kultur Etxeko erakusketa aretoan. Kameraren mugimenduen teknika erabilia ateratako hamalau argazki daude, impresionismoari keinu egiten diotenak. Basoa da argazkiak batzen dituen gaia, eta Euskal Herrian egindakoak dira gehienak.



OIHANA ELORZA

AUTLAN[®]
EMD

Azken belaunaldiko pila alkalinoetarako Manganese Dioxido Elektrolitiko ekoizpena.

Literatura emanaaldi *musikatua*

Joseba Sarrionandia
eta
Joxe Mari Iturralde
idazleak

Anne Etchegoyen
abeslaria

Iñar Sastre
musikaria

Olatz Prat
musikari eta kazetaria



Azaroak 3, ostirala, 19:30, Arrasateko JAMEN

Sarrerak eskuratzeko: www.arrasate.eus

Goienakideek eta AEDko bazkideek

7 € (urriaren 20 arte)

Data horretatik aurrera, 10 € guztientzat



Antolatzaileak:



Babesleak:



"Jendea ilusionatu izanak poztu nau gehien"

ANE ZABALA MENDI LASTERKARIA

MENDIA Hiru Haundiak irabazi ondoren jaso dituen zorion mezuek erakutsi diote lasterketa horrek zer oihartzun duen; bi urte barru txapela defendatzen ikusten du bere burua

Xabier Urzelai ARRASATE

Distantzia luzeko lasterketetan egin duen debutean Hiru Haundiak moduko proba bat irabazteko gai izan da Ane Zabala (Arrasate, 1973). Garaipena lortu eta biharamunean, hainbat mendi lasterkarirekin batera denboraldia agurtzeko egiten duten ohiko bazkariaren aurretik erantzun ditu GOIENAREN galderak. Ez du herrenik, ez du aparteko giharretako minik. Murutik buelta bat eman da etorri da hitzordura.

Zapatuan, lasterketa irabazi berriari, ez zenuten Arrasatera itzulteko presarik izan...

Ez, kuadrilla ederra joan ginen hemendik Hiru Haundiak lasterketa egitera, eta helmuga gurutzatu eta sari banaketa ondoren, gainontzeko lagun zain geratu ginen Araian.

Zelakoa da halako lasterketa baten osteko biharamuna?

Bada, kristorena [barreak], oraindik laino baten gainean nago, sinistu ezinda, egia esateko.

Zer egin duzu gaur goizean?

06:00etarako esnatu naiz, baina pentsatu dut gaurkoan ez nintzela gauzez kalera irten behar. Lasai gosaldut, txakurra hartu eta Murura joan naiz apur bat paseatzera eta gorpuzta zelan neukan ikustera. Gozatu egin dut gaur ere, lasai, inguruko paisaiez gozatuta.

Zer sentitu zenuen Araian helmuga gurutzatzerakoan?

Inondik inora espero ez nuen gauza bat zenez... Ezustean harrrapatu ninduen denak. Hala, koetan sentitzen dena sentitu nuen; aurpegi ezagunak eta ezagunak ez direnak ere helmuga ikusten dituzu irribarrez, txaloka, zu animatzen, eta bihotza irauli egiten zaizu. Orduak neramatzan mendian, baina momentu horretan nekeak eta halakoak joan egiten dira. Jendea momentu horretan horren



Hiru Haundiak irabazle Ane Zabala, lasterketa ostean, Monterronen. X.U.

"BI URTE BARRUKO LASTERKETA URRUN IKUSTEN DUT, BAINA ZERGATIK EZ TXAPELA DEFENDATU?"

pozik ikusteak asko betetzen du kirolaria; ez dago momentu hori eskertzeko modurik.

Eguraldiari begira egon zineten aste barruan...

Bai, lasterketa asko alda daitekeelako, eta niretako berria zelako dena. *Isi* -Caballero- lagunarekin batera hasi nuen lasterketa, eta hura oso lehia korra da. Etengabe esaten zidan hau eta beste egin genezakeela, erritmoa bizitzeko... Eta nik lasai egoteko esaten nion [barreak]. Zoritxarrez, 30. kilometroan min hartu zuen, eta erretiratzea erabaki zuen, eta momentu horretan oso bakarrik sentitu nintzen. Gaua luzea egiten da halakoetan; egunsentia noiz iritsiko zain nengoen. Zorionez, *Isi* bera eta baita etxe koak ere batera eta bestera ibili ziren anoa postuetan laguntzen. Landan, esaterako, ondo jatera

derrigortu ninduten, eta esker-tu egin nuen gero; oraindik asko geratzen zen.

Non konturatu zinen lehenengo emakumezkoa zinela?

Anbotoko kontrolean. Ordura arte ez nintzen jabetu lehenengo nintzenik. Badakizu jendea aurretik doala, beste asko atzetik... Baina lehenengo nintzenik, ideiarik ere ez.

Eta aldatu zuen horrek lasterketa enfokatzeko modua?

Ez, kilometro asko dira eta garbi nuen nire erritmorra joan behar nuela, halako probetan ez dudalako eskarmenturik.

Distantzia luzeko lehenengo lasterketa izan da zuretako. Ikusten duzu zure burua distantzia hauetan?

Distantzia motzagokoekin alderatuta, lasterketa hauek ezberdinak dira; beste modu batean jokatu behar duzu. Bat egiteko kapaz izan naiz; ez dakit gehiago egingo ditudan, baina distantzia polita iruditu zait.

Bi urte barru txapela defendatzea tokatuko zaizu...

Oraindik urrun ikusten dut, baina zergatik ez? Lehenengo egiteko kapaz izan banaiz, espero dut bigarrena ere amaitu ahal izatea.

Bina derbi gorengo mailan, aurrekoei trabak jartzeko

FUTBOLA Antzuola eta Aretxabaleta B taldeek aurrean dabilzan Aloña Mendi eta Mondra hartuko dituzte

X.U. ARRASATE

Ohorezko erregional mailan Aretxabaleta eta Bergara ikusgarri dabilta, bigarren eta hirugarren postuan, sei partidutatik bost irabazi eta bestea berdindu eta gero. Eta asteburuan etxetik kanpora jokatu dute biek. Bergararrek Beasainen zapatuan (16:30), eta aretxabaletarrek Mutrikun (17:00).

Maila berean, baina emakumezkoetan, Debagoiena Bailarak zapatuan jokatu du Ibarra (17:30), Oiartzunen kontra. Ligako lehenengo garaipenaren bila zelairatuko dira Aitor Gu-

ridi Txisto-ren neskak; Oiartzun ere mailari eusteko borrokan ibiliko den taldeetako bat da.

Saltsa, gorengo mailan

Gorengo mailan saltsa egongo da asteburuan, bina derbi jokatu dituztelako. Eta domekan izango dira biak. 11:30ean, Eztalako berdegunean, atzealdeko postuetan dagoen Antzuolak ligako oilarretako bat hartuko du, Aloña Mendi. Bestalde, 16:30ean, Aretxabaletako bigarren taldeak Mondraren kontra jokatu du Ibarra, eta horiek ere goian daude.



oñatiarren eta antzuolarren arteko partidua, 2021ean, Azkoagainen. X.U.



HERENSUGEAK

Herensugeak Italian lehiatu dira

ERRUGBIA Arrasate Rugby Taldeko beteranoak, Herensugeak, Erroman izan dira asteburuan. Villa Pamphili errugbi taldeak antolatuta, beteranoen topaketa egin dute Italiako hiriburuan, eta sarrailagile eta italiarrekin batera, hirugarren talde batek ere hartu du parte, Vecchie Spungnek, hain justu ere. Noski, turismoa egiteko ere aprobetxatu dute bidaia.

Futbola, gizarteko arazoak aldatzeko tresna

FUTBOLA Alex Remiro Realeko atezainak eta Futbol Mas fundazioak sortutako proiektua gure klubetara iritsi da. Mondrak jada martxan du eta Bergarak hilaren bukaeran ekingo dio. Aloña Mendik eta UDAk ere euren klubetara ekarri gura dute

Iñigo Barrena Kortabarria ARRASATE Alex Remiro Realeko atezainak eta Futbol Mas fundazioak sortutako Familientzako Formazioa proiektua gure taldeetara iritsi da. Mondrak hilaren 26an jarriko du martxan, lehen taillerrekin; Bergarak egun bat beranduago ekingo dio, eta Aloña Mendi eta UDAk aurrerago egiteko asmoa iragarri dute. Proiektuaren helburua kirola tresna izanik haur eta gazteen ongizatea sustatzea da, eta hiru alderdi lantzen dituzte bertan: erresilientzia-prozesuak, lotura esanguratsuak, eta kohesio eta gurasotasun komunitarioa.

Beste helburuetako bat gurasotasun positiboa sustatzea da, ingurune seguruak eta babesleak sortzeko eta, horrela, haurren eta gazteen ongizate emozionala bermatzeko. Horretarako bi orduko hiru tailer egiten dituzte. Lehen bietan, familian ingurune seguruak eta babesleak nola sortu aztertzen dute, haurren eta gazteen ongizate fisikoa, mentala eta emozionala sustatzeko. Hirugarrenean, berriz, gizarte eta kirol-jarduerak lantzen dituzte, enpatia, talde-lana, komunikazioa, hazkunde mentalitatea eta lidergotza sustatuz.

Arrasaten, hilaren 26an

Denbora da proiektua abian jarri zutela, baina gure bailarara aurten iritsi da. Konkretuki Mondra eta Bergara izango dira lehenak berau aurrera eramaten Mojategiko eta Agorrosinoko instalazioetan.

Mondra izango da lehena, hilaren 26an arratsaldeko

Tailerren ordutegiak

Arrasateko eta Bergarako tailerren egunak eta orduak

Arrasate

- Urriak 26, eguena, 17:30ean, Mojategin.
- Azaroak 2, eguena, 17:30ean, Mojategin.
- Azaroak 9, eguena, 17:30ean, Mojategin.

Bergara

- Urriak 27, egubakoitza, 17:30ean, Agorrosinen.
- Azaroak 3, egubakoitza, 17:30ean, Agorrosinen.
- Azaroak 10, egubakoitza, 17:30ean, Agorrosinen.

17:30ean egingo dutelako lehen saioa Mojategin; azaroaren 2an eta 9an, ordu eta toki berean izango dira hurrengo bi saioak. Xabi Etxeberria zuri-moreen klubeko presidentek garrantzia handia eman dio proiektua aurrera eraman ahal izanari, uste du-eta azken urteetan futbol zelaietan "giro arraroa" sortu dela, batez ere harmailetan. "Federaziotik abisuak jaso izan ditugu hainbat klubek gure zelaietan gertatu diren egoera desegokiengatik. Hori dela eta, halako egoerak baztertzeko aldera, oso interesgarria iruditu zaigu proiektua", dio Etxeberriak.

Era berean, aitortu du hasieran "zalantzak" izan zituztela proiektuarekin, baina bertakoen azalpena jasotakoan ez zuten zalantzarik izan. "Egia esan, ez genuen ezagutzen eta gu ez ginen proiektu honen bila joan; eurak etorri ziren gurera, Debagoienean zabaldu gura zutela esanez eta ea laguntzerik genuen. Hasieran, kostatzen ziren zitaizun ulertzea zertaz doan, baina behin euren azalpenak jaso ondoren, aukera ezin hobea zela ikusi genuen", adierazi du Mondrako presidentek. Momentuz, 26an hasiko den taillererako, 20tik gora pertsonak



Alex Remiro Realaren entrenamendu baten. REAL SOCIEDAD

eman dute izena, eta Xabi Etxeberriak aitortu du gurasoek "parte hartzeko asmoa" agertu dutela.

Bergaran, hurrengo egunean

Egun bat geroago, hilaren 27an, Agorrosinen egingo dute lehen taillerra Bergara ere proiektu honetara batu baita. Mondrako presidentek bezala, Iosu Elorza mahoneroen presidentek ere uste du Alex Remiroren proiektua tresna paregabea dela arazo batzuei aurre egiteko. "Gizartean dagoen arazo bati aurre egiteko baliabidea dela uste dugu klubean. Gaur egun, geroz eta arazo gehiago daude kirol munduan, eta gurasoei horren aurrean prestatzeko balioko dielakoan gaude", dio Elorzak.

Klubean aurretik ere horrela-ko gaiak landu izan dituzte baina barne mailan, jokalariei zein entrenatzaileei bideratuta gehiago. Orain, klubak herrian duen pisua erabili nahi dute gizarteko arazo hauei aurre egiteko. "Herri mailan erreferenteak gara, eta gizarteko gai hauei

lehentasuna eman behar diegu. Garrantzitsua da guretzat horrelakoak egitea", adierazi du Bergarako presidentek. Momentuz, izen-ematea zabalik dute eta klubetik jende ugari erakartzea espero dute, nahiz eta jakitun diren horrelakoetan zaila dela jendea mugitzea.

Aloñak eta UDAk ere bai

Mondrak eta Bergarak egin bezala, Oñatin eta Aretxabaletan ere proiektua euren taldeetara eramateko asmotan dabil-tza. Aloña Mendiren kasuan, ekimeneko kideekin berbetan ari dira, eta hilaren 27an gelditu dira bertako kideei klubaren instalazioak erakusteko, ea proiektua Oñatira ekartzeko biderik izango duten edo ez jakiteko. Ondoren, datak zehaztu beharko dituzte izen-ematea zabaldu ahal izateko. Aretxabaletan ere beste horrenbeste gertatzen da. Berba egiten ari dira tailer hauek Ibarran egiteko, eta, datak zehaztea falta bada ere, asmoa 2024ko martxoan egitea izango litzateke.

Europako txapelketan izango da Andoni Mujika bergararra

KUDOA Urriaren 29an, Lituaniako jokatu da Europako Kudo txapelketa, eta Selektzio Nazionalarekin arituko da

I.B.K. BERGARA

Andoni Mujika Lituaniako jokatu den Europako Kudo txapelketan izango da hilaren 29an. Bergararra Selektzio Nazionalak hautatua izan da txapelketara joateko, eta iaz Erro-

man lortutako bigarren postua errepikatzen edo hobetzen saiatuko da. "Maila ona egongo da, baina aurkariak ikusita zerbait lortzeko aukera ikusten dut. Iaz helburu finkorik gabe bigarren izan nintzen; aurten, ordea, lehen

hiruren artean egoteko asmoarekin noa", dio Mujikak. Gainera, helburu horiek lortzeko prestaketa lan handiak egin ditu, eta momentu aproposan heldu zaio Lituaniako aukera. "Entrenamendu asko egin ditut, egunean bi ordukoak, eta beste txapelketekin alderatuz, fisikoki hobeto iritsiko naiz honetara. Mentalki ere, beste txapelketa batzuetako esperientziatik ikasita, une honetan prestatuago nago zentzu horretan", aitortu du bergararrak.



Iazko Europako txapelketan bigarrena izan zen Andoni Mujika. GOIENA

Antzerkia ikusteko eta ikasteko, Karoi jaialdia

DAPEk –Debagoieneko Antzerki Plataforma– bigarren Karoi jaialdia antolatu du gaur, egubakoitza, hasi eta abenduaren 3ra bitartean eskualdeko txoko ezberdinetan; ekitaldietan parte hartzeko 'Dantzerkiplat@gmail.com' helbidera idatzi behar da aurrez

Aitziber Aranburuzabala Juldain OÑATI

Aurten bigarren ez ingo duten Karoi jaialdiarekin eskualdeko udalek eta bestelako eragileek antolatzen duten kultura eskaintza indartzea du DAPEk helburu. "Eskualdean antzerki-ikuskizunak programatzen dira, baina eskaintzaz harago, lan asko dago oraindik egiteko eta hortik dator gure proposamena, antzerkia gizartea eraldatzeko tresna baliagarria dela sinisten dugulako", azaldu du DAPEko kide Amaia Castañedak, eta zera gaineratu du: "Orokorrean badago ardura bat, bai udalen eta gure partetik ere, zergatik ez den publikoa antzokietara hurbiltzen. Gure erronkataro bat da egoera hori iraultzea, eta bide horretatik proposatu dugu azaroaren 14an egingo dugun mahai-ingurua eta bestelako tailer gehiago".

Askotariko eragileak dituzte bigarren Karoi jaialdian bide-lagun: Oñatiko, Elgetako, Aretxabaletako eta Antzuolako udalak eta EHAZE –Euskal Herriko Antzerkizaleen Elkarte– horien artean.

Ikusle klubak eta tailerrak

Elkarrekin ikuskizunera joan eta horren bueltako solasaldiak egiteko gonbidapena da Ikusle



DAPEko kide Amaia Castañeda, Maitane Arizabaleta eta Nerea Atxa. OIHANA ELORTZA

Kluba. "Guk ez ditugu antzerki emanaldiak antolatzen, baina eskualdean dagoen antzerki eskaintzari ahalik eta zuku gehien ateratzeko asmoa dugu Ikusle Kluba ekimenarekin. Profil ezberdinetako zaleak gonbidatu gura ditugu izaera ezberdineko ikuskizunak aukeratuta, adibidez: Bergarako *Isladak*, antzerki soziala taldeak gaur Bergarako Seminarixoa aretoan antzerki laburreko formatuko lau piezekin osatutako ikuskizunera joango gara eta, bereziki, ikusle gazteekin egin nahi dugu

Anbotoko Mari antzezlanari buruzkoa. Horrez gainera, EHAZErekin elkarlanean, *Ikusle klubak gidatzeko formakuntza* ikastaroa egingo dugu. Formakuntza alorrean aukera gehiago izango ditugu, horien artean: dagoeneko edukiera beteta duen *Argi eta soinu teknikaren hastapena* eta Itsaso Pol Oñatiko zinegileak gidatuko duen *Kamera aurreko antzezpen hastapena*. Formakuntzaz harago, eskualdeko zein kanpoko antzerkigile eta zaleen topagunea izatea da Karoi jaialdiarekin dugun gogoia".

Egitaraua

Urriak 20

- **Ikusle kluba** *Isladak* antzezlanari buruz, Bergarako Irizar jauregian, 19:00etan.

Urriak 21, 28 eta azaroak 11

- **Tailerra** *Argi eta soinu teknikaritzaren hastapena* izenekoa, Oñatiko gaztelekuan.

Urriak 22

- **Tailerra** *Gorpuztu gatzal!*, Leintz Gatzagako kultura etxean.

Urriak 27

- **Antzezlan** *Batetik bestera*, Antzuolako Torresoroan, herriko herri eskolako haurrei zuzenduta, 11:00etan.

Urriak 29 eta azaroak 5

- **Tailerra** *Kamera aurreko antzezpen hastapena* izenekoa, Oñatiko Eltzian.

Urriak 29

- **Ikusle kluba** *Anbotoko Mari* antzezlanari buruz, Eltzian, 16:00etan.

Azaroak 12

- **Tailerra** *Ikusle klubak gidatzeko formakuntza*, Elgetako Espaloia antzokian.

Azaroak 14

- **Mahai-ingurua** *Antzerkiko publiko berrien sorrera*, Oñatiko zinema aretoan, 19:00etan.

Azaroak 17

- **Ikusle kluba** *Kanpora sartzen* antzezlanari buruz, Aretxabaletako kultura etxean, 19:00etan.

Azaroak 18

- **Antzerki talde amateurren topaketa**, Eltzian, egun osoko ekimena.

Abenduak 1

- **Ikusle kluba** *Bake lehorra* antzezlanari buruz, Oñatiko Kultura etxean, 18:00etan.

Abenduak 3

- **Ikusle kluba** *Belarriprest* antzezlanari buruz, Torresoroan, 18:00etan.

GOIENA
TELEBISTA
SASOI
BERRIA

'BIXI IBILI!',
ESKORIATZAN

URRIAREN 24AN, MARTITZENEAN,
19:30, 21:30 ETA 23:30




DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena

Zu hemen zaudete.



NOLA DU IZENA ESKORIATZAKO MONETAK?



Iholdi Beristain aktorea, *Ni ta nitarrak* bakarriketako entseguan. AED

Emakume gazte baten eguneroko bizipenak

Maria Osés arrasatearrak idatzi du, AEDren enkarguz, 'Ni ta nitarrak' bakarriketa eta Iholdi Beristain Portugaleteko aktore eta musikariak antzetzuko du taularen gainean; domekan estreinatuko dute Juan Arzamendi Musika Etxeko auditoriumean, 19:30ean

A. Aranburuzabala ARRASATE
Ibilbide arrakastatsua egin dute Arrasateko AED euskara elkar-
teak sortu zituen *Buah Txabal!*
eta *Erdaldun berrien kluba* ba-
karrizketek; bada, elkartearen
40. urteurreneko ospakizunen
baitan argitaratuko dute hiru-
garrena, *Ni ta nitarrak* izenekoa.
Etzi, domeka, estreinatuko dute
Juan Arzamendi Musika Etxeko
auditoriumean, 19:30ean. *Arra-
sate.eus* atarian daude sarrerak,
zazpi eurotan, eskuragarri.

Maria Osés idatzitakoa
"Gustura" hartu zuen Iholdi Be-
ristainek *Ni ta nitarrak* baka-
rrizketaren idazle Maria Osésen
proposamena. "Bistaz ezagutzen
genuen elkar bakarrik, eta sor-
presa polita izan zen eskaintza
jasotzea. Erronka polita iruditu
zitzaidan eta gidoia bidali zida-
tenean asko gustatu zitzaidan;
izan ere, kontakizuna oso hurbil
sentitzen dut, eta, esango nuke,
emakume gazte eta euskaldun
askok moduan".

Maria Isabel izango da Beris-
tain taularen gainean. "Dramak
kontaktzera nator, beti ere umo-
retik; izan ere, umorea tresna
oso potentea iruditzen zait nahi
duguna esateko. Ez ditut gauza
arraroak edo ez-ohikoak konta-
tuko, egunerokotasuneko kon-
tuak baizik. Umoretik eta me-
diokridadearen apologia garbia
eginez. Hasierako gidoiari hain-
bat moldaketa egin dizkiogu
taularen gainean ahalik eta
erakargarriena izan guran Ma-
ria Osésen, Ikuska Lizarralde-
k eta hirurok, elkarlanean".

Guztionez gomendagarri
Ez da *stand up* formatuko elka-
rrizketa. "Antzerkitik du gehia-
go; dekoratu txiki bat prestatu

**IHOLDI BERISTAIN EK
ANTZETZUKO DU
MARIA OSESEK
AED-RENTZAKO IDATZI
DUEN BAKARRIZKETA**

dugu eta askotariko osagaiak
erabiliko ditut kontakizunari
laguntzeko, tartean, gitarra ere
bai, baina ez da musikal bat.
Dibertigarria da, eta ondo pa-
satuta hausnartzera bultzatzen
du. 15 urtetik gorako edozeinen-
dako gomendatzen dugu; gazteek
hurbilago sentituko dute kon-
takizuna, baina interesgarria
iruditzen zait helduentzako ere,
gure paperean sartzeko".

Herriz herri zabaltzeko gogoz
Askotariko ikus-entzunezkoetan
egin du lan Beristainek, ETBren
Bagoaz musika saioan eta *Go!-
zen* telesailan, esaterako. Gaur
egun antzerkian ari da, gehien-
bat. "Hainbat antzezlanekin
nabilaldi berean, eta berria
estreinatuko dugu laister. Horrez
gainera, bakarriketa musika-
tuak egiten ditut ahizparekin
eta *Nor da Maurizia* lanean ere
jarduten dut. Eta orain, gogotsu
nago *Ni ta nitarrak* ikuskizuna
Euskal Herriko askotariko txo-
koetara eramateko".

Goienakideen txokoa

URRIKO SARIAK

Tableta
InnJoo Superb
Plus tableta



Parte hartzeko sariaren
izena: tablet



Sarrerak
Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz



Otarrea
Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea



PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE
"sariaren zerua" [bakarriketaren zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.
"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzearen artean egingo da zozketa.
Indarrez dagoen 1.700 15/1999 legearen arabera jakinarazten dugun moduan Gizona komunikazio zerbitzuen
libreki automatizatutako baten sartze dela. Datu bilaketaren helburu bakarra da indarrez dagoen zozketa gertatzea.
Eskubidea eragoz dezake datuaren sartzeko, baina zuzentzeko edo ezartzeko, helbide honetan datu. goienakide@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Arrasateko Udaleri esker
"Migrotzeak" dantza zaldirako sarrerak ditugu.
Arrasate | Amala Antzokia | Urriak 28 | 19:30

PARTE HARTZEKO:

E-postaz: goienakide@goiena.eus WhatsApp: GOIENAKIDE "Migrotzeak"
[bakarriketaren zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.
"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzearen artean egingo da zozketa.
Indarrez dagoen 1.700 15/1999 legearen arabera jakinarazten dugun moduan Gizona komunikazio zerbitzuen
libreki automatizatutako baten sartze dela. Datu bilaketaren helburu bakarra da indarrez dagoen zozketa gertatzea.
Eskubidea eragoz dezake datuaren sartzeko, baina zuzentzeko edo ezartzeko, helbide honetan datu. goienakide@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako otordua

MAIALDE JATETXEARI ESKER
Begiratu Puntua aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte!
Parte hartzeko azken eguna: urriak 24.

☎ 943 25 05 05 ✉ goienakide@goiena.eus 📱 "Goiena app"-a / zozketa atalean.
📞 GOIENAKIDE Jatetxea [bakarriketaren zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko,
zozketetan parte hartzeko
eta txartel digitalaren
abantailez gozatzeko...



BAZKIDETZA KUOTA: 45 €
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA
APP BERRIA!

goiena
kide

Okm: batzen gaituen distantzia.

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



'ITXIERA BAT. HAMAR URTE. HAMAICA IRAKASGAI'
Fagorren itxieraren hamargarren urteurrenaren harira egindako erreportaje berezia.

'Bereziak' Egubakoitza, 19:30 eta 21:30



THE MOVEMENT TALDEAREN ZUZENEKOA

Urri hasieran Kooltur Ostegunetan egindako kontzertua osorik entzuteko aukera.

'Bereziak' Egubakoitza, 23:00



KANPANZAR ART TALDEAREN PARTIDUKO IRUDIAK

Senior mailako taldeak BRT Menditarrak taldearen kontra jokatu duen lehiaren laburpena.

'Harmailatik' Astelehena, 19:30, 21:30 eta 23:30



'BIXI IBILI' ESKORIATZAN

Aitor Agiriano herrien arteko tribial jokoan parte hartzeko lehiakide bila joango da.

'Bixi ibili' Martitzena, 19:30, 21:30 eta 23:30



ANE LINDANERI ELKARRIZKETA

Idoia Torregarai elkarrizketatuko du Bilboko umorista, eta haren liburuz egingo dute berba.

'Elkarrizketa' Eguaztana, 19:30, 21:30 eta 23:30



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:
goiena.eus/telebista

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

ESKER ONA

Miguel Mari Lete Azkarate



2023ko urriaren 14an hil zen, 77 urte zituela.

Lerro hauen bidez familiak eskerrak eman nahi dizkizuegu, bihotz-bihotzez, horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

Antzuolan, 2023ko urriaren 20an.

ESKER ONA



Pedro Sologaitoa Zabaleta



2023ko urriaren 9an hil zen, 83 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana.

Familiaren partetik.
Oñatin, 2023ko urriaren 20an.

URTEURRENA



Jesus Mari Arrokalde Villar



2022ko urriaren 23an hil zen, 64 urte zituela.

Beti gure bihotzean.

Urteurreneko meza zapatuan izango da, urriaren 21ean, 19:00etan, Oñatiko Mikel Deunaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Oñatin, 2023ko urriaren 20an.

MEZA



Jose Mª Urzelai Aiestui



2023ko urriaren 7an hil zen, 87 urte zituela.

Hileta elizkizunetara etorritakoei eta samin agurrak bidali dizkiguzuenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

Aldi berean, jakinarazi nahi dizuegu zapatuan, hilak 21, 19:30ean, haren aldeko ondraz ospatuko ditugula Agustindarren elizan.

Oñatin, 2023ko urriaren 20an.

OROIGARRIA

Gotzone Aranburu

'Tia Gotzone'

Bergara 1935/03/03 - Santiago (Txile) 2023/10/14



Hamar mila kilometrora bizi izan bazare ere, beti egon zara gertu.

Aranburu-Pardina-Amasorain Usabiaga familia.
Bergaran, 2023ko urriaren 20an.

OROIGARRIA



Juan Angel Fernandez Lopez



2020ko urriaren 16an hil zen, 62 urte zituela.

Horrenbeste maite zaitxugu, ezin da gehixau maite.

Etxekoak.
Arrasaten, 2023ko urriaren 20an.

OROIGARRIA



Iruñe Zangitu Mugika



2023ko urriaren 15ean hil zen, 61 urte zituela.

*Bidai on, tia Iruñe.
Asko maite zaitugu.
Etxekoan partetik.*

Bergaran, 2023ko urriaren 20an.

Oroilore

Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

Guri deitu zuzenean edo, nahiago baduzue, jakinarazi zuen atsegurakopariari gurekin nahi dituzela agurtu maite duzenean.

Marioen, Ibanen, Maribiren eta Cristianen partetik, besarkada magikoak zuzentzeko, bihotza sendatzeko baloak dituen horietakoak. Guk baditugu gorleku zuzentzeko, gure beharra duzenerako.

Marlo, Iban, Maribi eta Cristian



Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENENKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 20

ARRASATE 'Bularra eman eta lan egin: egin dezagun posible' informazio gunea

Debagoieneko emaginek edoskitzea eta lana uztartzeari buruzko informazio-mahai bat jarriko dute. 12:00etan, haurtoarekin dantza egiteko aukera. *Biteri plazan, 11:00etan.*

ARAMAIO Erreka garbiketa eskolako umeen eskutik

Herrigunean egingo dute. *Aramaion, 14:00etan.*

ARRASATE 'Stem' tailerra familiendako

Zientzia eta teknologia jolasak, Mari Luz Guenagarekin, 10-14 urte artekoendako. *Santa Marinako auzo bibliotekan, 17:00etan.*

BERGARA Kantu eta jolasak familiendako

HHko eta LHko 1. eta 2. mailetako familiendako, *Haurren aurrean, helduok heldu* ekimenaren baitan. *Oxirondon, 17:15ean.*

ELGETA Ipuinen ordu berezia

17:30ean, HHko 3. mailatik LHko 1. mailara artekoendako; eta 18:30ean, LHko 2. mailatik 6. mailara artekoendako. *Liburutegian.*

ESKORIATZA 'Naturaren balioak zertarako balio ote?' hitzaldia

Unai Pascualek egingo du berba, Aste Berdearen baitan. *Zaldibar antzokian, 18:00etan.*

ARAMAIO Produktu fitosanitarioen ikastaroa

Gaur egingo dute lehenengo saioa, Arbel kooperatibako kideen eskutik. *Online, 18:00etan.*

ARRASATE 'Gure ibaiak, egungo arazoak eta etorkizuneko erronkak' hitzaldia

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ibai Ingurune teknikiari Aitor Lekuonak ibaien gainean jardungo du, fokua jarrita gaur egun dituzten arazoetan eta etorkizuneko erronketan. *Kulturaten, 18:00etan.*

ELGETA Ozkarbiko gazteen lokala: bilera

Ozkarbi elkarte zuzendaritzak deituta. *Ozkarbin, 18:00etan.*

ESKORIATZA Familien arteko olinpiadak

Haurren aurrean, helduok heldu egitasmoaren baitan. *Luis Ezeizako patioan, 18:00etan.*

ESKORIATZA 'Egin aurre bakardadeari' hitzaldia

Nagusilanekeo kideek egingo dute berba. *Kultura etxean, 18:00etan.*

ARRASATE Palestinar herriari elkartasuna adierazteko hitzaldia

Kontseilu Sozialista Deba Bailarak deituta. *Kulturaten, 18:30ean.*

ARETXABALETA Greba feminista: bilera

Azaroaren 30eko greba prestatzeko. *Udaletxe zaharrea, 18:30ean.*

ANTZUOLA Film sozialak 2023

Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdiko sei lan aurkeztuko dituzte. *Torresoroan, 18:30ean.*

ARETXABALETA Gure Zirkua

Trapezisten, pailazoen eta ekilibristen emanaldiak izango dira, besteak beste. *Unibertsitate alboan, 19:00etan.*

ARRASATE Palestinari elkartasuna: elkarretaratzea

Zapi palestinarra eta elkartasun kamisetak janzteko gonbita egin dute. *Herriko Plazan, 19:30ean.*

ELGETA Txuma Murugarren zuzenean

Nick Cave abestuz emanaldia, Rafa Aceves pianistaren eta Natxo Beltran bateria-jolearen laguntzarekin. *Ozkarbi elkartearen, 19:30ean.*

ARETXABALETA 'Palestina askatu!' elkarretaratzea

Genozidioa gelditu! Palestina askatu! leloarekin. *Herriko Plazan, 20:00etan.*

ARRASATE Anonyme Popular kontzertua

Igor Elortza eta Rafa Rueda oholtza gainean. *Kulturaten, 20:00etan.*

BERGARA 'Isladak' antzezlan

Debagoieneko antzerki jaialdiaren baitan. *Irizar jauregian, 20:00etan.*

ZAPATUA 21

DEBAGOIENA Deba ibaiaren garbiketa

Bailarako herri guztietan. *Debagoiengan, 09:00etan.*

ARRASATE Sagarraren bueltako azoka

Hainbat sagar barietate eskainiko dituzte. Gainera, Anne Otegi sukaldariak *show-cooking* saio bat egingo du. *Seber Altuben, 09:00etan.*

ARETXABALETA Mendi bizikleta martxa

UDAREN eskutik. *Herriko Plazan, 09:00etan.*

ARRASATE Bigarren eskuko azoka IMMEn eskutik

Azokan batutako dirua Palestinara bideratuko dute. *Biteri plazan, 10:00etan.*

ESKORIATZA Ezkurtxo

Ibilaldiak, ipuin kontaketa, jolasak eta txokolate-jana, 2-10 urte artekoendako. *Marin elizatean, 10:00etan.*

ARRASATE Txokolate dastaketa

Pobrezia Aurrakako Egunaren harira, Harreman Dendaren eskutik. *Seber Altube plazan, 10:00etan.*

ARRASATE Zuzeneko elkarrizketa Cristina Armasekin

Kanariar abokatuarekin egingo dute berba Askatasuna eta Giza Eskubideen Aldeko Herri Plataformako kideek. *Kulturaten, 10:30ean.*

ELGETA Gaztelekua: bilera irekia

2008-2011 urteen artean jaiotako gaztetxoendako. *Gaztelekuan, 16:00etan.*



MARIA DEL TANGO

BERGARA Maria Del Tango & El Calimbero bikotea

Mundo divino ikuskizuna aurkeztuko dute, Juan Carlos Aracilen laguntzarekin. Cadizeko bikoteak bi belaunalditako musika eta poesia bateratzen ditu. Debalde. *Bihar, zapatua, San Juan auzoko ermitan, 20:00etan*

ARETXABALETA Gure Zirkua

Gaur, bi saio: 17:00etan eta 19:30ean. *Unibertsitate alboan.*

ARRASATE Gaztaina batzea

Kurtzetxiki inguruan batuko dituzte gaztetxoek. *Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.*

ARETXABALETA 'Kuartela herrira!' jaialdia

Orei, Berandu Baina Lehen eta Hiru Leño taldeen eskutik. *Loramendi inguruan, 18:00etan.*

BERGARA Maria Del Tango & El Calimbero bikotea

Mundo divino ikuskizuna aurkeztuko dute, Juan Carlos Aracilen laguntzarekin. *San Juan auzoan, 20:00etan.*

BERGARA Alberto Saezen eta Eduardo Diazen emanaldia

Organo Erromantikoaren Nazioarteko Zikloaren baitan. *Santa Marina parrokian, 20:00etan.*

DOMEKA 22

ELGETA Irukerutzetara ibilaldia

Kantsatzeke taldearekin. *Mendizaleen plazan, 08:00etan.*

LEINTZ GATZAGA Gatzaren Eguna

Azoka, zurezko jokoak, landare-kontsulta Jakoba Errekondorekin,

bisita gidatuak, hanburgesa postuak eta gatz xaboiak egiteko tailerra, besteak beste. *San Migel plazan, 10:00etan.*

OÑATI Aitzulora irteera, familiendako

Araozetik abiatuko dira 10:00etan eta 13:30 inguruan itzuli. *Araozten.*

ARETXABALETA Mundukideren lasterketa solidarioa

Hiru modalitate izango dira, Urkuluri bira emateko: ibilera nordikoan, oinez eta lasterka. *Urkulun, 10:00etan.*

ANTZUOLA Haur Dantzarien Eguna

10:00etan, alborada herriko txistulariekin; 11:00etan, dantza taldeen kalejira; eta 12:30ean eta 17:30ean, dantza saioak Herriko Plazan. *Antzuolan.*

BERGARA Ihes-gela familiendako

LHko hirugarren mailatik seigarren mailara artekoendako, *Haurren aurrean, helduok heldu* ekimenaren baitan. *Errekalde jauregian, 11:30ean.*

ARAMAIO Barajuengo frontoiaren inaugurazioa

Pilota partiduak, dantzariak, bertsolariak... egongo dira. Taberna zabalik egongo da. Frontoia garbitu eta margotu egin dute. *Barajuenen, 12:00etan.*

BERGARA Elizkizuna Bergarako Orfeoaren parte-hartzearekin Orfeoaren mendeurrenaren harira, hildako kideen aldeko meza emango dute. *Santa Marina parrokian, 12:00etan.*

BERGARA Musika bandaren kontzertua Oraingoan, Igor Larrañagak zuzenduta. *Pilotalekuan, 12:30etan.*

ARETXABALETA Gure Zirkua Trapezisten, pailazoen eta ekilibristen emanaldiak izango dira, besteak beste. *Unibertsitate alboan, 18:00etan.*

ARRASATE 'Ni eta nitarrak' antzezlan Maria Osese idatzitako lana, Iholdi Beristain aktorearekin eta AEDK ekoiztuta. Sarrerak, zazpi euro. *Juan Arzamendi Musika Etxean, 19:30etan.*

ASTELEHENA 23

OÑATI Liburutegira bisita Lur Korta Redin ipuin kontalaria izango dute gidari 4 urteko umeei. *Liburutegian, 09:00etan.*

DEBAGOIENA Pentsiodunen elkarretaratzea Arrasaten, Antzuolan, Bergaran eta Oñatin, pentsio duinak eskatzeko. *Herrietan, 12:00etan.*

ARRASATE Literatura solasaldia Svetlana Aleksievitxen *El fin del Homo Sovieticus* liburuaren gaineko saioa. *Bibliotekan, 18:00etan.*

MARTITZENA 24

OÑATI Liburutegira bisita umeei Lur Korta Redin ipuin kontalaria izango dute gidari 4 urteko umeei. *Liburutegian, 09:00etan*

OÑATI Ibilgailu elektriko eta karga puntuen gaineko tailerra Aldundiko Jasangarritasun Departamentuak eta Debagoieneko Mankomunitateak, Oñatiko

Udalarekin elkarlanean. Bertan, auto elektrikoa kargatzeko teknologiak gaur egun duen egoera eta ezartzeko duen ahalmena aztertuko dira. *Zinema aretoan, 17:30etan.*

ANTZUOLA 'Zuk jakitea nahi dut' hitzaldia Etika Batzordeko kide eta gizarte-langile Olaia Aranak egingo du berba. *Olaran etxean, 17:30etan.*

BERGARA 'Autismoaren gainean hitz egin dezagun' hitzaldia Gautenako psikologoak, Esan-eko logopedak, Ipintzako gela egonkorreko tutoreak eta Arrasate Rugby Taldeko dinamizatzaileak parte hartuko dute. Bukaeran, mokadutxo eskainiko dute. *Seminarixoan, 18:00etan.*

OÑATI Tertulixan gazteleraz Maggie O'Farrell idazlearen *Hamnet* liburuaren gaineko saioa, Monica Leivak gidatuta. *Liburutegian, 18:30etan.*

ESKORIATZA Eskoriatzan energia komunitate bat sortzeko deia Aste Berdearen baitan. *Ibarraundi museoa, 18:30etan.*

ELGETA Hitzez Pitz irakurketa taldea Nerea Ibarzabalen *Bar Gloria* liburuaren gaineko saioa egingo dute. *Liburutegian, 19:00etan.*

EGUAZTENA 25

ELGETA Erretiratuaren irteera Balmasedara Xalbadorpe elkartearen eskutik. *Mendizaleen plazan, 08:00etan.*

ESKORIATZA Yoga familian *Haurren aurrean, helduok heldu* egitasmoaren baitan, Maider Herzeren eskutik. *Kultura etxean, 17:30etan.*

BERGARA 'Merienda osasuntsuak' tailerra Mireia Alberdi nutrizionistarekin, LHko familiendako, *Haurren aurrean, helduok heldu* ekimenaren baitan. *San Xosepe elkarte, 18:00etan.*

ELGETA Astro topaketa Astro-argazkilaritzari buruz arituko dira oraingo honetan, Ilatargi elkarteko kideekin. *Liburutegian, 18:30etan.*

BERGARA Erakusketa Ana Esther Fernandez eta Berta Barrosoren margolanak ikusgai egongo dira azaroaren 5era arte *Aroztegin, 18:30etan.*

ELGETA 'Energia argitu' topaketa Modu eraginkorrean erabiliz energia eta dirua aurrezteko gomendioak emango dituzte. Izena emateko: *argitu@gipuzkoa.eus* edo 628 530 303. *Udaletxea, 18:30etan.*

ARRASATE 'Sortaldekoak' liburuaren aurkezpena Hedoi Etxarte egilea egongo da, liburua aurkezten eta errezitatzen, Arotz Letrak zikloaren baitan. *Irati tabernan, 19:00etan.*

BERGARA 'Entre las higueras' pelikula Zinekлубean, jatorrizko bertsioan eta azpitituluekin. Sarrerak, hiru euro. *Seminarixoan, 20:00etan.*

EGUENA 26

ARRASATE Sasoibide Bixi Ibili tailerra egingo dute gaur, Gikaiko ikasleen laguntzarekin. *Ferixalekuan, 10:00etan.*

ESKORIATZA Arte para el buen vivir jaialdia Tailerrak, film laburrak, pintxo-poteoa eta txaranga, besteak beste. *Fernando Eskoriatza plazan, 11:00etan.*

ESKORIATZA 'Aitzo jolasa: beldurren aurkako pilula' *Haurren aurrean, helduok heldu* egitasmoaren baitan, Maier Etxeberriarekin. *Kultura etxean, 18:00etan.*

ESKORIATZA 'Zaku bete ipuin' ipuin kontaketa Dorleta Kortazarrekin, 4 urtetik gorakoendako, *Haurren aurrean, helduok heldu* egitasmoaren baitan. *Bibliotekan, 18:00etan.*

ARAMAIO 'Gure euskal zuzenbidearen berezitasuna' hitzaldia Juanjo Alvarezek egingo du berba. *Kultura etxean, 18:00etan.*

ZINEMA

BERGARA

SEMINARIXOA

El valle de la esperanza Domeka eta astelehena: 19:30.

Richard la cigüeña y la joya perdida Domeka: 17:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

Cerrar los ojos Egubakoitza eta zapatua: 22:00. Domeka: 19:30, 22:15. Astelehena: 19:30.

Richard la cigüeña y la joya perdida Zapatua eta domeka: 17:00.

GASTEIZ

FLORIDA

Al otro lado del río y entre árboles Egubakoitzetik domekara: 21:30. Astelehenetik eguaztenera: 20:30.

Barbie Zapatua eta domeka: 12:00.

Bidasoa 2018-2023 Egubakoitza: 22:05. Zapatua eta domeka: 12:00, 22:05. Astelehenetik eguenera: 18:45.

Campeonex Zapatua eta domeka: 12:00.

Chinas

Egubakoitza: 17:00. Zapatua eta domeka: 12:00, 17:00. Astelehenetik eguenera: 17:30.

El legado Egubakoitzetik domekara: 17:30, 19:30. Astelehenetik egueztenera: 17:00.

Golpe de suerte Egubakoitzetik domekara: 19:30. Astelehena eta martitzena: 21:00. Eguena: 17:00.

La isla roja Egubakoitzetik domekara: 17:00, 21:30.

Los asesinos de la luna

Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:00. Astelehena eta martitzena: 17:00, 19:15. Eguaztana: 17:00, 19:30. Eguena: 19:00.

Me he hecho viral Egubakoitza: 17:00, 19:45, 21:00. Zapatua eta domeka: 12:00, 17:00, 19:45, 21:00.

Astelehena eta martitzena: 17:30. Eguaztana eta eguena: 17:30, 19:30.

Patrulla canina Egubakoitza: 17:30. Zapatua eta domeka: 12:00.

BERGARA Magia tailerra, Imanol Ituñorekin *Haurren aurrean, helduok heldu* ekimenaren baitan. *Irizar jauregian, 18:00etan.*

ARRASATE Kooltur Ostegunak: Grade 2 taldea Punk-Oi! eszenari freskotasuna eman dion talde gaztea, Ingalaterratik. Sarrerak, zazpi euro. *Gaztetxean, 22:00etan.*

EGUBAKOITZA 27

BERGARA Gau Beltzean oinarritutako tailerrak *Haurren aurrean, helduok heldu* ekimenaren baitan. Orduategia: 17:00-19:00. *San Martin plazan.*

ESKORIATZA Gaba Baltzerako arropa tailerra familiendako 3-12 urte arteko umeendako eta beraien gurasoendako. *Ludotekan, 18:00etan.*

ESKORIATZA 'Isladak' antzerki soziala Proposamen honek lau pieza ditu, antzerki laburreko formatuan, bi euskaraz eta bi gaztelaniaz. Sarrerak, bost euro. *Zaldibar antzokian, 18:00etan.*

OÑATI 'Cuentos de una Azari' ipuin kontaketa Azerbaijandarren kulturara hurbilduko ditu entzuleak Tarana Karim-ek, bere herriko ipuin herrikoien bidez. *Liburutegian, 18:30etan.*

OÑATI 'Tximeletrak airera' haurrendako poesia emanaldia Poesia jostagarria eta gozagarria izan daitekeela erakutsiko die umeei Xabier Olasok. *Haurren liburutegian, 18:30etan.*

ARETXABALETA Gure Zirkua Trapezisten, pailazoen eta ekilibristen emanaldiak. *Unibertsitate alboan, 19:00etan.*

OÑATI 'Sound of freedom' filma Jatorrizko bertsioan. Sarrerak, bost euro. *Zinema aretoan, 22:00etan*



AZKEN BERBA

IZAR ODRIOZOLA

Zirriborroak

Duela egun batzuk, azterketa bat egin nuen, eta probarekin batera zirriborroak edo *paper zikinak* emateko esan ziguten horretan genbiltzanoi.

Agian behin baino gehiagotan gertatzen den zerbait da letra txarrarekin edo kode deszifraezinean esbozatutakoa entregatzea, baina niri erasokorra iruditu zitzaidan. Era baldarrean idatziko nukeena modu txukunagoan egitera behartuta sentitu nintzen, nire intimitatean sartuko balira bezala. Zertarako nahi du zuzentzaileak zaborretara botako nukeen paper zatia? Akaso nire garabatoak miretsi eta psikoanalizatu egin nahi nau? Tipexarekin ezabatutakoa ere aitortuko diot zer zen, nahi izanez gero.

Zirriborroak zerbaitengatik dira zirriborro: bakoitzak erabaki dezala zein eskema egin zikinean eta zer atera argitara. Antzeko zerbait gertatzen da bizitzarekin: norbanakoak aukera dezala noiz eta norekin elkarbanatu barruan duen mazedonia oraindik osatu eta moldatu gabea.

Gure narraskerien jabetza pribatua izateko eskubide osoa dugu, eta ez dut gogorik mundu osora zabaltzeko nola mozten dudan nire mazedoniako fruta; *making-off*-ak erakutsi gabe ere zilegi dugu bizitzea.

BUKATZEKO

Artzain baten etxeko egunerokoa, liburuan

Antzuolako Pikunieta baserriko Josebe Blancok idatzi du 'Hausnarrean. Ardiek egin naute artzain' liburua. Prosa eta poesia bateratu ditu urte natural batek dituen egun guztietako pasarteak kontatzeko. Antzuolan aurkeztuko du liburua azaroaren 7an

Mireia Bikuña Madrid ANTZUOLA

Antzuolako Pikunieta baserriko Josebe Blancok (Antzuola, 1973) afizioa eta ofizioa bateratu ditu *Hausnarrean. Ardiek egin naute artzain* (Argia-ren Bizi Baratztea saila) liburua idazterako orduan. Txikitatik gustatu izan zaio idaztea, eta bi ikasturte egin ditu Bergarako Idazle Eskolan. Gainera, artzaina da ofizioz. Eta, zer hobeto, bere egunerokoa liburu batean jasotzea baino. "Baserri batean, kasu honetan artzain baten etxean, bizi diren egoeren lekukotasunaren berri ematen saiatu naiz. Helburua zen mahai gainean ipintzea egun nekazaritzarekin edo landa-eremuarekin lotuta dauden pozen, arazozen eta egoeren berri ematea", esan dio GOIENARI Josebe Blancok. Lekukotasun horiek jasotzeko Pikunietako bizipenez eta inguruko kontakizunez baliatu da.

Eguneroko formatuan

Liburuak formatu berezia dauka. Urte natural bateko egun bakoitzak bere orriak ditu. Eguneroko bat da liburua. "Horietan zehazten dira erditze sasoiak, gazta egiteko sasoiak, azoka egunak... Artaldeari edo baserriari,



Josebe Blanco Pikunieta baserrian, eta liburuaren portada.

modu zuzenean edo zeharka, eragiten dieten gaiak azaltzen dira: ikusitakoak, irakurritakoak, entzundakoak...", aipatu du egi-leak.

Blancoren liburua urteak dituen 365 egunetan banatuta badago ere, hilabete bakoitzaren hasierak Eider Uribarrena Reyrok egindako ilustrazioekin markatzen dira.

Galegoz ere bai

Prosa eta poesia erabili ditu liburua idazteko. "Oso aspaldi poesia idazteko ohitura nuen. Utzita neukan eta Bergarako Idazle Eskolan hasi nintzen berritoki hasi nintzen poesiarekin. Egia esan, liburuko pasarte batzuk, bizipen batzuk, poesia formatuan idazteko beharra sentitu dut", kontatu du. Idazle Eskolan bizi izandakoak eta

ikasitakoak lagundu diote liburua egiten. "Denbora horretan garbi ikusi nuen egunerokoa izan zitekeela modu eraginkorra nire helburua betetzeko. Ikaskideak eta Tere Irastortza irakaslea funtsezkoak izan dira erabakian. Izugarritzko oparia izan da orain arteko guztia", dio.

Euskaraz idatzitako liburua da, baina galegoak badu bere lekua, eguneroko horren urteko bi egun jakinetan. Horietako bat maiatzaren 17a: *Dia das letras gallegas*.

Hausnarrean. Ardiek egin naute artzain liburua Antzuolako Olanan etxean aurkeztuko du Blancok azaroaren 7an. Bien bitartean, *Argia*-ren webgunean eros daiteke.

GOIENA
TELEBISTA
SASOI
BERRIA

**ITXIERA BAT.
HAMAR URTE.
HAMAIIKA IKASGAI.**

URRIAREN 20AN, EGUBAKOITZEAN,
19:30EAN ETA 21:30EAN
ERREPORTAJE BEREZIA



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaude.

